



Arrasateko Kanpatorpe kalean erosketak egiten.



URTEKO SALMENTA SASOIRIK ONENA, GABONETAKOA

Ohiturak eta erosahalmena aldatu egin diren arren, dendariek eta udalek esfortzu berezia egiten dute Gabonetan bertan kontsumitzera gonbidatzeko / 2

XABIER URZELAI

Memoria partekatua eraikitzen Arrasaten

1956tik gaur arte motibazio politikoengatik Mondragoen izandako askotariko sufrimenduak txosten batean batu dituzte, adostasunez / 10

Jesus Jauregi omenduko dute zapatuan Bergarako San Antonio auzoko Napar Ferian / 26

Musakolako kiroldegia, musika areto bihurtuta, Shot! estudioaren aldeko jaialdian / 36

Jerardo Elortzaren gaineko liburua aurkeztu dute, Oñatiko gaien bildumako lehena / 32

SINADURAK



GOTZON IPARRAGIRRE / 6

ALAZNE GURIDI / 31

IDOIA ETXEBERRIA / 48

GABONAK

Egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:
'Urtekaria': hilaren 28an.
'Puntua': urtarrilaren 4an.
GOIENA: urtarrilaren 11n.

Ondo ibili!



Reyes Azkoitia pilotariari elkarriketa

'Aralar: mundua leku den lurra' dokumentala

Hemen GARBKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiaketak.com
hemen@hemen-garbiaketak.com



Komertzio asko daukan Arrasateko Olarte kalean herritarrek joan-etorrian, Gabonen atarian. XABI URZELAI



Antzuolako Gabilondo-Arregi harategiko langileak. GABILONDO AHIZPAK



Oñatiko Kuttun lentzeriako erakusleihoa lehiaketarako prest. ASUN ARROYO

Gabonetarako guztia prest dute dendariak

Bailarako herrietako dendetako erakusleihoeak aspaldian hartu zuten Gabon itxura, dendariak kapritxo guztiz apaindu baitituzte. Izan ere, komertzioentzat salmenta kopuru handien izaten duten urteko garaia da eta dagoeneko dena prest dute

Amaia Zabala ARRASATE

Antzuolako Gabilondo-Arregi harategian, esaterako, Gabonetan eta orokorrean abendu guztian "asko" saltzen dela eta oso hilabete ona izaten dela diote Itziar eta Lide Gabilondok, harategiko nagusiek. Gaineratu dute, ordea, gauza bereziagoak saltzen direla egunotan, eta ez, urteko aste arrunt batean bezala, denetik pixka bat. Egun hauei aurre egiteko nola prestatzen diren galdetuta, ordu gehiago sartzen dituztela diote: "Ardura handiko egunak izaten dira, bezeroak ahalik eta generorik onena nahi izaten du eta guk ere ahalik eta zerbitzu onena eman nahi izaten dugu; horrek

urduritasuna ekartzen du". Azaldu dute bertako generoa ibiltzen dutela beti eta nahiz eta Gabonetan eskaera gehiago izan ez dutela kanpotik ekartzen, eta, ondorioz, enkargu batzuei ezezkia eman behar izaten dietela. Erostejo joera aldatu al den galdetuta, berriz, lehen jendeak egun hauetako otorduak askoz ardua handiagoz hartzen zituela esan dute eta gaur egun enkargu asko azken egunetan jasotzen dituztela.

Bestalde, azaldu dute Errege bezperan lau sari zozketatzen dituztela bezeroen artean. Dendari Gabon kutsua emateko, aldiz, erakusleihuan Olentzero

eta beste hainbat apaingarri ipini dituzte.

Amaitzeko, bai Itziarrek eta bai Lidek azpimarratu nahi izan dute Antzuolako herritarrek herrian kontsumitzen dutela eta "oso kontzientziatuak" daudela horrekiko, "baita gazteak ere", horretaz jabetzen direla eta "asko" eskertzen dietela herritarrei.

Kuttun lentzeria

Oñatiko Kuttun lentzeriako Asun Arroyok ere Gabonak garai "emankorra" direla eta dendari guztiak zain egoten direla aitortu du; dena den, gaineratu du urte sasoi honetan ez dela lehen adina saltzen eta gehienak azkeneko momentuan

ibiltzen direla. Arroyok dio Gabonetako oparietarako produktu espezialak ekartzen saiatzen dela beti; emakumeentzat bodyak eta gizonekoentzat boxerren loteak, esaterako.

Kuttun lentzeriako erakusleihok ere badu Gabon ukitua, herrian antolatu den erakusleio lehiaketan ere parte hartu baitu. Aurten, abesbatza bat irudikatu du Arroyok. Horretaz gain, Txanda Oñatiko Merkatarien Elkartek 200 euroko bonuak zozketatuko ditu bezeroen artean abenduaren 24an, herriko dendetan gastatu ahal izateko.

Online salmentez galdetuta, dio lehen merkataritza-etxe handiak zirela mehatxu, eta orain, berriz, online salmentak, eta askotan planteatu izan dela berak ere zerbitzu hori eskaintzea, nahiz eta oraindik ez duen pausoa eman. "Niri per-

tsionalki ez zait, ordea, online erostea gustatzen, guk eskaintzen dugun dendariaren eta bezeroaren arteko gertuko harreman hori galtzen baita", dio Arroyok.

Markiegi arropa denda

Arrasateko Markiegi gizonezkoen arropa dendako nagusi Jorge Markiegik ere salmentei dago kienez "urteko garairik garrantzitsuena" dela dio, baina salmentak orokorrean jaisten ari direla eta Gabonetan ere hori nabari dela. "Alde batetik, jendeak gero eta gehiago erosten du online, eta, bestetik, jendearen erosahalmena jaitsi egin da; orain, jendeak ez ditu lehen adinako soldatak, eta gehiago dibertsifikatzen du".

Markiegin ere asko zaintzen dute erakusleihoa urte guztian zehar, eta Gabonetan gaiarekin loturiko apaingarriak jartzen dituzte. Dendako langileriari dagokionez, ez dute aparteko kontrataziorik egiten Gabonetan, eta dendako zozketa berezirik ere ez. Hori bai, Ibai-arte Merkatarien Elkarteko kide dira eta urte guztian zehar hainbat eskaintza dituzte bezeroentzat.

**OÑATIKO TXANDA
MERKATARIEN
ELKARTEAK 200
EUROKO BONUAK
ZOKKETATUKO DITU**



Jorge Markiegi, dendako alkandora batzuk erakusten, Arrasaten. XABI URZELAI



Eskoriatzako Dorleta liburu dendako Gabonetako zozketarako kutxa. ADELA CORTAZAR



Bergarako Igaro lurrindegiak zozketatuko dituen hiru saskiak. IONE IGARTUA

Dorleta liburu denda
Gainontzeko dendetan bezala, Eskoriatzako Dorleta liburu dendan ere pisu handia dute Gabonek, eta bertako nagusi Adela Cortazarrek argitu du "kopuru handia" saltzen dela sasoi honetan; dena den, urtean zehar ere saldu behar dela: "Gabonekin soilik ez da hainbesteko kaxarik egiten". Salmenta kopuruen joeraz galdetuta, ordea, haxe dio: "Krisi urteetan asko nabaritu zen, baina azken urteetan berriro igo da lehengo kopuruetara; aurten, gainera, kopuru horiek gaintu egin dituela esango nuke".

Erakusleioari dagokionez, Cortazar urte guztian saiatzen da "apain-apain eta erakargarri" izaten, eta, noski, Gabonetan ere bai. Urte sasoi honetan, berezitasun moduan, saski bat zozketatzen du bezeroen artean: "Egiten dudana laugarren urtea da aurtengoa; bezeroek erosketak egitean tiketa kutxa batean sartzen dute eta ondoren guztien

DENDARI GUZTIAK BAT DATOZ: GABON SASOIKO SALMENTA JAITSI EGIN DA AZKENEKO URTEETAN

Udalen aurrekontuak Gabon hauetarako

Abenduan hasi orduko, herri eta hirietako kaleak Gabonetako argi eta apaingarritz betetzen dira, baina bai horretarako eta bai beste hainbat ekintzatarako udalek inbertsio bat egin behar izaten dute. Gure ibarreko udalen kasuan, haxe da duten aurrekontua.

Arrasateko Udala da argi eta apaingarrietan inbertsio handiena egingo duena: alde zaharreko argietarako eta udaletxeko fatxada apaintzeko 24.051,78 euroko inbertsioa egin du eta Garibai etorbiderako, berriz, 2.286,90 eurokoa. Horretaz gain, izotz pistak 27.709 euroko gastua izan du eta Txikilandiak, berriz, 15.000 eurokoa. Bestalde, lbai-arte Merkatarien Elkarteak Gabonetan antolatzen dituen ekintza guztien %25 finantzatzen du urtero eta erakusleio lehiaketarako, berriz, 2.360 euro.

Bergararen kasuan, argi eta apaingarrietan 19.360 euro gastatu ditu Udalak eta Gabonetako jolas parkean 10.614 euro. Gabonetako gainontzeko kultur ekintzetara, berriz, 14.000 euro bideratu ditu. Merkatariek elkarteari dagokionez, urteko diru-laguntzez gain, Gabonetan ez dute aparteko partidari bideratzen.

Oñatin, argien muntatze, mantentze eta alokairuan 11.377 euro gastatu dituzte eta, Gabonetako ekintzei dagokionez, Kulturatik 22.000 euro, Kiroletik 4.000 euro eta Sozioekonomia Saitetik, 2.000 euro.

Aretxabaletak aurten argi eta apaingarrietan 7.018 euro inbertitu ditu. Eskoriatzako Udalaren kasuan, berriz, 8.734,09 euro alokairu eta erosketan eta argiak jartzen beste 2.600 euro. Abenduaren 5eko argien piztuera ekitaldian, berriz, 382 euro.

Argien inbertsiorik ez
Antzuola, Elgetako, Aramaioko eta Leintz Gatzagako udalek, aldiz, ez dute aurrekonturik bideratu Gabonetako argi eta apaingarrietarako, eta aurreko urteetatik dituzten gutxi batzuk berrerabili dituzte. Aldiz, Gabonetako ekintzetarako bai: Antzuolako Udalak 6.500 euro gastatuko ditu aurtengo Gabonetako kultur ekintzetan. Elgetan, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrerarako, Gabonetako jolas parkerako eta zirku eta maskara tailerrarako 1.785 euro bideratu dituzte eta Aramaion, berriz, 5.000 euro.

ARGI ETA APAINGARRIENGATIK ORDAINDUTAKOA

HERRIA	EURO
Arrasate	26.338
Bergara	19.360
Oñati	11.377
Aretxabaleta	7.018
Eskoriatza	11.334

Igaro lurrindegia

Bergarako Igaro Lurrindegiak Debagoieneko dendek emandako bitxia saria jaso berri du eta Ione Igartua bertako nagusiak aitortu du dendan sari honek eragina izan duen edo ez nabaritzea zaila den arren, pertsonalki satisfazio izugarria eman ziola.

Gabonei dagokionez, salmenta "asko" igotzen dela azaldu du Igartuak, nahiz eta azken urteetan "pixka bat jaitsi" egin den. "Pack bereziak edukitzen ditugu Gabonetan, bai lurrinenak eta baita tratamendu estetikoak ere; azken hauek, bereziki, promozionatzen ditugu eta oso ondo saltzen dira", dio Igartuak.

Erakusleioari dagokionez, bera "oso apetatsua" dela dio Igartuak, eta urte guztian zaintzen duela. Gabonetan, gainera, Bergarako Udalak erakusleio

zozketa egiten du eta Igartuak urtero hartzen du parte.

Horretaz gain, herriko merkatarien elkarteak, Bedelkarrek, hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtero herritarrek herriko dendetan erostera bultzatzeko: "Aurten, esaterako, puzgarriak eta txutxu-trena antolatu dituzte eta Bedelkarko txartelarekin ordaintzen dutenen artean hainbat zozketa egingo dira".

Gabonetako ospakizunez gain, ospakizunetarako beste arrazoi handi bat ere badu Igartuak; izan ere, Igaro lurrindegiak 30 urte bete ditu aurten. "Urteurrena ospatzeko zerbait berezia egin nahi izan dut eta bezeroen artean 600 eurotan baloratutako hiru saski zozketatuko ditut urtarilaren 7an", azaldu du Igartuak.

Bertako produktua

Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak Gabon hauetan kontsumo arduratsua izateko eta bertakoaren aldeko apustua egiteko deia luzatu dio gizarteari: "Bertako produktua erosteak base-rritarren lana aintzat hartu eta lan baldintza duinak izan ditza- gun laguntzen du".

ESKORIATZAN, 36 KOMERTZIOK HARTU BERRI DUTE PARTE 'MERKATARI' APLIKAZIOAN



Alternatibaren 10. urteurrenaren ekitaldia. ALTERNATIBA

Elkarkidetzatik jaioa, 10 urtez alternatiba gisa

Alternatiba Bilboko Bidebarrieta liburutegian jaio zen, orain dela 10 urte, ezker mugimendu ezberdinak batzeko asmoarekin, eta mugimendu hartan bere pisua izan zuten Debagoieneko hainbat lagunek

Jokin Etxebarría DEBAGOIENA

Ezkerreko korrante ezberdinen baturatik sortu zen orain dela 10 urte Alternatiba talde politikoa. Sorkuntza hartan, Debagoienak pisu nabarmena izan zuen, Arrasate plaza oso garrantzitsua izan baitzen. Ezker Batutik zetozen Joseba Ugalde eta Ander Rodriguez, besteak beste, talde politikoa ofizialki sortu aurreko bileretan lanean ibili ziren buru-belarri; gero, zinegotzi izango ziren Arrasateko Udalean. "Gure erakundeen barruan arazoak genituen aurrera egiteko, baina batzuk konbentzitututa geunden erakundeetan jarraitu behar genuela eta batuketara ideia ona izan zitekeela", dio Piter Encinasek, gaur egun Arrasateko EH Bilduko zinegotzi denak.

"Alternatiba jaio zenean, argi adierazi genuen ez zela sigla berri bat, baizik eta Euskal Herriko ezkerreko batzeko katalizatzaile bat. Ordura arte, gure herriko ezker mugimendu ez-

berdinen arteko talka bat zegoen, bakoitzak bere espazioa hartzeko, eta ikuspuntu berdinen batuketara bat bilatu nahi genuen guk", adierazi du Oskar Matutek.

Sortu eta gutxira, EH Bildura

Hausnarketa hura kontuan hartuta, agian, errazago uler daiteke sortu eta gutxira EH Bildu koalizioa kide bihurtu izana. "Guretzako, hausnarketa oso naturala izan zen. Ezkerrek egunerokotasunean zituen enfrentamendu eta desilusioak baztertu eta denon elkartzuna bilatu nahi genuen eta EH Bildun sartu edo hau sortzea pauso naturala izan zen", gaineratu du Matutek. "Koalizio honetan onena eta garrantzitsuena da,

**EUSKAL HERRIKO
EZKERRAK BATZEKO
KATALIZATZAILE
MODUAN JAIO ZEN
ALTERNATIBA**

nahiz eta talde politiko ezberdinak gauden, bakoitzak bere ideia propioa izaten jarraitu ahal duela" dio, bestalde, Encinasek.

Etorkizunari begira lan egiteko badagoela onartuta ere, biko dir. "Taldea politiko bati gertatu ahal zaion txarrena da egiteko ezer ez edukitzea. Gauza asko daude egiteko, baina bide beretik jarraitu behar dugu", dio Matutek. "Politika maratoni bat da eta bertan egongo gara txinpartarik gabe gelditu arte", gaineratu du Encinasek.

Ekitaldiak, apirilera arte

2008ko abenduaren 13an jaio zen Alternatiba, Bilboko Bidebarrieta liburutegian eginiko batzar irekiarekin. Data gogoratzen ekitaldia egin zen abenduaren 15ean, Bilboko Itsas Museoa. Apirilera arte, baina, hainbat hitzaldi antolatu dira Euskal Herrian zehar, eta horietako bat Arrasaten egin zen pasa den asteartean, *Emakumeak jaietan, lotsaren alardea* izenburupean.



Baserri-gune batzuetara banda ultra-azkarra iritsiko da. ARTXIBOA

Banda ultra-azkarra edukiko dute Gatzagak eta Elgetak

Oraingo txandan Antzuolan ez da aurreikusten banda zabalen barreiaketarik Aldundiaren diru-laguntzapean

J.E. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du Gipuzkoako herri txikiak 2.000 baserri banda zabala ultra-azkarreko konexioa izango dutela *Landagipuzkoa* + planari esker. Debagoienean, hiru udalerrri ziren laguntzaren xede: Antzuola, Gatzaga eta Elgeta. Herrigunetik bi kilometro bitarteko baserrietaraino iritsiko zaie sarera konektatzeko aukera, eta exekuzio epea 2019ko azaroaren 30ean amaituko da.

Kontua da operadore irabazleak Gatzagako eta Elgetako bi gune eskaini dituela eta haren pro-

posamena onartu dela. Beraz, oraingo txandan, Antzuolan ez da aurreikusten banda zabalen barreiaketarik Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzaren babespean.

2019an beste deialdi bat

Aldundiak jakinarazi du hiritarren eta nekazari eremuetako bizilagunen arteko arrakala digitala ahalik eta txikiena izatea nahi duela, eta, horregatik, txanda honetan barreiatu gabe gelditu diren eremuetara iristeko 2019an beste deialdi bat plazaratzea aurreikusten duela.

Hiru debagoiendar EAJren Foru Aldundiko hautagaitzetan

Deba-Urola barrutirako hautagaien artean daude Xabier Otxoa, Aintzane Oiarbide eta Jose Ramon Zubizarreta

J.E. DEBAGOIENA

Gipuzkoako foru hauteskunderako EAJren hautagaitzek Herrialde Batzarraren onespina jaso dute, eta dagoeneko jendarean aurkeztu dituzte,

Deba-Urola barrutirako hautagaitzako buru Maria Eugenia Arrizabalaga izango da eta zerrenda horretan hiru debagoiendar daude: Bergaran bizi den Aintzane Oiarbide, Xabier Otxoa aretxabaletarra eta Jose Ramon Zubizarreta eskoriatzarra. Arrizabalagak egungo sistema instituzionalak duen berritzeko

beharra ikusten du: "Erakunde sistema berria behar dugu, gure etorkizuna eraikitzea ahalbidetuko diguna, eta herri honen erabakitze eskubidearen instituzionalizazioari ateak irekiko dizkiona".

Gipuzkoako diputatu nagusi-rako hautagai den Markel Olanok, bestalde, uste du egungo agertokia ziurgabetasun politiko, ekonomiko eta sozialetan beteta ageri dela; horren aurrean, ekintzaren aldeko hautua egin behar dela, eta jendearen inplikazioa lortzea ezinbestekoa dela.

"Txistorrik gabe gelditu naiz aste erdian"

JESUS ODRIOZOLA HARAKINA

Ordizian eguaztenean jokatu den Euskal Herriko 21. Txistor Lehiaketan lehenengo saria jaso du Oñatiko Arantzazuko Ama kalean harategia duen harakinak

Jokin Etxebarría DEBAGOIENA

Euskal Herriko 21. Txistor Lehiaketa jokatu zen eguaztenean Ordizian, eta Oñatiko Jesus Odrizola harategiak eraman zuen txapela. Guztira, 42 ekoizle aurkeztu ziren eta epaimahaiak txistorraren itxura, osagaiak eta zaporea izan zituen kontuan produktu hoberena aukeratzeko orduan. Txapela lehen aldiz etorri da Oñatira.

Lehenik eta behin, zorionak! Sorpresa izan al da?

Eskerrik asko! Ba, egia esan, nahiko sorpresa izan da. Urtero bezala, txistorrak egin eta gero lehiaketara bidali genituen, eta, lanean geundela, telefonoz deitu ziguten esanez finalisten barruan geundela eta ea joaterik izango genuen. Guk lan asko geneukala eta ia derrigorrezkoa zen galdetu, eta lehen edo bigarren baginen han derrigor egon beharko genuela esan ziguten. Hara joan, eta sorpresa, lehen postua nirea zela ikusita.



Odrizola harategikoak, pozik, sariarekin. AMAIA ZABALA

Beraz, ez zen hau aurkezten zinen lehen aldia.

Donostiara eta Ordiziara aurkezteko ohitura dut eta Ordizian aurtengoa 17. aldian izango zen, baina orain arte ez dut saria jasotzeko zorterik izan.

Eta zein da txistor ona egiteko sekretua?

Lehengaiak onak izatea, ahalik eta gertuenekoak eta ondo zainduta izatea. Gero, bakoitzak bere estiloa dauka elaboratzeko orduan, baina garrantzitsua da

aurrez proba batzuk egitea, dastatzea eta jendearen gustuko dela konprobatzea.

Noiztik txistorra egiten? Non ikasi zenuen?

Txistorra egiten dut harakin naizenetik. Orain dela 30 urte hasi nintzen lan honetan eta orduan ikasi nuen txistorra egiten. Orduko harakinek erakutsi ziguten zer-nolako produktua atera dezakegun eta nola elaboratu behar genituen txistorrak. Haiei eskerrak egiten ditugu, baina, noski, ahal dela, beti hobetzen saiatu beharra daukagu.

Non eskuratu daiteke Odrizola harategiko txistorra?

Harategian, noski. Oraingoan, hemen. Hemendik aurrera ez dakigu beste nonbaiten salgai jartzeko aukera izango dugun. Baina pozik gaude; izan ere, Oñatin urteetan produktu hau jende askok dastatu du, eta, nolabait, jende hori guztiori sariaren parte ere bada, denok hartu baitute parte, modu batera edo bestera.

Zenbat kilo egiten dituzue astean, normalean?

Normalean, 50 bat kilo txistor eta beste horrenbeste txorizo. Kopurua ez da txikia, baina, bitxia bada ere, aste honen erdian ezer gabe gelditu naiz, eta, derrigorrez, txistorrik gabe ez gelditzeko, beste 100 kilo egin ditut. Hala ere, ez dakit astea pasatzeko lain izango dudana. Izan ere, ohikoa ez den jende piloa gerturatu da guregana.



Fagor Arrasate ARTXIBOA

Kooperatiben lege proiektua onartu du Jaurilaritzak

Eusko Jaurilaritzaren gobernu kontseiluak EAEko kooperatiben lege proiektua onartu du aste honetan. Oraindik tramite parlamentariara sartzea falta da, baina aurrerapauso berri bat eman du lege proposamen honek. Lan sailburuak azaldu zuen sektorearen babesa duela, eta espero duela aurrera egingo duela Eusko Legebiltzarrean. Proiektuak zehazten du, besteak beste, galerak daudenean bazkideak bere ekarpenekin egin beharko diela aurre, ez ondasun pertsonalekin. Kooperatibak kapital sozietatera hurbiltzeko asmoa dauka lege berriak eta kooperatibek bazkide ez diren langileen %30ekin bete ahal izango dute lan taldea.

Mozambikeko nekazariak ahalduntzeko kanpaina, martxan

5.395 lanpostuk adina aberastasun berri sortuko duen ekimena bultzatzen jarraitu nahi du Mundukidek

J.E. DEBAGOIENA

Mundukide orain dela 18 urte hasi zen Afrikan herrialde pobretuenetako pertsona pobretuenei garapenerako aukera erreal bat eskaintzeko lanean. Ordutik, milaka familia izan dira egunerokotasunean sortzen diren elikadura, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza alorretako oinarriko beharrei aurre egiteko familia ekonomia hobetu dutenak.

Hurrengo urterako, Labora Kutxaren laguntzarekin, orain arte sortutakoez gain, beste 5.395 lanpostuk adina aberastasun

sortuko duen ekimen ekonomikoa bultzatzen jarraitu nahi du, Mozambikeko nekazariarekin eta gobernuarekin batera.

Kanpainarekin nola kolaboratu

Bi probintzietan lau distritutan bizi diren lau kooperantek osatzen dute Mozambikeko lantaldea eta probintzietako bizimodu ohikoena nekazaritza da. Nekazariarentzat diru iturri bermea da Mundukide; gobernuarentzat, berriaz, emaitza errealak eskaintzen dituen lankidetzaren erdia. Mundukideren programak pres-

takuntza teknikoa eta laboreen produkzioari eta komertzializazioari buruzko aholkularitza eskaintzen dizkie bere kabuz ekoizpena hobetu nahi duten nekazariak, Niassa eta Cabo Delgado probintzietan.

Programak orain arte eragin bera edo hobe izaten jarraitzea nahi lukete, eta, horretarako, giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak behar ditu. Horregatik, jendearen donazioak jasotzea ezinbestekoa dute, bakoitzaren txikitasunetik gauza handiak lortzera heltzeko aukera egon badagoelako. Donazioak egin nahi dituenak hainbat aukera ditu: www.laboralkutxa.com/eu/solidaritatea/mundukide webgunean sartuta, transferentzia bat eginez edo Labora Kutxako edozein bulegotatik galdetuta.

Mugartzaren molekula urteko onena 'C&EN' aldizkariarentzat

Aitor Mugartza oñatiarrak parte hartu duen 'Holey graphene' grafenozko mintzak botoen %58 jaso du

J.E. DEBAGOIENA

Institut Catala de Nanociencia (ICN2), Centro Singular de Investigación en Química Biológica (CiQUS) eta Donostia International Physics Centerko (DIPC) hainbat ikertzailek sintetizatu duten grafenozko mintz porotsua *urteko molekula* izendatu dute *C&EN* aldizkariaren irakurleek. Irabazleak botoen %58 lortu du.

Science aldizkariak apirilean publikatu zuen CiQUS zentroko Diego Peña ikertzaileak eta ICN2 institutuko taldeburu Aitor Mu-

gartza oñatiarrak zuzendutako lanaren emaitza. Baita DIPCKo Ikerbasque ikertzaile Aran Garcia-Lekuek egindako ekarpenak ere. Aldizkarian publikatutako lanak mintz porotsu horrek elektronikan, filtroetan eta sensorrean izan ditzakeen aplikazioak azaltzen zituen.

Grafenoak dituen poroek beren oinarriko estruktura aldatu dezakete eta, modu horretan, berotegi efektua sortzen duten gasak, gatzak eta biomolekulak neurtzeko filtro bezala erabil daitezke.



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Bejondeizuela

Oraingoan, mugikortasuna aitzakia hartuta, batzuei egurra emateko aprobetxatuko dut zutabea.

Lehen *bejondeizuela*, txakurrak solte darabiltzazuenoi. Bazoaz bizikletan bidegorrian, eta ez du ezer egiten, jolaserako gogoia besterik ez dauka, eske txakur mugitua da... eta zuri, mugitu, bizikleta mugitzen zaizu, eta barruak ere bai. Jakizue, nik ez dut izaten zuen txakurrekin jolaserako gogorik.

Bigarren *bejondeizuela*, bidegorriko oinezko batzuei. Entzungailuak jarrita, atzetik zein etor daitekeen ez dakizuela zabiltzatenoi, egurra! Hartxintxarra dagoen aldera joko duzu zarata apur bat atera dezan, txirrina ere joko duzu, ea balaztatuz... keba! Eta zure aurreko modernoak, pausotxo bat ezkerrera, hurrengo eskumara, eta zu, nondik aurreratu ez dakizula. Azkenean, eupadaren bat joko diozu bazatozela adierazteko, ezustekoaz sustoa hartuko du, eta, bera haserretuko zaizu.

GURASOA BI PAUSO AURRETIK, UMEAK EZETZ... GURASOAK, ZATOZ... UMEAK, EZ, EZ ETA EZ...

Bizitzak baditu paradoxak gero! Amaitzeko, zebra bideak gurutzatu baino gehiago, bertan bizi direla dirudizuenoi, hain geldo pasatzen baitituzue. Xelebrekeriak ikusten

ditut!


Bada zein, pito bat inporta ez zaionik zain dagoena. Bakoitza berera, eta gora ni!

Badira exhibizionismo punttu bat dutenak ere: zebra bidean baino gehiago, Zibele pasarelan daudela pentsatuz, hala diotela dirudi: "Banator, gera bedi mundua, eta begira...". Gora zuek, zebra bideak glamuroso gurutzatzeko ere balio behar da eta!

Baina bereziki, guraso negoziatzaileek egiten didate arreta. Gurasoa bi pauso aurretik, umeak ezetz... gurasoak, zatoz... umeak, ez, ez eta ez... Eta orduan, *un pasito palante* koreografia hasten dute. Gurasoa umearengana, umea atzera, etorri, ba... Eta zu zain! Gurasook, negoziazioez gain, bada ariketatxo sinple bat: umeari ipurdipeon esku bat jartzen zaio, bestea sorbalden inguruan, jaso eta beste aldera pasatzen da. Eta gero, segi negoziatzen.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Inurriak

GOIZALDE LANDABASO
HTTPS://LABUR.EUS/JLNQN
'BERRIA.EUS' -EN ARGITARATUA

Igande arrats txotxolo horietako batean ezagutu nuen Christopher Leiningen. Geldiezina zen marabuntaren kontra borrokatzen zen filmetik begiak kendu ezinik egon nintzen.

Leiningen sentitu nintzen egun buruzuri batean sukaldeko argia piztu eta marabunta beltz bat ikustean.

Inurri bidea leihotik fruta-tokira egin zuten. Asko hil nituen eta apur batzuek atzera buelta egin zuten modu antolatuegian. Ez dira berriro sartu.

Lehengoan, baina, arduratu nintzen. Frantziako Ikerketa Zientifikoetarako Zentroak (CNRSk) egindako ikerketaren ostean zera ondorioztatu dute: espazioan kokatzeko izugarrizko gaitasuna dute eta hiru memoria mota dute. [...]

Nire beldur guztiak hauspotzeko Saharako inurria dago. Antza, jatekoaren bila eta bila aritzen da milaka tona hondar artean, eta habiatik asko urruntzen bada ere gai da etxera buelta egiteko.

Zorionez, etxeko inurriak ez ziren Saharakoak.

Dena, ordean, ez da poztasuna izango. Zuhaitzetan kokatzen diren

zorriei esker bizi dira inurriak, eta belaunaldiz belaunaldi kokapena gogoratzeaz gain bertakotzen dira belaunaldiz belaunaldi. Neguan lur barruetan gordeta egoten ei dira, desagertuak bezala, eta beroa itzultzen denean inurri zahar eta berriak elkarrekin irtetzen dira zaharrak berriari erakuts diezaion zein den bidea.

Hona helduta ziurren badakizu zein den nire egonezina: etxera sartu zen marabunta horrek ondo gogoan duela bidea, zaharrek berriei erakutsiko dietela non dagoen fruta-tokia; eta, finean, nik pentsatu beharko dudala gerra estrategia.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Pertsona adinduna ere aktiboa izan daiteke"

EIDER ETXEBARRIA EKINTZAILEA

Jokin Etxebarria ARRASATE
Forbes aldizkariak 2018an nabarmendu diren 30 gazte ekintzailereren zerrenda argitaratu du eta zerrenda horretan daude Oñatiko MUko Leinn graduari ikasten aritutako hiru gazte; esate baterako, Bizipoz enpresaren sortzaile Eider Etxebarria. 24 urteko arrasatearraren enpresaren helburua da, besteak beste, zahartze aktiboa sustatzea.

Bizipoz programarengatik jaso duzue *Forbes* zerrendako izendapena, baina nondik dator Bizipoz?

Oñatin Leinn gradua ikasten ari ginela sortu genuen proiektua. Biztanleria geroz eta zaharragoa da eta hemendik urte batzuetara oraindik eta gizarte zaharragoa izango dugu, eta adindun pertsonen egunak geroz eta hobeak izateko helburuarekin sortu genuen proiektua. Zahartzaro aktiboa sustatzeko programa honek bi alderdi ditu: formakuntza eta

Eider Etxebarria arrasatearra *Forbes* 30 zerrendan sartu da. OIHANA ELORZA

parte hartze sozialeko programak. Dena tailer dinamikoekin lantzen dugu.

-Helburua da 55 urtetik aurrerako jendea aktibo mantentzen jarraitzea. Baina horretarako interesik badu jendeak?

Gizartean dugun arazoetako bat da ez dugula uste pertsona adinduna aktibo izan daitekeenik. Estereotipatuta dagoen zerbait da eta hori aldatzea ez da erraza, baina jende asko dago aktibo eta

gauzak egiteko sekulako esperientzia eta ahalmena daukana.

Eta *Forbes* zerrendan agertzearena?

Jendeak diru kontuekin lotzen du zerrenda hori, baina gu talentudunen zerrendan sartu gaituzte. Duela bizpahiru urtetik lehiaketa ezberdinetara aurkeztzen ibili gara eta estatu mailan sari ezberdinak eskuratu ditugu. Sari horiek nolabaiteko presentzia ematen dizute eta suposatzen dut hortik etorriko zela. Egun batean, espero ez genuen deia jaso genuen eta oraindik sinetsi ezinda gaude.

Eta zer ekarriko dizue honek? Etorkizunean zer?

Herri mailan hasi ginen lanean eta gutxika-gutxika zabaltzen joan gara. Uste dugu herri gehiagotan proiektua sartzeko modua badagoela, bideragarria dela, baina baita enpresa gehiagotan ere.

Erretiroa hartzen duten horien guztien talentua galtzea pena litzateke, ezta?

Denok egin behar dugu txip aldaketa bat. Azken finean, guztiak, bizi garen heinean, zahartzen joango gara. Gure helburuak izan beharko luke ondo bizitzea, ahal dugun heinean, baina baita ere etorkizunari begira bizi nahi duguna irudikatzen joatea.

HAU BE BADOGU!

Hilketa matxistaren aurka, haserrearekin



Laura Luelmo zamorarraren hilketak sarean aztoratu du:

@dilusiones: "Genero indarkeriaren aurka! Ez bada, ez da, eta kitto!"

@jaizkibelkonpainia: "Hau da erdi biluzik eta indarkeria arrastoekin aurkitu duten irakaslearen azken ikustrazioa" (goiko argazkia).

@maddiradi: "Iluntzeetan maiz korrika egitera irteten naiz, bakarrik. Bide ilun eta bakartietan beldurra sentitu izan dut eta gizonen batekin gurutzatu izan naizenean are gehiago".

Zorion mezuak Onintza Enbeitarendako

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi duen lehen emakumea da Enbeita, aurreko aste bukaeran:

@mikelsanj6: "Zorionak Onintza Enbeita Bizkaiko bertsolari txapelduna! Lehenengo aldia emakume batek haxe lortzen duela. Atzo **@DidaGaztea**-n lehendabizikoz emakume batek irabaziko zuela esan eta bete".

@idoiaalberdi: "Zorionak, Onintza Enbeita **#haupoza** **#emakumea** **#historia** **#bbt18**"

Biarritz 'trending topic' izan da European

2019ko G7-ren batzarra hartuko du Iparraldeko hiriak, eta asteen hainbat eta hainbat protesta eta liskar izan dira manifestarien eta poliziaren artean, kaleetan zehar:

@maialener: "Emmanuel Macron-i eta G7ko agintarieri ez ongi-etorria Euskal Herrirat. **#Biarritz**".

@maite_ubiria: "Polizi harresiari izkin egin eta Bellevue kongresu zentrorra hurbildu dira txaleko horiak. Tentsio handia. **#Biarritz**".

ITURRI ONETIK

Herritar talde batek antolatuko du Errege magoen desfilea Oñatin

Hurrengo Oñatiko Errege magoen desfilea herritar talde batek antolatuko du. Azken hirurak Txanda merkatari elkarteak antolatu ditu, baina sasoi honetan lan handia izaten dute dendariak, eta ordu txikitik ibili izan dira dena prestatzen. Erreleboa eskatu du Txandak, eta herritar talde batek hartu dio lekukoa. Laguntzaileen artean, Larrañan dauden errefuxiatuetako bi daude. Aurtan, Erregeak zaldi gainean etorriko dira, eta ez da karrozarik egongo.

ALBISTE IZAN ZEN

2003-12-20

A-1 autobideko lehenengo zatia zabalduta zuten

Eibar-Gasteiz autobidearen lehen tarteak, Maltzaga eta Bergara iparra artekoak, hain zuzen ere, 15 urte bete berri ditu. Inaugurazio ekitaldian, zinta moztzen izan ziren Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia eta Roman Sudupe diputatu nagusi ohia, besteak beste. 2.000 ibilgailu inguruk erabili zuten, lehen egunean, autobide zabalduta berria, eta erabiltzaile gehienek tunel luzeen ikusgarritasuna azpimarratu zuten.



ARTXIBOA

Aretxabaletako Udalari

ESTI LLODIO URIBEETXEBARRIA

FAMILIA UGARI BATEKO KIDEA
ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak familia ugarien aldeko hobariak onartu zituela? Ederto saldu zenuten EAJko alkateak zein EH Bilduko zinegotziak *Hirukide* aldizkarian, GOIENA aldizkarian eta Goiena telebistan kontua!

Jakin nahiko nuke zenbaki errealetan zenbat dirurekin lagunduko dituen Udalak herriko familia ugariak... Merke aterako zaizue, jarri dituzuen baldintzak kontuan hartuta.

Lotsagarriak eta bidegabeak iruditzen zaizkit udal batzordeko kideek hartu dituzuen erabakiak! Badago zuen artean familia ugariok gizartean dugun garrantziaren jabe den norbait? Horrenbeste hitz egiten dute politikariek jaiotza-tasa igotzearen garrantziaz... aurrekontu sozialak... hitz eta pitz! Besterik ez daukazue eskaintzeko? Ez dut uste familia ugariko kideok gizarteari egiten diogun ekarpen aberatsa konpentsatzeko inolako gogorik duzuenik!

Kide gutxiagoko familiei baino baldintza hobeak ez dizkiguzuela eman nahi da zuen aitzakia beti! Egoerak konpentsatzeaz berba egiten denean, normalean, horrek ez du zerikusirik besteen parean jartzearekin! Oso argi ikusten da aniztasun funtzionala duten pertsonengan, gaixotasun kronikoa duten pertsonengan, bazterkerian daudenengan...

Noiz ulertuko duzue familia ugariok, berez, baditugula baldintza okerragoak bizitzako gastuei aurre egiteko? Kotxe eta etxe handiagoen beharra, beste familiek duten baldintza berak izateko; kirola egiteko, material gehiagoren beharra, eta musika instrumentuak jo nahi baditugu; hizkuntzak ikasteko; udalekuak; eskola materiala; jantziak; osasun kontuak... Hori, "bizitza egoera on edo osasuntsuan" bagoaz aurrera; bestela, jai dugu!

Noiz jarriko zarete politikari eta teknikariok familia ugariei

laguntzeko jarrerarekin paper zuri baten aurrean? Udalak benetan zein inbertsio egin dezakeen aztertzen?

Eta ez, nola pasatuko garen egoera honetatik, ahalik eta aurpegi politena erakutsiz herriari eta xemeikorik inbertitu gabe? Politikari guztiak eta zenbait teknikari erakusleihoari adi baina herritarrengandik oso urruti zaudetela ikusteak atsekabetuta eta etsituta uzten nau.

Oñatiko Udalak FCC botatzeak zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta sektore publikoa indartzea ekarri du

XABIER INFANTE BORINAGA, JOSEBA BEÑAT ELORTONDO ETA EÑAUT UNAMUNO MUGURUZA

KIROLDEGIKO MONITOREA, UDAL IKUSKATZAILEA ETA UDALTZAINA OÑATI

Bi urte bete dira Oñatiko Udalak kale garbiketarako FCCrekin zuen kontratua eten eta lanpostuak publikifikatzea erabaki zuenetik. Kostua murriztu eta kalitatea hobetzeaz gain, zerbitzu publikoen eredu garden, euskaldun eta eraginkorra eraikitzen joateko hautua egin izana eskertzen diogu Udalari.

Baina aukera baten aldeko hautu edo apustua egiteak beste aukera bat baztertu dela esan nahi du: zerbitzuaren pribatizazioa. Dena den, *FCC-Kale garbiketa* klientelismoan oinarrituta eraikia izan den eredu oso baten adibide bat baino ez da, baina ondo datorkigu PNV-PSE-PPk eraiki duten eredu oso baten argazkia egiteko.

FCC enpresa munduaren alde ilunena erakusten duen horietako bat da; duela hiru urte, CNMCK (Comision Nacional de los Mercados y la Competencia) 98,2 milioi euroko isuna ezarri zien FCCri eta beste hiru multinazional handiri (ACS, Sacyr eta Ferrovial-ekin batera) Espainiako Estatuko udal garrantzitsuenetako kontratuak beraien artean banatzeagatik.

Zementuaren negozioan ere barruraino sartuta dago FCC,

eta horrela ulertzen da erraustegiak eraiki eta kudeatzeko erakusten duen interes berezia. Gastu energetikoa murriztea ezinbestekoa da zementua egiten duten multinazional hauen lehiakortasunerako; Zubietako erraustegia sutsuki defendatu duten alderdien eta enpresa hauen artean lotura zuzena dago, hala nola Xabier Agiriano, Serbitzu SLko presidente eta PNVko Euskadi Buru Batzarreko kide izandakoa, edota Xabier Garmendia PSEko kidea.

FCCk Oñatiko kale garbiketarako zuen kontratua etetea, zerbitzu hobe baten alde egitetik haratago, beste eredu baten aldeko hautua izan da; kudeaketa jasagarri eta justuago baten aldekoa.

Zorioneko pausoa izanda ere, espero dugu ez izatea pauso bakarra eta zabaldutako bidea ez etetea kale garbiketako zerbitzuan. Oñatiko herriak merezi du berak ordaintzen dituen zerbitzuak, ura, lorezainak, eraikin garbitzaileak, eta abar bere esku izatea. Zerbitzu publikoen kudeaketa zuzenaren onurak bistan daude gure udal brigadaren eta kale garbiketaren lan emaitzekin.

Zubieta kalea: arazo histerikoa ala historikoa?

LOHITZUNE AMESTI, SOFIA GIMBERT, JOXE SANCHEZ ETA AITOR GARITANO

ZUBIETA AUZOKO BIZILAGUNAK
BERGARA

"Udaleko alderdi guztiek beharrezkotzat jotzen duten eta begi onez ikusten duten Masterrekatik Mugertzaraino doan urbanizazio proiektua gauzatzeko udalbatzaren konpromisoa lortzea; eta bide horretan, 2019tik hasita diru poltsa bat egiten hasteko eskaera zuzentzea".

Hori izan da joan den urritik Zubitta kaleko asanbladan bildutakoen helburua. Ez da izan, beraz, 2019an proiektua bere osotasunean gauzatzea. Eta hori bera bergarar guztiok guk bezain garbi edukitzea nahiko genuke. Eta lan ildo bat adostuta, "proiektuaren nondik

norakoaren inguruan eztabaidatu eta ekarpenak egin ahaliko ditugun foro guztietan parte hartzea" izan da jorratu dugun lan ildo bakarra.

Erantzukizunez eta eskuzabaltasunez jorratu dugu.

Erantzukizunez, hainbat alorretan aurkeztu ditugun proposamen guztien bitartez: aparkaleku kontuan, trafikoko kontuan, prebentzioan, irisgarritasunean, segurtasunari begira, estetikan, baita argiteriaren inguruan.

Eta eskuzabaltasunez, zentzugabeko gastuak saihestuz edota zubiaren lanak atzeratu eta kostu estrak suposa ahal zuten proposamenei uko eginez, gure kontrako erabakiak izan ahal zirela jakinda ere.

2010ean argi omen zeuden Zubittaren beharrak; eta ingurukoei galdetuta, denboran atzera egin eta Garaikoetxea lehendakari zeneko garaietara eramán gaituzte auzoko nagusienek, eta momentu hartan Mugertzan egindako bide mozketen eta mobilizazioen berri eman digute, espaloi duin baten aldeko eskaera noiztik datorren gogoraraziz.

Zer entzun beharko dugu 2030ean? 2016an proiektua landu zenetik argi daudela auzoaren beharrak zeintzuk diren? Zubiaren lanak bukatuko dira eta gu izango gara zubi berriaren lehen onuradunak, ez bakarrik; gauza bera gertatuko da egiteke dauden beste gauza guztiekin. Kasu honetan ordea, lehen kaltetuak izango gara gu... baina ez bakarrak.

Zubittara bidean

LUCIANA ALFARO ETA AINHOA NARBAIZA

MARTXANTERAK TALDE FEMINISTA
BERGARA

Zubietako zubiaren birmoldaketarekin arduratuta daude auzotarrak. Aste honetan, hainbat emakume gurekin harremanetan jarri dira auzokideen hainbat kezka azalduz. Udal ordezkariekin hitz egin arren, ez omen dira udal gobernuaren gustukoak izan Zubittako auzotarren

eskariak, garrantzia kendu omen zaie.

Udalak egindako obra-planteamenduak segurtasun eta ikusgarritasun eza sortzen diela aipatu ziguten. Hirigintzak, kaleko obra, trafikoa edo argiteriak, gure egunerokoan nola eragiten duen pentsatu genuen. Guri ere gertatu baitzaigu, gauez beldurratetik bakarrik ibili nahi ez izatea, gure laguna edo alaba etxera ondo datorren begiratzera, edo bidean ikusi ez dugun bizikleta edo patinete batekin susto bat hartzea.

Aste honetan bertan, Estatu Espainiarrean ozen zabaldu da Huelvan erail duten emakumearen kasua. Emakume hau kalean zebilen, korrika egitera atera zen. Pentsa al duzue inoiz zer pentsatzen dugun emakumeok kalera irtetean? Gaua edo eguna bada, ibilbidez aldatu al duzue inoiz?

Bergarako II. Berdintasun plana onartu berri da udaleko plenoan, askorentzat ezezaguna ziurrenik; plan honetako atal batean, Bergarako emakumeen segurtasuna indartuko duten ekintzak abian jartzea proposatzen da. Edo hori jartzen du, behintzat.

Eta zein harreman duten udaleko berdintasun planak, zubittako bizilagunen kezak eta Huelvako kasuak?

Gutun xume honen bidez, gure herrikideak diren pertsonen esperientziak erdigunean jarri eta kalean denok libre eta eroso ibiltzeko baldintzez arduratzea eskatu nahi diogu Bergarako udalari. Politika publikoak nondik, norekin eta nola pentsatzen ditugun aztertzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Berdintasun politikak martxan jartzeak emakumeon beharrak entzutea esan nahi du; bizilagunak arriskuan jartzen dituen egoerak prebenitzea; pertsona nagusiak, haurrak, dibertsitate funtzionaldun pertsonak, pertsona migratzaileak kontuan hartzea; baliaideak jarri eta espazioa publikoa bizilagunekin batera diseinatzea –haiek bizi baitira egunero bertan–.



Maidor Morras Azpiazu, asteazkenean Arteaga jatetxean egindako aurkezpen ofizialean. TXOMIN MADINA

EH Bilduren hautagaia Maidor Morras izango da

Alderdiak Arrasaten lehen aldiz egin duen prozesu baten bidez aukeratua izan da. "Ilusio eta motibazio handiz" hartu du erronka berria, eta, adierazi duenez, "Arrasaten aurrera salto bat egiteko beharra" ikusten duelako eman du alkategai izateko pausoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko alkate izandako Xabier Zubizarreta, Ino Galparosoro eta Inazio Azkarragaurizar, Pello Urizar legebiltzarkidea, egun EH Bilduren zinegotzi direnak eta garai baten Udalean ezker abertzalearen ordezkari izandakoak... Denak egon ziren udal hauteskundeei begira EH Bilduren alkategai izango dena aurkezteko asteazkenean egindako ekitaldian.

Alkategai izateko proposamena "ilusio handiarekin" jaso zuela adierazi zuen Morrasede, eta, erabakitze denbora bat hartu ostean, "pozik eta oso motibatuta" dagoela gaineratu. "Modernoagoa, lehen bezala herri aitzindaria izateko Arrasaten aurrera salto baten beharra dagoela ikusten dudalako eman dut baiezkua", azaldu zuen EH Bilduren alkategaiak. Itxurak garrantzia duela uste arren, berarentzat eta alderdiarentzat herritarrak eta pertsonak "oso garrantzitsuak" direla esan zuen.

Horren harira, gabeziak ikusten dituztela nabarmendu zuen, eta herriaren beharrei erantzuteko proiektu bat aurkeztuko dutela gaineratu zuen.

Hautaketa prozesua

Alkategaiak hitza hartu aurretik, alderdiaren hauteskunde batzordea osatu duten Joseba Ezpeletak eta Eider Zumaldek herrian lehen aldiz egin den aukeraketa prozesua nola izan den azaldu zuten. Martxoan erabaki zuen EH Bilduk alkategaien izendapena zehaztuko zuen araudia, eta Arrasaten ere horrekin egin dute bat. Hala, prozesuan parte hartu gura izan dutenek, izena eman ostean, euren proposamenak egin ahal izan dituzte. Gero,

HAUTESKUNDEETAN IRABAZTEA IZANGO DA EUREN HELBURUA, ETA LASTER HASIKO DIRA ZERRENDAK OSATZEN

zazpi kidez osatutako hauteskunde batzordeak aukeraketa bat egin du hainbat irizpide aintzat hartuta. "Herrian eza-guna izatea, profil zabalekoa, komunikatzaile ona, taldean lan egiteko gaitasun berezikoa eta kudeaketan aritutako arrasatearra izatea. Horixe da kontuan hartu duguna", azaldu zuen Zumaldek. "Hainbat aukera zeuden, ate batzuk jo ditugu, eta Maidor aukera bikaina iruditu zaigu". EH Bilduren hauteskunde batzordean sartuko da orain Maidor Morras, eta urtarritetik aurrera hasiko dira udal hauteskundeetarako alderdiaren zerrenda osatzen. "Profil profesionala eta konpromiso politikoa duen jendea nahi dugu; aurrerakoa, ikuspuntu politiko batetik gu arduratzen gaituzten gaietan aditua eta konprometitu", azaldu du. Hauteskundeetara begira, helburua irabaztea dela adierazi dute aho batez bai Morrasede, eta baita hauteskunde batzordeko kideek.



MURALART

Irabazle, botoen %43,79rekin

Animaliak eta kolore biziak izango ditu Makatzenako muralak. Gobernuak parte hartze prozesua jarri zuen martxan, lau diseinuren artean herritarrek gustukoena botatzeko. Guztira, 153 arrasatearrek eman dute botoa, eta irudiko diseinua izan da irabazlea, 67 boto pilatuta. Horma-irudia Muralarteko lagunek egingo dute eta otsailerako amaitzea aurreikusten da.

Musakolako lehen San Silvestre proba hilaren 31n egingo da

Astoa ikur duten herritarrak lasterketaren lehen edizioa antolatzen animatu dira. 2,6 kilometroko zirkuituari bi buelta emango dizkiote, eta sariak egongo dira emakumezko eta gizonezko azkarrenentzat, eta baita moztarri onenarentzat ere.

12:00etan hasiko da, Legarra plazan, eta izen ematea ordu bete lehenago egin ahal da.

Enpresentzako diru laguntzak hilaren 31ra arte eskatu ahal dira

2018an zehar enpresa berriak sortu dituztenek edo langabezia egoeran zeuden arrasatearrek kontratatutako diru laguntzak eskatzeko epea. Langabeen kasuan, lanaldi osoa sei hilabeteko kontratu bat eginez gero, diru laguntza 2.250 eurokoa da. Informazio gehiagorako, jo www. arrasate.eus webgunera.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Edukiontzia kenduta, aparkaleku gehiago

Irakurle batek kexa helarazi zuen Garibai kaleko motorrentzako aparkalekuan bi edukiontzi zeudela salatuz. BAZen kexak jarri ostean kendu egin zituzte, azkenik, eta eskerrak eman ditu.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiko kideak, Isaias Carrascoren omenaldiaren berri emateko agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA

Iragana arakatu, aurrera egiteko

'Memoria Partekatu Baterantz, Arrasate 1956-2018' izeneko txostenak azken 62 urteetan motibazio politikoagatik herrian izandako askotariko sufrimenduak batzen ditu. Datu bilketa adostu batez harago, etorkizuneko elkarbizitza erraztea du helburu

Xabi Gorostidi ARRASATE

22 hildako, 49 zauritu, 111 tortura salaketa eta 27 pertsona eskoltarekin. Horiek dira Udaleko Memoria eta Bizikidetzaren Mahaia egin duen *Memoria Partekatu Baterantz, Arrasate 1956-2018* txostenak biltzen dituen datuetako batzuk. Udaleko al-

derdi guztiek osatzen dute mahai hori, eta txostena egiteko orduan giza eskubideen alorrean aditua den Argituz elkartearen laguntza izan dute –Errenterian eta Andoainen antzerako lanketak egin ditu–. Espainiako gerratik frankismoko lehen zatia agortzerainoko sufrimenduen bilke-

ta Intxorta elkarteak egin dute eta 1956tik gaur egunerainokoa, ordea, Argituzekoek eta mahai-ko partaideek. Argituz elkarte-ko kide Sabin Ormazabalek azaldu du zein den txostenaren helburu nagusia: "Helburua ez da izan txostena egitea, denek artean minimo batzuk adostu

eta memoria partekatu bat erakitzea baizik, etorkizuneko elkarbizitza errazteko. Partaide guztiek ez dute zertan %100ean ados egon, baina euren dela sentitu behar dute".

Autokritika bai, konparazioa ez
Txostena egiteko, alde bateko eta besteko sufrimendua pairatu dutenekin egin dituzte elkarriketak, eta Ormazabalek aitortu du sufrimendua gainditzeko erritmo desberdinak daudela. "Denetarik dago, zeren eta bakoitzak bere erritmoa darama

sufrimendua gainditzeko uneen, baina asko falta da oraindik sakontzeko. Estortsioa pairatu duten askok ez dute nahi jendeak horren berri izaterik. Torturak izan direla ukatzen duenik ere badago, eta horrek biktimak bi-garrenez biktimizatzen du".

Bidean aurkitutako zailtasun handienetako bat konparaketak egiteko joera izan da. "Konparazioek ez dute balio. *Nik zuk baino gehiago sufritu dut* edo *nirea zurea baino gogorragoa izan da* bezalako esaldiak ez dute ekarpenik egiten. Biktimek bi



Beste espetxe politika baten alde

Carrascori omenaldia egin ostean, Memoria eta Bizikidetzaren Mahaia harrera egin zien dispartzio politika pairatu duten arrasatearrei, martitzenean. Haien sufrimendua aitortzeaz gain, Udaleko alderdi politiko guztiek esan zuten ez daudela ados presoekin, eta espetxe politika berri bat eskatu zuten.

Adierazpen instituzionalaren ostean, Ramon Arkauzek hartu zuen hitza, Etxerateko kide eta Josu Arkauz presoaren anaia denak. Dispartzioagatik errepideetan hamasei lagun hil direla gogoratu zuen, eta gogoan izan zituen hau zuzenean pairatu duten *seme motxiladunak*. Bere anaia 2015a ezkerreko libre egon beharko lukeela esan zuen, eta momentu honetan Murtzian dagoela gogorarazi, "Arrasate 800 kilometro baino gehiagora".

JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA

Euskal okela, bertan egindako txorizoa, tripakiak eta solomoa

Olarte kalea 20
ARRASATE



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Motibazio politikoagatik Arrasaten izandako askotariko sufrimenduak

	1956-1975	1976-1982	1983-2018	GUZTIRA
ETA, ETA (m), eta CAA				
Hildakoak	5	3	3	11
Zauritakoak	2	2	5	9
Bahitutakoak	-	-	2	2
Autoa ebazteko bahituak	1	4	1	6
Eskolta izan zuten pertsonak	-	-	27	27
Estortsio ekonomikoak	zehaztu	gabe	-	z.g.
Heriotza mehatxuak	zehaztu	gabe	-	z.g.
Zauritu gabeko atentatuak	3	10	5	18
Talde parapolizialak 'inkontrolatuak' (BVE, GAL)				
Hildakoak	2	2	1	5
Zaurituak	1	4	4	9
Atentatutik bizirik ateratakoak	1	2	-	3
Bahiketa galdeketaekin	-	-	1	1
Bahitzeko ahalegina	-	1	-	1
Zauriturik gabeko atentatuak	8	5	5	18
Heriotza mehatxuak	zehaztu	gabe	-	z.g.
Estatuko segurtasun indarrak				
Hildakoak	-	1	-	1
Larriki zaurituak	1	21	1	23
Tortura-tratu txarrak salaketa	45	32	34	111
Legez kanpoko atxiloketak	-	1	2	3
Kale borroka, sabotajeak eta indarkeriazko protestak				
Hildakoak	-	-	1	1
Zaurituak	-	-	7	7
Erasoak egoitzei, zauritu gabe	-	2	55	57
Erasoak etxebizitzetzi	-	-	4	4
Osptalera eramandakoak	-	-	2	2
Heriotza mehatxuak	zehaztu	gabe	-	z.g.
Argitzeako dauden kasuak				
Hildakoak	2	2	-	4
Zaurituak	-	1	-	1

OHARRA: TAULAK GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK, BIOLENTZIAK ETA SUFRIMENDUAK BATZEN DITU.
ITURRIA: 'MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ' TXOSTENA

irteera dituzte: gorrotoarekin jarraitu edo hori gainditzen ahalegindu. Lehenarekin, biktima izango zara betirako. Bigarrenarekin, zure mina partekatuz, beste batzuek ere sufritzen dutela ikusten duzu, eta injustizia ez dela zurekin amaitzen sentitu ere bai. Hala ere, orokorrean, autokritika egiteko balio izan duela uste dut".

Gomendioak etorkizunerako

Elkarbizitzan sakontzeko, ondorengo gomendioak egiten dituzte: "Gureak sentitzen ez

ditugun biktimak ez mespretxatu, hauen arteko hurbilketa erraztu, txostenari buruzko eztabaida ireki, transmisioa bermatu eta hezkuntzarako plan berariazkoa egin".

Giza Eskubideen Nazioarteko Araudian oinarrituta, honako sufrimendu mota hauek bereizi dituzte: bizitzeko eskubidearen aurkako erasoak –erailketak–, osasun fisiko-psikikoaren aurkakoak, ondasunen aurkakoak eta beste sufrimendu batzuk –suizidioak eta kartzelara bisitan errepidean hildakoak–.

OHARRAK

Pentsiodunen protesten etenaldia

Astelehenero egin ohi dute pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea, baina Gabonak tarteko hiru asteko etena egingo dute. Urtarrilaren 14an berrartuko dituzte elkarretaratzeak.

Hotz Oñatiko taldekoen katilu solidarioak

Santamasetan Greziako haurren marrazkiekin egindako katiluak salduko dituzte Biteri plazan. 10 eurotan erosi ahalko dira eta batutako dirua errefuxiatuen elkarteei emango diete.

'Herrixa dantzan' dantzaldia, hilaren 23an

12:30ean, Seber Altube plazan izango da hitzordua –euriarekin Plazan–, Santamas Komisiñuak eta Portaloi elkarteek antolatuta.

Ibai-arteren Gabonetako ekintzek ez dute etenik

Gabonetako 50 otarre zozketatu ostean, gazteentzako beste animazio bat egingo dute urtea amaitu aurretik, hilaren 29an. Seber Altuben izango da, 11:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Horrez gain, 26an eta 29an txu-txu trenea Arrasaten barrena arituko da. Trenea hartu nahi dutenek Zerrajerako erlojuaren eraikinera joan beharko dute.



Eskuragarri
ERRETILUAN edo
SALMAHAIAN*

TXERRIKUME
Txiki Fresko 1/2

11,50
€/kg



 Solteak

IZKIRA
ESTRA-HANDIA

7,85
€/kg

*Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!*

 **EROSKI**
ARRASATE

  Musakola z/g ARRASATE • Tel.: 943 71 10 30

"Amaia antzokiko oroitzapen politak ditut"

AINHOA AGIRREAZALDEGI BERTSOLARIA

Igor Elortzarekin, Uxue Alberdirekin, Nerea Ibartzabalekin, Odei Barrusorekin eta Aimar Karrikarekin batera izango da gaur, AEDk antolatutako santamasetako bertso saioan

A.A. / X.G. ARRASATE

Aurreko asteburuan bere sor-terrian –Elgetan– bertsoan ari-tu ostean, Amaia antzokiko oholtzara igoko da gaur.

Azkenaldian ez zaitugu bertso saio askotan ikusi, baina denbora gutxian bi egin dituzu Debagoienean. Gogoz?

Astebete horrelako bi saio egitea garrantzitsua da niretzat. Azken sei urteak bereziak izan dira, birritan ama izan naizela-ko. Bertsolaritza gertutik bizi izaten ahalegindu naiz; batez ere, ahalduntze bertso eskolaren bitartez. Hala ere, banabil pixkanaka bertso saioak egiteko gogoarekin. Ez ditut urtean 60 saio egingo, baina kopurutxo



Agirreazaldegia, Elgetako saioan. I.S.

polit bat egin nahiko nuke; ez dudalako bertsoa erabat utzi nahi, dibertitzen jarraitu nahi dudalako eta publikoarekin kontaktuan.

Nola joan zen Elgetakoa?

Egia esan, Elgetan egiten diren bertso saio gehienak otordu baten bueltan izan dira; beraz, berezia izan zen kafe antzokian aritzea. Beste bertsolariek Elgeta aurrez ezagutzen zuten, eta horrek ere lagundu zuen.

Arrasateko bertsozaleentzat hitzordu estimatua da santamasetan AEDk antolatzen duena. Zuretzat baita ere?

Zalantza izpirik gabe. 9-10 urte nituenean Arrasateko bertso

eskolan hasi nintzen, eta gogoan dut saio hori ikustera joaten nintzela. Amaia antzokiko oroitzapen politak ditut: luxuzko areto bat, Gabonen bueltan, santamasetako jai giroarekin... Mimos antolatuta dagoenean, eta jendeak mimos hartzen duenean, igarri egiten da.

Hiru emakumezko eta hiru gizonezko igoko zarete oholtzara. Parekidetasunean aurrera egin dugun erakusle? Ala kasualitate?

Uste dut ez dela kasualitatea. Parekidetasuna kopuruz harago dagoela aldarrikatzen gabil-tza azken urteetan, benetan garrantzitsua gizartean posizio berdintasuna lortzea delako. Baina zenbakitan jarri ezean, nekez helduko gara posizio berdintasunera. Argi dut antolatzailak ahalegina egin dutela. Baina beti esaten duguna: hiru emakumezko izango gara, baina taula gainean egongo diren hiru gizonezkoak gizonezko izateagatik aukeratu dituzte. Badi-ru di oparia dela emakumezkoarentzat halako saio batean ego- tea, historikoki gizonezkoak izan direlako gehiengo. Baina bagabiltza, pixkanaka, hobetzen.

'Erlauntza' antzerkia, santamasetako ajea gainditzeko sendagai

Abenduaren 23an, domekan, euskal aktoreek egindako antze-lan dotorea ikusi ahalko da Amaia antzokian. Hitzordua 19:30ean da eta sarrera, 12 euro. Txikitako lagun kuadrilla bat asteburu-pasa joango da lande-txe batera haietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Bai-na urteak, ordea, ez dira alferrik pasatzen, edo bai?...

OHARRAK

'ArRAPsate' fest

Urtarrilaren 26an rap jaialdia izango da Arrasateko gaztetxean, eta, besteak beste, Esencia TP talde arrasatearra arituko da bertan.

Arrasate Musikal

Bandako lagunek urteroko kontzertua egingo dute abenduaren 31n. Hitzordua, Amaia antzokian izango da 13:00etan.

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Salva Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Laguntza eskolarrak


Arreta goztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika
eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

erreka

taberna - jatetxea

Ondo ibili santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate

Tel.: 943 53 32 72

erreka@errekajatetxea.eu



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAKUNTZA

Tel.: 943 08 27 39
607 95 79 11
www.asreformak.net
ARRASATE

Ohiturei eutsiz, jan dezagun txistorra lagun artean!!
Bihotz-bihotzez, urte berri on!!

Norbere kultura norbere lurraldean zabalduz

Haziaraba jaialdiaren lehen edizioa aurkeztu dute; hainbat ekintza egingo dituzte Arabako bederatzia udalerritan "probintziako kulturaren haziak hedatzeko" asmoz, eta horietako bat Aramaio izango da; hiru ekintza egingo dituzte Gabon hauetan herrian

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Aste honetan aurkeztu dute Haziaraba estimulazio artistiko goiztiarreko landa-jaialdiaren lehen edizioa, Gasteizen. 1 eta 6 urte bitarteko haurrei eta euren familiei zuzendutako 26 saiok osatuko dute jaialdia, bederatzia udalerritan banatuta.

Europa mailako Mind The Gap proiektuaren baitan kokatzen da, eta Paraiso antzerki taldeak eta Teklak Komunikazio eta Audientzien Estudioak kudeatuko dute, Eusko Jaurlaritzaren, Gasteizko Udalaren eta Karraskan Elkartearen laguntzarekin.

Helburua da dagoeneko martxan dauden proiektuak Araba guztira zabaltzea, eragile ezberdinekin elkarlana sustatuta. "Proposamen hauek bereziak dira. Leku gutxitan daude oraindik, eta herri txikietan, are gutxiago. Hori dela eta, iruditzen zaigu herritar guztiak zaindu behar ditugula, eta eskaintza probintzia guztira zabaltzea", azaldu du Irene Basiliok, proiektuaren kudeatzaileetako batek. Horrez gain, inplikaturako udalerrietan komunikazio bideak sendotzea eta, "ahal den neurrian", Arabako kultur eskaintza garatzea ere bada asmoa.

GaztefilmFestek eta Gutxinka-gutxinaka eta Dantzaz konpainiek eskainiko dituzte ekintza guztiak.

Aurrerantzean, urtero

Esan moduan, jaialdiaren lehen edizioa izango da, eta honako udalerrri hauek hartuko dute parte: Abetxuko, Agurain, Amurrio, Aramaio, Bastida, Dulantzi, Iruña Oka, Laudio eta Oion. "Azkar egin behar izan ditugu gauzak, eta leku estrategikoak aukeratu gura izan ditugu, euren kuadrillari ahalik eta ondoen erantzuten dioten herriak, hain zuzen ere", dio Basiliok.

Aurrera begira, urtero errepikatuko jaialdia izan dadin



Eguaztenean aurkeztu zuten ekimena, Gasteizen. HAZIARABA

gura dute kudeatzaileek. Hala ere, oraindik ez dakite udalerririk mantendu egingo dituzten edo aldatzen joango diren. "Lehen edizio hau amaitzean, bederatzia udalerrietako ordezkarietara bilera bateratua egingo dugu,

balorazioa egiteko. Nolako erantzuna izan duen, zer hobetu daitekeen, eta abar izango dugu hizpide, eta horren arabera ikusiko dugu udalerririk mantendu, aldatu edo berriak sartu", adierazi du Basiliok.

Kultura etxean izango dira ekintzak

Abenduak 23, domeka:

- **18:00** *Ehunak* ikuskizuna, Dantzaz konpainiaren eskutik. Hariz hari dantza poetiko bat ehuntzen da. Dantza horretan, bi dantzariren mugimenduak airearekin eta ehunekin lotzen dira, eta emozioz jositako jantziak sortu. 1 eta 4 urte bitarteko umeei zuzenduta.

Abenduak 26, eguaztena:

- **18:00** *Haziak basoan* joko-instalazioa. Argiarekin, irudiekin, forma eta koloreekin esperimentatzera gonbidatzen duten jokoen gune bat da, denbora geldiarazten duena, parte-hartzaileen sormena erretzen duen bitartean. Izena aurrez eman beharko da, itxasokultura@gorbeialdea.eus helbidera mezu bat idatzita edo udaletxera deituta, 945 44 50 16 zenbakira.

Abenduak 30, domeka:

- **18:00** *Naturalarioa*. Animalien eta naturaren munduko sekretuetan barrena bidaiatzea proposatzen digun film laburren saioa. Igel, hegazti, hipopotamo edo harri moduan mundua ikusteko esperientzia da, haren sekretuak ezagutzeko eta abenturak partekatzeke. 3 eta 6 urte arteko haurrentzako.



Ettxeko konposta egiteko materiala banatu du Udalak. ARAMAIOKO UDALA

Hondakinen kopurua murrizteko helburuarekin, hainbat ekimen

Ettxeko konposta egiteko materiala banatu du Udalak, baita plastikoa murrizteko poltsak eta tuperrak ere

E.A. ARAMAIO

Urte hasieran onartu zuen Udalak Hondakinen Kudeaketa Hobetzeko Plana, eta, horren baitan, hainbat ekimen abiarazi ditu.

Lehenik, ettxeko konposta egiteko materiala banatu du. Maiatzean, auzo guztietan izan ziren bileretan etxeko konposta sustatzeko kanpaina abiatu zuen, eta formakuntza eta materiala eskaini. 80 bat etxeko eskatu zuten materiala eta lau formakuntza eman dituzte –Oleta falta da hori jasotzeko–.

Hala, konpostagailua, aireztatzailea, kubo txikia eta etxe-

konpost gidaliburua banatuko dituzte, eskaeren arabera.

Kanpaina horren beste helburuetako bat izan da konposta etxean egiten dutenen datu basea osatzen hastea.

Plastikoa murrizteko, poltsak

Bestalde, *Murriztu dezagun plastikoa, erabili zure poltsa eta tuperra* kanpaina ere jarri du martxan Udalak. Komertzio eta saltokietan oihalezko poltsa berberak erabiltzeko banatu dituzte, eta, harategi zein arrandegietan, plastikorik ez erabiltzeko tuperrak eman dizkiete bezeroei.

Orixol elkarteko bazkide egiteko epea, hilaren 28ra arte

2019ko mendiko federatu txartela eskuratzeko edo Orixol elkarteko bazkide egiteko epea zabalik dago abenduaren 28ra arte. Federatu, bazkide egin edo aldaketaren bat egin nahi dutenek orixolme@hotmail.com helbidera idatzi beharko dute. Inolako mezurik jaso ezean, automatikoki berrituko dute aurreko urteko egoera.

Tarifei dagokienez, *Goiena.eus* webgunean dago informazio guztia eskuragarri.

Orixol mendi elkarteko bazkide direnek, bestalde, tarifa horiek ordaintzeaz gain, hamar euro gehiago ordaindu beharko dute, bazkidetza bera –gazteek bost euro–.

Obra txikietarako eta auzolanerako laguntzak, eskatuta

Urtero bezala, Arabako Foru Aldundiak Obra Txikien eta Auzolanen diru-laguntza lerroak atera ditu 2019ra begira.

Obra Txikien lerroaren barruan, Zalgoko bidea konpontzeko dirua eskatu da, 34.979,82 euroko aurrekontuarekin.

Bestalde, Auzolanen lerroan, auzo-alkateekin hitz egin du udalak, eta "diru-laguntza hobeen aprobetxatuko duen" aukera hartu du: Etxaguenen horma bat konpontzea, hain zuzen. Horretarako, 23.183,68 euroko proiektu bat aurkeztu da.

Orain, Aldundiaren ebazpena itxaron beharko du, 2019an lan hauek egin ahal izango dituzten edo ez jakiteko.



Kolore anitzak antzezlaneko une bat. TALDE GUNE

Kolorea, bertsoa, musika eta gehiago Gabonetan

Ekintzaz beteta datoz aurten ere Gabonak; gaur, esaterako, Olentzerok eta Mari Domingik eskola bisitatuko dute; azpimarratzeko ekintzen artean, Gabonetako bertso saioa eta 'Kolore anitzak' ikuskizuna daude, baina beste hainbat ere egongo dira

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte Gabonetako ekitaldiak. Izan ere, Olentzero eta Mari Domingi eskolara joango dira. Arratsaldean, berriz, Gabonetako jaialdia egingo dute kultura etxean ikasleek eta irakasleek.

Domekan, Bizente Goikoetxea abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan, 12:30ean.

Bestalde, hainbat tailer ere egingo dituzte kultura etxean.

Bertso saioa

Aramaixoko Bertso Eskolak antolatutako Gabonetako bertso saioak ere ez du hutsik egingo aurten. Hilaren 29an izango da, eta Andere Arriolabengoa, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Nerea Ibarzabal izango dira lau bertsolariak. Ane

Zuazubizkar ariko da gai-jartzaile lanetan. Sarrera bost euro izango da eta ordu erdi lehenago jarriko dituzte salgai, kultura etxean.

'Kolore anitzak'

Urteko azken egunean, *Kolore anitzak* antzezlan eskainiko du Talde Guneak, kultura etxean. Animazio digitalak lagundutako ipuin kontakizun musikatuak da. Lanaren

Gabonetako egitaraua

Egitarau zabala egongo da Gabonetan, ume, gazte zein helduei zuzendutako hainbat ekintzaz osatuta.

Abenduak 21, egubakoitza:

- **11:00** Olentzero eta Mari Domingiren bisita San Martin eskolan.
- **14:15** Ikasle eta irakasleen Gabonetako jaialdia kultura etxean.

Abenduak 23, domeka:

- **12:30** Bizente Goikoetxearen Gabonetako kontzertua, elizan.

Abenduak 24, astelehena:

- **19:30** Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira Aramaiora.

Abenduak 26, eguaztena:

- **10:30** *Cookiak* tailerra, LHko lehen eta bigarren mailakoentzat.

Abenduak 27, eguena:

- **09:15** PINera irteera –10 urtetik beherakoak, gurasoekin–.

Abenduak 28, egubakoitza:

- **10:30** *Jengibreko gailetak* tailerra, LHko hirugarren eta laugarren mailakoentzat.
- **17:00** Ipuin kontaketa, 4 urtetik gorakoentzat, Maider Galarza ipuin kontalariaren eskutik.
- **18:00** Ipuin kontaketa, 8 urtetik gorakoentzat, Maider Galarza ipuin kontalariaren eskutik.
- **18:30** Alex Mendikuteren argazki proiektzioa, Sastiñan.

Abenduak 29, zapatua:

- **19:30** Gabonetako bertso saioa, kultura etxean.

Abenduak 31, astelehena:

- **17:00** *Kolore anitzak* ikuskizuna, Talde Gunearen eskutik.

Urtarrilak 2, eguaztena:

- **11:30** *Beatbox* tailerra, bosgarren mailatik aurrerakoentzat.

Urtarrilak 4, egubakoitza:

- **17:00** Haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte kiroldegian.

oinarria arte eszenikoa da, eta hau osatuko da ikuskizunaren baitako hainbat unetan zuzeneko musikaz eta tableta elektronikoen bidez ikusi ahal izango diren arte grafikoen bidez. Marrazki bizidun ho-

riek errealitate areagotua izeneko metodoaren bitartez ikusiko ditu ikusleak. Lau eta bederatzi urte bitarteko haurrei zuzenduta dago emanaldia, eta familiarrean gozatzekoa da.

Arriolabengoa, txapeldun

Markel Arriolabengoa aramaiarra eta Mikel Sanz gasteiztarra Arabako binakako txapeldun berriak dira, kadete mailan.

Pasa den asteburuan jokatu zuten finala. Gasteizko Ogeta pilotalekuan, eta Arriolabengoak eta Sanzek 22-16 irabazi zioten Aitor Arauzo eta Mikel Jimenez bikoteari. Partidua estua jokatu ostean, bukaeran erabaki zen.



ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Aramaio ezagutzeko aukera hilaren 28an, Amillenaren eskutik

Amillena turismo elkarteak bisita gidatu saio bat antolatu du abenduaren 28rako, Aramaio ezagutzeko helburuarekin.

Bisita 11:00etan hasiko dute, Santa Ana ermitatik abiatuta.

Izena aurrez eman beharko da, eta helbide honetara mezua bidali beharko da horretarako: aramaio.amillena@gmail.com. Lau euro da izen-ematea.

Kulturgura lehiaketa antolatu du aurten ere Kuadrillak

Udalaren webgunean eskuratu daiteke zazpi galderen inprimakia, eta guztiak asmatu beharko dira zozketan parte hartzeko –udaletxean entregatu beharko dira erantzunak–. Zozketa urtarriaren 7an egingo dute eta bi sari egongo dira: 100 euroko bi bonu kirol materialetan gastatzeko eta beste horrenbeste liburu-denda batean gastatzeko.

Kantuekin hasita, ekitaldi mordoa Gabonetan

Aretxabaleta Abesbatzako hainbat kidek, organoak lagun eginda, kontzertua eskainiko dute hilaren 23an, eta 30ean guztiek batera jardungo dute. Neska-mutikoek eta erretiratuek, oster, kaleak girotuko dituzte astelehen goizean

Mirari Altube ARETXABALETA

Gabon kantuek egingo diete ongietorria, urtero lez, egunotako jaiei. Eta, hain zuzen, musika emanaldiak, antzerkiarekin eta bertso saioarekin batera, izango dira izarrak.

Abenduaren 24an, herriko neska-mutikoek eta gurasoek txistulariei jarraika jardungo dute kantuan kalerik kale; Basotxo erretiratuen elkarteak ere batuko dira hitzordura, azken urteotan egindako moduan. 10:30ean abiatuko dira, Herriko Plazatik, eta kantuan egiteagatik boloka jasoko dute trukean. 12:00 inguruan izango dira bueltan Herriko Plazan, eta, orduan, Olentzero eta Mari Domingi gerturatuko dira umeen gutunak eta musuak jasotzera. Iluntzean, oster, Ibarra kiroldegitik plazaraino joango dira gurdian, neska-mutiko banak lagun eginda.

Beste pertsonaia batzuek ere izango dute lekua Gabon egunetan. Hilaren 31n (18:30), Bizarzuri gerturatuko da eta kiroldegitik Herriko Plazarainoko kalejira egingo du, zaldi gainean, musika eskolako musikariek lagun eginda. Eta urtarrilaren 5ean (18:30), ekialdetik datozen Errege magoak iritsiko dira azken gozokiak banatzeko.



Txistulariak Santa Kurtz kalean, inguruan neska-mutikoak direla. MIRARI ALTUBE

Ispiritu taldearen gospel doinuak

Doinu goxoek ez dute hutsik egingo egunotan, eta Ispiritu taldea gospel kontuekin etorriko da Arkupera hilaren 26an (20:00). Lide Hernandoren, Lidia Insaustiren eta Ainhoa Egigurenen ahotsek Iñaki Miguelen piano doinuekin egingo dute bat, besteak beste, oholatza gainean.

Antzerkia eta ikus-entzunezkoa

Antzerkiari ere egingo diote lekutxo. Hilaren 27an, Txalo Produktzioek eskainiko dute *Zoz pake santuan*. Mikel Laskurain

eta Ane Gabarain aktore entzutetsuak izango dira oholatza gainean. Urtarrilaren 2an, oster, MUko hainbat ikasleek –Beñat Abasolo, Markel Bazanbide, Nerea Elorza, Lorea Otaduy eta Magali Plazaola– kuartel zaharraren gainean egin duten dokumentala emango dute Arkupen (18:00).

Poesia lanei saria

VIII. Karmele Igartua sorkuntza bekak poesia lanak sarituko ditu aurtengo; ekitaldia hilaren 29an izango da (12:00). Zazpi lan jaso dituzte, horietatik hiru herrikoak.

Abesbatzako kideen emanaldiak

Aretxabaleta Abesbatzako kideek datozen bi domekak girotuko dituzte. Abenduaren 23an kantuan egingo dute Mariatzen Urkia eta Mari Karmen Etxeandia sopranoek eta Jokin Bengoa eta Ciriaco Sandoval tenorrek, Jose Luis Franzesena organoan dela. Parrokian izango da, 20:00etan.

Abenduaren 30ean, oster, abesbatza osoa elkartuko da eta Leizarra musika eskolako haurren abesbatzak ere abestuko du, parrokian (19:30).

Gabon kantak izango dira nagusi emanaldi horretan; Aretxabaleta abesbatzak abestuko ditu *Ave Maria*, *Oh Holly Nigh* eta *Alleluia*. Franzesenak *Gabon Doñuak* joko du organoarekin; musika eskolako umeek *Gau erdian* eta *Belengo herri polita* kantatuko dituzte, eta guztiek elkarrekin honako beste hauek: *Adeste fideles*, *Gabon eguna*, *Stille Nacht*, *Haurtxo polita* eta *Hator hator*.



Aretxabaleta Abesbatza. GOIENA

Putxa-puntako bertsolariak

Urtea bukatu aurretik, abenduaren 28an (19:00), bertso jaialdia izango da Arkupen. Han elkartuko dira Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jone Uria eta Unai Agirre. Laurak ere punta-puntako bertsolariak: Lujanbio, Txapelketa Nagusiko azken txapelduna, eta harekin batera finalean izandakoak Mendiluze eta Agirre. Uria, oster, oraintsu jokatu den Bizkaiko txapelketako finalean izan da. Gaiak jarriko dizkiete Unai Elizasuk. Sarrerak hilaren 26an jarriko dituzte salgai (4 euro) Arkupen.

Jolas egiteko aukera

Gura beste jolas egiteko gune bihurtuko da Ibarra kiroldegiko kantxa, beste urte batez. Urtarrilaren 3an eta 4an zabalduko dituzte Gabonetako parkeko ateak (11:00-13:00 eta 17:00-20:00) 3 eta 12 urte arteko umeendako. Han topatuko dituzte jolasak, puzgarriak, eskulanak egiteko tailerrak eta teknologiarekin lotutako jokoak, besteak beste. Egun bateko sarrerak (6 euro) eta bi eguneko bonuak (10 euro) egongo dira –familia ugariako hirugarren kideak debalde, txartela erakutsita–.

Mundukideren bidelagun izango da Hiruatx Paston (Kolonbia)

Birziklatzaileen bizi baldintzak hobetzea du helburu; proiektuaren berri emango dute urtarrilaren 10ean

M.A. ARETXABALETA

Ekuadorren, Wiñak elkartearekin, jardun du lanean Hiruatxek oraintsu arte. Kakao finaren nekazaritza sustatzen, ekoizten eta merkaturatzen lagundu die hango kitxuei, eta, horretan jarrai-

tzeko, ia 20.000 euroko laguntza jaso dute Foru Aldunditik.

Hori alboratu gabe, proiektu berria jarri dute abian; oraingoan, Mundukiderek lagun izango dira. Kolonbiako Pasto hirian (Nariño probintzia) bir-

ziklatzaileen bizi baldintzak hobetzeko lanetan diharduen Coemprender kooperatiba sendotzen lagunduko dute. Birziklatzaileen zerbitzuak errazteko sortu zen eta 656 onuradun izango ditu proiektuak. Bereziki, emakumeak laguntzea du helburu, adinekoak eta baliabide ekonomiko urrikoak dira eta nagusi kolektibo horretan.

Proiektu horren nondik norakoan berri ematera etorriko da Arkupera, Mundukideko Asier Elorza urtarrilaren 10ean.

Egutegiak bezeroendako

Pozik jaso dituzte Aretxarteren egutegiak herriarrek. Beste behin, ikusmina sortu du egutegi horrek, eta egunotan dabilta oparitzen bezeroen artean; 2.700 banatuko dituzte, guztira.

Herriko merkatariek dira protagonista oraingoan ere, eta aurtengo, argazki dotoreekin batera, hilabeteekin bat datozen esaldiak gaineratu dituzte.



Berdintasunerako Plan berria izango du Udalak

Udalak, herriko talde feministak eta herriko bestelako eragileek elkarlanean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana sortu dute, Udalaren funtzionamenduan eta ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzeko helburuarekin

Amaia Zabala ARETXABALETA

Berdintasunerako I. Planaren indarraldia agortuta, 2017an haren ebaluazio prozesuari hasiera eman zitzaion eta sei hilabetez udal teknikariak eta politikariak, Aretxabaletako feministak taldea, Gu Haziak Gara, Basotxo, Hiruatx, UDA, Kurtzebarri, Musika Eskola eta Aratz elkarteak lanean ibili ondoren, amaitu dute Aretxabaletako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Plana. Karmele Uribarri Berdintasun zinegotzia lantaldeko partaide izan da, eta, haren esanetan, berrikuntza nabarmenenak "parte-hartze prozesu irekiaren ondorioz landu izana eta zeharlerrokotasuna dira: "Udal sail bakoitzak hainbat helburu eta ekintza ditu planean deskribatzen diren ardatzak gauzatzeko, eta, teknikariekin landu denez, bakoitzak bere eremuan egitekoak ezagutzen ditu".

Berdintasunerako II. Planaren behin betiko txostenak 49 orrialde ditu eta lau ardatz nagusitan banatzen da: *mainstreaming*-a, ahalduntzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta, azkenik, indarkeria matxista. Kontuan izan dituzten printzipio gidarien artean, berriz, egokitasuna, praktikotasuna, aniztasuna, konpromisoa eta halako kontzeptuak ageri dira.

Behin txostena izanda praktikara eramatea izaten da askotan zailena; hori dela eta, Uribarri argitu du aholkularitza zerbitzu bat kontratatuko dutela, plana herriarekin koordinatuz aurrera eramanez ahal izateko. "Prozesuan suertatutako arazoak, lorpenak, eta abar, berriz, Berdintasun batzordean landuko ditugu", gaineratu du Berdintasun zinegotziak.

Uribarri esan du oso pozik geratu direla egindako lanarekin, "prozesu parte-hartzaile baten emaitza izan delako, helburuak,



Martxoaren 8ko elkarretaratzean, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

HERRITARREN PARTE HARTZEAREKIN EGINIKO BERDINTASUN PLAN BERRIA IZANGO DA

ekintzak, aurrekontuak eta ebaluatzeko irizpide zehatzak jasotzen dituelako eta baita zeharlerrokotasuna bermatzen duelako ere". Amaitzeko, gaineratu du plana "erabat beharrezkoa zela, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko helmugara heltzeko egin behar den biderako tresna bat delako".

Gauzatzearekin zalantzak

Ion Albizu EH Bilduko zinegotzia ere Berdintasunerako Plana sortzeaz arduratu den lantaldeko kide izan da, eta, haren esanetan, aurrekoarekin alderatuta duen ezberdintasun bakarra da "zehatzagoa" dela.

Dena den, Albizuk plana bera baino planaren gauzatzeari eman dio garrantzi handiagoa, eta, horren barruan, bi gauza azpimarratu ditu: "Batetik emakumeen parte hartzea, herriko

emakumeak izango baitira politika feminista erabakiko dutenak, eta Udalak horien lagungarri izan behar du. Bestetik, Udal Gobernu honek Berdintasun partida erdira murriztu du; hori eta hauteskunde bezperan gaudela kontuan izanda, mesfidantza ematen digu, ez baitakigu plan hau zein baliabideekin gauzatu behar den".

Talde feminista

Arrasateko talde feministak ere esku-hartzea izan du Berdintasunerako Planaren sortze prozesuan; zehazki, Lurdes Llodio eta Jasone Gorroño ibili dira horretan. Biak ere gustura gelditu dira emaitzarekin, eta, "adituak ez diren arren", aztertutako puntuak adostasuna lortzea iritsi direla diote. Aitortu dute, ordea, beraien ustetan, Berdintasunerako Plan hau aurrera eramateko "ezinbestekoa" dela "beharrezko baliabideak jartzea, eta baita dirua ere". Horretaz gain, hori aurrera eramateko teknikari bat izatearen garrantzia azpimarratu dute: "Teknikari hori Udalak kontratatu beharko luke, eta ez enpresa batek, inplikazioa ez baita berdina".



Ludotekaren proiektu proposamenaren maketa. ION ALBIZU

"Proiektu berritzailea da, eta umeen beharretara egokitua"

EH Bilduk ludotekarako proiektu proposamen bat aurkeztu du 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzako

Amaia Zabala ARETXABALETA

"Egun, bada ludoteka bat herrian, 3 eta 12 urte bitartekoentzat, baina praktikan ez da horrela, 9tik 12ra zintzilik geratzen baitira, adin diferentzia handia dute besteekin eta ez dute batera egon nahi", jakinarazi du Ion Albizuk, Aretxabaletako EH Bilduko zinegotziak. Hori dela eta, hiru adin tartetan banatutako ludoteka proposamena aurkeztu dute.

0-5 urte

Udalak egokitutako 250 m2-ko gunean kokatuko litzateke eta gurasoek kudeatuko luketen espazioa izango litzateke. "Egun Kukumikuk duen funtzionamendu bera izango luke, egokiena dela uste dugulako, baina gune berri batean. Gurasoak umeekin jolastu ahal izango diren leku goxo bat izango da", dio Albizuk.

6-9 urte

Gaur egungo ludotekaren espazioan kokatuko litzateke, "baina, egun, bazkide kuota bat ordaindu behar da, eta guk hori kendu nahi dugu, libre izan dadin". Bestalde, ludotekako profesionalen interbentzioa ere "ahalik eta txikiena" izango litzateke.

10-12 urte

Albizuk bereziki nabarmendu du 10 eta 12 urte bitarteko adin tartea, nerabezaroaren hasiera delako; ondorioz, proposamen horretan, 100m2-ko gunea eskaini diete: "Adin honetan eskaintzen diegun espazioak eta profesionalen tratatuak baldintzatuko du ondoren gazte hauek 12 urtetik gorakoentzat den gaztelekura joatea edo ez; ondorioz, ezinbestekoa da ludotekako espazio hau haiek beraien espazio sentitzea eta baita eskatzen duten autonomia ematea ere".

Loramendi Euskara Elkarteak hezitzaile bila dabil

Loramendi Euskara Elkarteak Auzoko eta Barriketan proiektuetarako hezitzaileak behar dela jakinarazi du.

Urtarrilean hasiko litzateke hezitzaile hori eta astean hamalau orduko jarduna izango luke; hau da, lanaldi osoaren %40.

Hain zuzen, euskalduna izatea, bigarren mailako lanbide heziketa, gradua edo diplomatura-

lizentziatura titulua izatea eta harremanetarako gaitasuna izatea dira elkarteak eskatzen dituen baldintzak.

Horretaz gain, aretxabaletarra izatea eta bertako euskalkia menperatzea eta hizkuntzarekin, hezkuntzarekin eta kulturartekotasunarekin loturiko ikasketak izatea ere baloratuko da.

Interesatuak curriculum baldi beharko dute urtarrilaren 6a baino lehen helbide elektronikoa honetara: euskara@loramendielkarkea.eus.



Asier de la Iglesia, Agurtzane Elkoro eta BioDonostia osasunaren ikerketa zentroko ordezkariak aurkezpenean. IMANOL BELOKI

Esklerosi Anizkoitza dutenei lagundu guran

Esklerosi anizkoitzaren ikerketan laguntzeko dirua batuko du UDA Kirol Elkartek, beste hainbat taldek eta norbanakok lagunduta. Asier de la Iglesia elkartearen lagun eta jokalarien bitartez BioDonostia zentrori bideratuko da batutakoa

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletako Kirol Elkartek esklerosi anizkoitzaren ikerketa taldeari laguntza eskaini nahi dio. Horretarako, Asier de la Iglesia elkartearen lagun eta saskibaloio jokalarien bitartez, BioDonostia osasunaren ikerketa zentroarekin harremanetan jarri da, eta, domeka honetan, abenduak 23, klubaren eguna izango dela baliatuz, *#esklerosiarekindantzan* egitasmoa antolatu du, bertan jasotzen den dirua esklerosi anizkoitza ikerketan duen BioDonostia zentrori bideratzeko.

Gaixotasunari aurre egiten

Eguaztenean egindako aurkezpenean, Asier de la Iglesia saskibaloio jokalaria izan zen, eta esklerosi anizkoitza zer den jakitea eta horri laguntzeko solidaritatea ezinbestekoa dela adierazi zuen: "Aretxabaletako proiektua oso originala iruditu zitzaidan. Izan ere, gaur egun, nire borroka esklerosi anizkoitza

zer den Espainia osoan zabaltzea da. Esklerosi anizkoitzarekin gertatzen zaizkizun %80 ez dira agerikoak izaten, baina horrek ez du esan nahi ez duzunik sufritzen. Beti esaten dut esaldi hau: *Euria ari duenean eta bustitzea besterik geratzen ez denean, euripean dantza egiten ikasi behar da!*".

Esklerosi anizkoitza ikertzen

Gaixotasunaren inguruan gehiago jakitea ezinbestekoa dela adierazi zuen BioDonostiako Maider Muñozek: "Gaixotasun neurologikoa da esklerosi anizkoitza, eta autoimmunea dela esaten da. Beraz, gure sistema immuneak gure gorputzeko zelulei eraso egiten die; orduan,

ZAPATUAN BATZEN DEN DIRUA BIODONOSTIA IKERKETA ZENTRORA BIDERATUKO DA

prozesu horiek ulertzen laguntzen digute ikerketek".

Zapaturako deia herritarrei

"Egitasmo hau aurrera ateratzeko lan egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet emandako laguntzagatik", adierazi du Agurtzane Elkoro, UDA elkartearen presidentea. Gaineratu zuen domekan Ohorezko Erregionaleko UDA futbol taldeak Anaitasunaren aurka jokatu duela Ibarra, 16:30ean, eta bertara joateko dei egin die herritarrei. "Sarrera zazpi euro izango da, eta batzen den diru guztia esklerosi anizkoitzaren ikerketara bideratuko da".

Jasan taldearen bideoklipa

Ekimena girotzeko, gainera, Jasan musika taldeak sortutako abestiaren bideoklip bat egin du UDAk, AZK komunikazio agentziaren eta AZ Visual Media taldearen laguntzarekin eta herriko zenbait dantzarien kolaborazioarekin.



Aratz elkartekoek egindako 'Gure txanda da' kanpaina aurkezpenean. MIRARI ALTUBE

Xunba Maratoi Solidarioa izango da Aratz elkarteari laguntzeko

Aratz Aretxabaletako Atzeratuen Elkarteari laguntzeko ekimena izango da abenduaren 29an

I.B. ESKORIATZA

Abenduaren 29an, zapatuan, Xunba Maratoi Solidarioa izango da Ibarra kiroldegian, Aratz Aretxabaletako Atzeratuen Elkarteari laguntzeko.

11:00etatik 13:00etara izango da, eta parte hartu nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu. Horrez gain, parte hartzen ez dutenek borondatea utzi ahal izango dute. Bertan batuko den diru guztia Aratz elkarteari bideratuko diote. Hori horrela, izena emateko, 943 03 98 42 telefono zenbakira deitu daiteke, info@ibarrakiroldegia.eus helbidera idatzi, edo kiroldegiko harrerara joan.

Aratzekoen presentzia handitu

"Maratoi solidarioa egiteko proposamena egin ziguten, eta ezin ezetzik esan. Hori horrela, azken kanpainaren esaldia *Gure txanda da* izan da; beraz, Aratzekoak

boluntario lanak egiteko prest izango dira bertan. Asmoa da Aratzekoen presentzia handitzea, eta, bide batez, bertan jasotzen dugun dirua ondo etorriko zaio elkarteari", adierazi du Jokin Antxiak, Aratz elkartearen ordezkariak.

Puzgarriak igerilekuan

Abenduaren 28an, berriz, puzgarriak izango dira igerilekuan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean. Abonatuak diren sarrera doan izango dute eta abonatuak ez diren, aldiz, eguneko sarrera ordaindu beharko dute.

Eta urteari hasiera emateko, Loramendi elkarteak Gabonetako parkea antolatuko du kiroldegiko kantxan, urtarrilaren 3rako eta 4rako. Hain zuzen ere, haurrentzako eskulanak, puzgarriak, eta abar izango dira, goizez zein arratsalde.

Ibarra kiroldegian aldaketak izango dira 2019ra begira

2019ra begira, Ibarra kiroldegiko prezio guztiek %2,1 egingo dute gora. Horrez gain, domeka arratsaldeetan zabalik izango da kiroldegia –urtarriletik apirilaren 14ra arte eta urriaren 6tik aurrera–. Uda partean, berriz, zapatuetan ordutegi normala izango da, eta ez jarraitua; hau da, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Abenduko ezohiko osoko bilkuran, 2019ra begirako aurrekontuak izan zituzten hizpide Eskoriatzako udal ordezkariak. IMANOL BELOKI

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran ez zen Joserra Zubizarreta alkatea egon, gaixotasunagatik. Hori horrela, haren ordeiz, Josu Ezkurdiak Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak hartu zuen alkateorde kargua. Hori horrela, landu zituzten gai guztietatik azpimarragarriena 2019ra begirako udal aurrekontua onartzea izan zen, eta Udal Gobernuak EAJren eta Elizateen aldeko botoekin, Irabazi Eskoriatzaren ezezkoarekin eta EH Bilduren abstentzioekin onartuak izan ziren.

Udal Gobernuak aurrekontuan herritarren 30 proposamen sartu dituela adierazi zuen, EH Bildu eta Elizateen proposamenez gain; eta herritarren iradokizunak jasotzeko hainbat batzar egin dituztela gogorarazi.

Diru gehiago 2019ra begira

Eskoriatzako Udalak 5.590.028, 86 euroko aurrekontua onartu du 2019rako. Iaz baino %3,5 handiagoa. Josu Ezkurdiak adierazi zuen horren arrazoia dela Foru Funtsa handitu egingo dela eta 139.000 euro gehiago jasoko dituztela. Horrekin batera, bozkatu aurretik, Irabazik propo-

**DATORREN URTERA
BEGIRA, 310.000
EURO
INBERTSIOETARAKO
IZANGO DIRA**

Diru gehiago 2019. urterako

5,5 milioikoa izango da Eskoriatzak 2019ra begira izango duen aurrekontua. Iaz baino, %3,5 handiagoa. Udal Gobernuak aurkeztutako proposamenari ezetza eman zion Irabazik, eta EH Bildu abstenitu egin zen, akordiora iritsi ez direlako

satutako emendakinak, denak batera onartzea edo ez onartzea eskatu zuen Josu Ezkurdiak, eta hau adierazi: "Aurrekontuekin bi hilabete daramagu, hiru Ogasun batzorde egin ditugu, beste udal taldeekin ere bilerak egin ditugu... Hori horrela, Irabazirekin ez gara egon, eta, behin batzordean aurrekontuak adostu ondoren, orduan etorri zaigu beraien proposamena; beraz, aukera egon den arren, orain ez dugu eztabaidatuko..."

Akordioa, bertan behera

Ostean, EH Bilduk eta EAJk aurreikusita zuten akordioa izan zuten hizpide. Akordioa bertan behera geratu zela adierazi zuten Udal Gobernuak kideek, baina EH Bilduk agertutako jarrerarekin pozik agertu zirela adierazi zuten: "Saiatu gara EH Bilduk egindako hainbat ekar-

penekin akordio bat sinatzen, baina, agian, gauza hauek negoziatzen luzatu egin garelako, edo berandu ibili garelako, ezin izan da posible izan. Pena ematen digu, baina adierazi beharra daukat EH Bilduk egindako

ekarpen guztiak, edo ia guztiak, aurrekontuetan sartu ditugula, eta gure konpromisoa edo asmoa hauek burutzea dela".

Horren harira, EH Bilduko Aitor Zubizarreta bozeramaileak honako hau adierazi zuen: "Abs-

tenitu egin gara; izan ere, guk aurrekontuak hobetzeko egin ditugun ekarpenak jaso arren, ez dakigu beteko diren. Horregatik, ez da akordioa atera. Diru-laguntzarik balego, beteko lirateke, eta ez badaude, ez dakigu egingo diren. Inbertsioak handitu dira, baina herritarrengan gastatu behar ditugu, gaur egungo egoera ekonomikoaren onurarako. Dena den, aitortu beharra daukagu EAJrekin elkarlana positiboa izan dela. Agintaldiko lehenengo urtean ez genuen aukerarik izan hitz egiteko, ekarpenak bertan behe-geratu ziren... Aurten, berriaz, elkar entzun dugu, eta onartuak izan dira hainbat proposamen".

Irabaziren ezezkoaren arrazoia

"Aurten, ezetza bozkatu diegu aurrekontuei, iaz moduan, epe motzeko aurrekontuak direla uste dugulako. Aurrekontu proposamena eman zigutenean, garrantzia obrek zutela ikusi genuen. Materialari garrantzia ematen diote, eta pertsonak ez dira inbertsioen ardatza; beraz, ez gatoz horrekin bat. Pertsonak izan behar dute lehentasuna obren aurretik. Gure ustez, proiektu sozialetan, garapen iraunkorrean, gazterian, etxebizitzetan, berdintasunean... inbertitu behar da gehiago, eta ez obretan", adierazi du Rafa Bernal Irabaziko bozeramaileak.

Inbertsioei garrantzia

Inbertsioei begira, diru kopuru gehiago izango da 2019ra begira; hori horrela, 310.000 euro inbertsioetarako izango da. Hau da, iaz baino %34 gehiago. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetarako, Gaztedia eta Enplegu Garapenerako %27ko igoera izango da, besteak beste.

2019ko partida azpimarragarrienak

Sailalara bideratuko diren hainbat partida:

- **777.000 euro** Gizarte Zerbitzuetan. %27ko igoera izango du sail honek.
- **80.000 euro** Intxaurtuetako jolas-parkea. Ustelduta dagoen ziburuen gunea bota eta berria egingo dute.
- **74.750 euro** Brigadako ibilgailu berria erosteko.

- **60.000 euro** Elizateetako argiteriarendako eta bideen konponketarako, besteak beste.
- **52.650 euro** Gaztelekuaren kontratua.
- **45.000 euro** Jaiak. 2018an baino 5.000 euro gutxiago.
- **15.000 euro** Atxorrotx gazteluko indusketa lanak egiteko. 2018koan, 1.000 euro gorde zituzten.

- **12.940 euro** Nerabeen aisialdia ikertzeko.
- **12.000 euro** Turismorako. 2018an baino 4.000 euro gehiago.
- **9.000 euro** Errekan Gora jaialdirako zerbitzu kontratua egiteko.
- **8.000 euro** Prekaerietateko ikerketarako.
- **1.400 euro** Aste Zapatistarako.



Iaz, Olentzerori eta Mari Domingiri haur askok egin zieten harrera Eskoriatzara iritsi zirenean. IMANOL BELOKI

Ongietorria Olentzerori eta Mari Domingiri

Apotzaga auzoan behera iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi Eskoriatzara. Hori arratsaldean izango da, 18:00etan, baina eguerdian, 12:00etan, laguntzaileak izango dira Fernando Eskoriatza plazan haurren eskutitzak jasotzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Traktorean jaitsiko dira aurren ere Olentzero eta Mari Domingi Apotzaga auzotik herrira. Hala, urtero moduan, haurrek urtean zehar zein ondo portatu diren esango diete eguneko protagonistei, eskatutako opariak ekartzeko. Adierazi dute, baina, kopuru jakin batetik gorako eskaerak ez dituztela onartuko. Hori 18:00etan izango da, eta, Intxaurtxueta auzoan elkartu ostean, kalez kale ibiliko dira Olentzero eta Mari Domingi, haurrekin batera. Etorrera girotzeko, bestalde, Gabon kantak abestuko dituzte bertan batzen diren hainbat herritarrek. Behin Olentzero eta Mari Domingi Apotzagan behera herrira helzen direnean, honako ibilbide hau egingo dute herrian zehar: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana, eta Fernando Eskoriatza plazan bukatuko dute. Herrian zehar ari direla, gozokiak eman-gozokiete haiek ikustera ger-

Ekialdeko magoak

Urtarrilaren 5ean, *Estalpe baten bila* Errege magoen bisita antzetzua izango da Joseba Iñurrategi frontoian, 19:00etan. Azken urteotako desfileetan, antzezpen txiki bat egin izan dute zaharren egoitza parean, eta aurren, hori indartzeko, eszenografia ederra eta antzezpen landuagoa prestatu dute frontoian egiteko.

Amaitzean, urtero moduan, ekialdeko magoek haurren gutunak jasoko dituzte, eta

turatzten diren herritarrei, ume, gazte zein nagusi, eta, era berean, haurrekin egoteko geldiuneak ere egingo dituzte, Fernando Eskoriatza plazara heldu aurretik.

Behin plazara helduta, behar adinako denbora hartuko dute, biek ala biek, euren ondora hurbildu eta altzoan jartzen diren ume guztiekin argazkiak ateratzeko.

Egitarau zabala egun osoan

Olentzero eta Mari Domingi arratsaldean helduko dira Eskoriatzara, baina egun osoarako beste hainbat ekintza ere antolatu ditu Udalak, hilaren 24rako. 12:00etatik 13:00ak bitartean, Olentzeroren laguntzaileak egongo dira plazan haurren eskutitzak jasotzen, eta bien bitartean, Gabon kantak abestuko dituzte herritarrek. 13:00etan, aldiz, kalejira izango da, trikiti eskolako ikasleek eskainita, eta 17:30ean, urtero moduan, Gabon kantak abestera joango dira Jose Arana zaharren egoitzara.



IMANOL SORIANO

Omenaldi beroa Angel Bañaresi

Urte askoan Eskoriatzako bandako zuzendari izan den Angel Bañaresen omenaldi beroa jaso zuen pasa den zapatuan Beheko Errota musika eskolakoek eta herritarren aldetik. Musikaz betetako ekitaldian, oroigarria, txapela eta sorpresa asko jaso zituen. Azken pieza berak zuzendu zuen, eta ondoren, Jesus Urrutiari pasatu zion batuta.



Pilota berpiztuz ekimeneko parte hartzaile batzuk eta entrenatzaileak. I.B

'Pilota berpiztuz' ekimenaren barruko txapelketa, hilaren 3an

Frontoian jokatu den txapelketarako, bikoteka eman beharko da izena Tortolis ludotekan edo gaztelekuan

I.B ESKORIATZA

Urtarrilaren 3an izango da *Pilota berpiztuz* ekimenak antolatu duen eskupilota txapelketa. Joseba Iñurrategi pilotalekuan izango da, 15:00etan hasita, eta 19:00etarako amaituta izatea aurreikusten dute.

LHko 3, 4, 5, 6 eta DHBko 1 eta 2. mailetan ari diren mutil eta nesketzat zuzenduta izango da, eta izena Tortolis ludotekan edo gaztelekuan eman beharko da, bikoteka. Hori horrela, abenduaren 29an jasotako izen-emate datuak batu, eta abenduaren 31n, Manuel Muñoz kiroldegiko

kortxoan jarriko dituzte partiduen ordutegiak.

Ekimena indartuz doa

Eskupilotak herrian indarra hartzeko sortu zuten egitasmoa, maiatzetan, eta hiru mailatako –benjamin, alebin eta infantil– hamabost eskoriatzar zuri janzten dituzte astebururo. Haurrak gustura ari direla adierazi du *Pilota berpiztuz* ekimeneko Gorka Gabilondok: "Arrakastatsua izaten ari da ekimena; hamabost mutil ditugu, gustura ari dira. Hala ere, neskak animatu nahi ditugu ekimena probatzera".

Erritmo dantzagarriak izango dira Inkernun

Abenduaren 25ean, Anita Parker taldearen kontzertua izango da Inkernu tabernan, 22:00etan. Abenduaren, 26an, berriz 'Lope, El Dorado espedizioa' filma izango da ikusgai. Horrekin batera, Zaldibar antzokian hainbat antzerki izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtero moduan, abenduaren 25ean, kontzertua izango da Inkernu tabernan, 24 gaueko parrandako ajeari buelta emateko. Hori horrela, aurten, Anita Parker taldea izango da oholtza gainean. 22:00etan izango da kontzertua, eta erritmo dantzagarriekin disfrutatu ahal izango dute bertaratzen direnek.

Iñaki Bengoa eta Jon Zubiaga *Osoron* arrasatearrak daude taldean, Gose taldeko musikari ohiak, eta, beraiekin batera, Skalariak taldeko sortzaile Olatz Andueza lakuntzarra eta Zango taldeko Ane Martinez bilbotarra.



Anita Parker taldeko musikariak. ANITA PARKER

Musika dantzagarria

Swing estiloan oinarritutako taldea bada ere, musika elektronikoarekin uztartzen dute, eta, horrekin batera, raparekin nahastuta eta bestelako estiloak uztartuz, estilo berezi eta dantzagarria eskaintzen dute. Bi disko dituzte: lehenengo diskoak sei kantu batzen ditu eta bigarrena, berriz, elektronikoagoa izan arren, bi diskoetako kantuez disfrutatu ahal izango da Inkernun.

Oñatikoen umorea, Eskoriatzara

Oñatiko LPM taldeak egindako filma da *Lope, El Dorado espe-*

dizioa, eta abenduaren 26an izango da horren proiektzioa, 19:00etan, Inkernun. Umorea nagusi, filmean, Lope Agirre konkistatzailearen itzulera kontatzen da. Oñatiko independentzia berreskuratzeko asmoz, 2019ko udal hauteskundeetan atarian Lope Agirre Oñatira itzuliko da eta Marañoien taldea eratuko du. Agirrek 1561ean *El Dorado* espedizioan bizi izandako abenturak gogora ekarriko ditu ikus-entzunezkoak eta baita Espainiako Felipe erregeari idatzi zion eskutitza ere.

'Desbloqueadas' lana antzokian
@r emociones Eskoriatzako antzerki taldeak bi saio eskainiko ditu, domekan, Zaldibar antzokian. Lehenengo saioa 19:00etan izango da, eta, sarrera guztiak agortu direnez, beste saio bat eskainiko dute, 21:00etan.

Domekako bi saioez gain, zapatuan, Patata Tropikala antzerki taldeak eskainitako *Denboraren taupadak* izeneko ikuskizuna izango da ikusgai, Zaldibarren. 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako lana 18:00etan izango da.

Mendi irteera Albertiara

Makilla eskuen eta ibili basuen egitasmoak antolatutako abenduko mendi irteeran, Albertiara joan ziren, pasa den domekan, hainbat herritar. Jon Etzezarraga Intxorta elkarteko kidearen gidaritzapean, hainbat txoko ikusi eta istorio entzun ahal izan zuten bertaratuek. Hurrengo irteera urtarrilaren 20an izango da, eta Orixolera joango dira egun horretan.



LORE DIAZ DE GEREÑU

LEINTZ GATZAGA 21



Neguari ongietorria egiteko Gatz Museoa egindako bisita. IMANOL SORIANO

'Gatza eta ikatza' izeneko bisita gidatua izango da zapatuan

Gabonei begira antolatuta, bereziki, haurrei zuzendutako bisita gidatua izango da, 17:30ean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Bisita gidatu berezia antolatu dute Gatzagak Gatz Museokoek zapatu honetarako. Herriko osagai nagusia den gatza oinarri izanda, oraingoan, ikatza ere izango dute hizpide umeei zuzenduta antolatu duten *Gatza eta ikatza* bisitan.

17:30ean hasiko da saioa, Gatz Museoa, eta ikatz tailerra ere izango da bertan: "Gabonei begira, bisita berezia antolatzea erabaki dugu. Normalean, helduak soilik edo familiak etortzen dira, baina, oraingoan, batez ere, haurrei zuzenduta izango

da. Hala, gatzari soilik ez, ikatzari ere emango diogu garrantzia", adierazi du Aitor Larrañagak, Gatz Museoko arduradunak. Ostean, txokolate beroa pasta batzuekin hartzeko tartetxoa hartuko dute.

Izen-ematea, museoa

Bisitara joateko aukera izango dute helduek ere. Hori horrela, helduek bost euro ordaindu beharko dute sarrera eta haurrek, berriz, 2,5 euro. Izen-ematea Gatz Museora deituta egin beharko da, 943 71 47 92 telefono zenbakira.



GASTRO MUSEUMS

Gastro Museums sareko kideak

Gastro Museums sarearen 2019ko plangintza prestatzeko elkartu ziren Euskadiko Museo eta Zentro enogastronomiko sareko ordezkariak, ekimenean sartu berria den Gatz Museoa ere egoitza.

Gastro Museums osatzen duten guneek ibilbide turistiko bateratuak egiteko aukera eskaintzen dute, bisitak egin eta esperientziak bizitzeko.



Udal aurrekontuaren bozketa unea: EAJ (8) eta PSE-EE (1) alde eta EH Bildu (7) eta Irabazi (1) kontra. JOKIN BEREZIARTUA

Lehentasunetan desadostasunak

24 milioi eurokoa da 2019rako aurrekontua, "termino homogeneoetan iazkoa baino %5,2 handiagoa", eta seminarioko parkinga zein Labegaraletako kiroldegia dira proiektu nagusiak; oposizio taldeek kontra bozkatu eta osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten

Jokin Bereziartua BERGARA

24.000.009 euroko aurrekontua izango du Udalak 2019rako. "Termino homogeneoetan 2018koa baino %5,2 handiagoa da aurrekontua, iaz mailegu bat eskatu zelako [1.120.000 eurokoa, seminarioko parkingera begira] eta Adif-etik beste sarrera bat etorri zelako", adierazi zuen hiru ordutik gora iraun zuen asteleheneko osoko bilkuran Ogasun zinegotzi Rafa Amasorrainek. "Azken unera arte" negoziazioetan egon arren,

akordioa ez da posible izan eta oposizioak ez zuen ontzat eman Gobernuaren proposamena; EH Bilduk eta Irabazik, kontra bozkatzear gain, osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten. Horrez gain, EH Bilduk bost emendakin partzial proposatu zituen 17 "proposamen zehatzekin". EAJk eta PSE-EEK emendakin horien guztien aurka bozkatu zuten.

Gobernuaren proiektuen artean, seminarioan lur azpiko aparkalekua egitea eta Labegaraletako kiroldegia berritzea

dira lehentasunak. Aparkalekurako, iaz eskatutako milioi bat euro pasako maileguaz gain 80.000 euroko partida bideratu dute eta bertako ingurua berriro urbanizatzeko ere ia 400.000 euro gorde dituzte, zuloa egin ostean ingurunea txukuntzea badelako 2019rako asmoetako bat. Labegaraletarako, berriz, ia milioi bat euro bideratu da aurrekontuan eta Udalaren asmoa da, lizitazio-prozesu guztia ondo bidean, 2019ko apirilean hastea lanekin [argibide gehiago 23. orrian].

Zubietakoak, "sekulako arazoekin"

Zubietako bizilagunek diru-poltsa bat bideratzen hasteko eskatu zuten. Jose Sanchez bizilaguna oso haserre zuzendu zitzaion alkateari: "Badakigu 2019an ezingo dela Zubietako obra egin, ez dugu hori eskatzen. 2019an diru-poltsa bat egiten hastea eskatzen dugu, ahal denean proiektua osotasunean gauza dadin, Masterrekatik Mugertzaraino. Ez nabil esaten lanak Zubietatik eta nire atartetik hasi behar direnik, baina proiektua gauza dadila, behingoz. Ia 40 urte pasatu dira; zenbat gehiago pasatu beharko dira? Zoritxarrez, badakigu zer gertatzen den gure auzoan espaloi estu batek eta kamioi batek topo egiten dutenean, ez litzateke hiltzen den lehen auzokidea izango. Zein izango da hurrengoa? Nire semea, harena edo zuena? Sekulako arazoekin gabilta". Horren aurrean, alkateak proposatu zuen urbanizazioen gaineko lehentasunak finkatzea oposizioarekin batera.



Jose Sanchezen interbentzioa. J.B.

Bestelako inbertsio batzuk

Horren lehentasunezkoak ez badira ere, Gobernuak nabarmendu dituen proiektuen artean daude honako hauek, besteak beste: askotariko urbanizazio lanak (430.000 euro), San Antonio auzorantz bidegorria egitea (340.000 euro), herritarren partaidetzara begirako eta ideia lehiaketetarako partida (260.000 euro), sustapen ekonomikorako inbertsioak (175.000 euro) eta ur-sarean egin beharreko hainbat obra (106.000 euro).

Gastuei dagokienaz, aurreikuspena da pertsonal arloan zortzi milioi euro gastatzea –iaz baino %2,8 gehiago–, gastu arruntetan eta zerbitzuetan 8.246.813 euro –2018an baino %5,56 gehiago– eta inbertsio errealetan 3.689.058 euro –iaz baino %29,4 gutxiago–. Bestalde, Ogasun zi-

negotziak nabarmendu zuen aurten lehen aldiz kreditu globalaren figura sortu dutela. Aurrekontu osoaren %1 inguru izan arren (264.124 euro), Rafa Amasorrainek azpimarratu zuen edozein gorabehera txikiren aurrean "malgutasun eta azkartasun handia" eskaintzen dituela.

Oposizioa, Zubietari heldu guran

Oposizioaren proposamenei dagokienaz, EH Bilduk zein Irabazik Zubietako kalea osotasunean hobetzeko lanak lehentasunen artean kokatzen dituzte. EH Bilduk biziberritze beharra duten kale eta auzoetarako 240.000 euro bideratzea proposatzen zuen –Zubietari lehentasuna emanda– eta Irabazik 2018 aurrekontuko soberakina baliatuta milioi bat euro inguru bideratzea gura zuen Zubietara.

ELENA LETE
EAJ

"Lehen aldiz Bergaran urtea bukatu aurretik onartu dugu aurrekontua. Garrantzitsua da, urtarilaren 1etik bertatik eraginkorrak izateko. Seminarioko parkingarekin hasiko gara –zuloa egiterakoan aprobetxatuko dugu ingurua txukuntzeko–, baita Labegaraletako kiroldegiko obrekin ere. Gainera, etxeko zerbitzurako partidak gorakada nabarmena izango du; hirugarren adinekoen zaintzara bideratutako dirua ez da inoiz nahikoa izaten. 2019a proiektuak idazteko urtea izango da".

GORKA ARTOLA
EH BILDU

"Oposizioak ez du parte hartu aurrekontuan. Gobernu aldatetekin ildo estrategikoak aldatzea ez da egokia eta herriaren etorkizuneko eredu guztien artean landu behar dugu. Gobernuak forma kontuak arrazoitu ditu ezezkorako, baina ez da hala izan; emendakin partzialen bidez lana erraztu nahi izan dugu, baina agerian geratu da sakoneko ezberdintasunak ditugula. Zubietari dagokionez, Udalaren konpromisoa izan behar da, 2019an ez bada, hurrengo agintaldian gune hori berritzeari lehentasuna ematea".

AIERT LIZARRALDE
IRABAZI

"Aurrekontu elektoralistak dira. Erdiguneko parking atzerakoi bat proposatzen digute, Algodoneran eraiki beharrean. Oinezkoak lehenetsi ordez, autoaren erabilera bultzatzen dute. Parkingarekin erdiguneko komertzioaren ekonomia indartuko dela diote; ekonomia arazoa, baina, hipoteka, pentsio eta soldata prekarioetan dago. Herriko kale eta auzoak bizi duten hirigintza desorekari aurre egiteko, berriz, ez dago epe motzerako inolako alternatibarik. Gobernu antipodetan dago gugandik".

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Labegaraieta berritzeko eskaera berriak, jasota

2019ko apirilean hasiko dira Labegaraietako kiroldegi ondoko biltegia botatzeko eta aldagelak hartuko dituen modulu berria eraikitze lanak; 2020an helduko dira barruko lan handienak: kantxa berritzea, rokodromoa handitzea, taberna eta komunak birkokatzea...

Jokin Bereziartua BERGARA

2019ko udal aurrekontuko proiektu nagusietako bat dena, Labegaraieta kiroldegia berritzearena, apirilean hasiko da exekutatzeko. 930.000 euroko partida bideratu dute 2019rako, Diputazioaren bi urterako ia 600.000 euroko dirulaguntza bati lotuta. Gaur egun, biltegia botatzen hasiko dira eta ondoren modulu berri bat eraikiko dute eraikin nagusiaren ondoan. Modulu horretan joango dira aldagelak, baina 2020ra arte ez dira erabilgarri egongo, barruko lan esanguratsuenak 2020an hasiko dira eta.

2019an zehar, eta obrek iraun artean, ia normaltasun osoz funtzionatu du kiroldegia. 2020an, berriz, obretan dagoen bitartean, hilabete batzuetan itxita egongo da kiroldegia; lanak udan gauzatu gura dituzte kirol taldeei ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Izan ere, 2020an egin beharreko lanen artean honako hauek daude: kantxa berria jartzea, sarrera berrantolatzea, komunak eta taberna birkokatzea, igogailua jartzea –irigarritasuna bermatuko litzateke eraikin osoan– eta askotariko erabileretarako bi lokal sortzea –auzotarrendako bata eta kirol taldeentzat bestea. Horrez gain, berogailu sistema berri bat jarriko da, eta, roko-



Martitzen iluntzean auzotarrek eta kiroldegiko erabiltzaileekin egin zuten bilera. J.B.

dromoa handitzeaz gain, itxitura bat jarriko zaio –kristalera dago aurreikusita–, besteak beste.

Zalantzak eta eskaera zehatzak
Udal ordezkariak bilera egin zuten martitzen iluntzean auzotarrek eta kiroldegiko ohiko erabiltzaileekin –tabernako arduraduna, eskubaloia, saskibaloia, piraguismo taldea eta eskalatzaileak, besteak beste. Saio horretako auzotarren eskaera gehienak kiroldegia kanpoan zentratu ziren: aparkaleku gehiago egokitzea, "ganorazko" autobus gel-

toki bat jartzea eta ingurunea berrir urbanizatzea, kasu. Erabiltzaileen artean askotariko zalantzak izan ziren: eskubaloioek beroketa ariketak egiteko gune egoki bat eskatu zuten eta kanpoko kantxarekin zer egingo den galdetu –estaltzea da hasierako asmoa–; saskibaloioek alboko kanastekin zer gertatuko den jakin nahi izan zuten –bere horretan mantenduko dira–; eta eskalatzaileek, rokodromoa handituko dela eskertzearekin batera, bertan joango den kristalaren tamainarekin kezka azaldu zuten.



DANOBATGROUP

Sarituak, euskaraz lan egitearren

Edurne Bilbao eta Maier Leiaristi izan dira DanobatGroup kooperatibaren *Euskara aldean, erabili lanean* izeneko lehiaketako irabazleak. Bilbaok eta Leiaristik Euskal Herriko landetxe batean bi gaueko egonaldi batez gozatuko dute. "Zorionak irabazleei eta eskerrik asko partaide guztiei! Euskara aldean, erabili lanean, etxean, kalean...", adierazi dute antolatzaileek.

Euskal presoen aldeko egitarau "oparoa, ausarta eta ezberdina"

Gure Artera-Sarek euskal presoen aldeko egitarau "oparoa, ausarta eta ezberdina" antolatu du Gabonetarako. Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingi dantzan jarriko dituzte Munibetik (12:30) eta 15:30ean Orkestra elektrotxarangarekin kalejira egingo dute. Abenduaren 30ean, elkartasun ekitaldia egingo dute Seminarixoa (19:30); musika, poesia, antzerkia eta aldarrikapena eskutik helduta joango dira. Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, *ume motxiladunen* gaineko erakusketa jarriko dute Irizarren. Urtarrilaren 2an, 19:00etan, Markel Azkargortak, Maren Belastegik eta Sara Majarenasek euren esperientzia kontatuko dute.

OHARRAK

Lapurreta saiakera

Astelehen gauean, BKEren Bidekurutzeta kaleko lokalean sartzen saiatu ziren, sarraila apurtuta. Aurki Agorrosinen beste bi saiakera izan direla gaitzetsi eta Udaltzaingoari zein Ertzaintzari eskatu diote neurriak har ditzaten.

750: kontzertuko DVDa

750. urteurreneko emanaldia ETBko *Oholtza* saioan ikusi ahaliko da abenduaren 29ko gauean. DVDa ere aterako du Udalak urtarileko bigarren astean; aurrerago emango dute aditza data zehatza. 2.000 ale ateratu dituzte eta doan eskuratu ahaliko dira, liburutegian; orduan, eskatzaileek euren datuak eman behar dituzte.



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

2019 Urte berri on!

Gabon garai hau nola mugarri dugun urtetik urtera pasalekoak pasala daude. ez begiratu atzera. Ogiopio eta ezustekoak alera arren bidera geure onena erakutsita egin dezagun aurrera. zer hobelun izaten baita urte batetik bestera.

Gorka Lazkano & Iñaki Zaldúa



zure zubia

Osagai bereziekin dator Gabonetako kontzertua aurten

Udal Pilotalekua bete egingo da Bandaren, Orkestraren, Aritzetairen eta Orfeoiaren Gabonetako kontzertuan. Denek batera joko duten 'The Mission', Aritzetairen 'Viva la vida' (Coldplay) eta Orfeoiaren 'Theme from new york, new york', Frank Sinatrak ospetsu egin zuena, nabarmenduko dira. Gonzalez Chirlaquearen azkena izango da

Eneko Azkarate BERGARA

Urtean behin elkartzen dira agertokian herriko talde sinfoniko koral garrantzitsuenak. Gabonetako kontzertuan. Zapatuan da aurten, 20:30ean hasita. Berezia izango da 39. hau: Alfredo Gonzalez Chirlaque Bandako eta Orkestrako zuzendariaren dako azkena. Ohikoa den bezala, sarrera guztiak agortu dira.

Ekainean hartuko du erretiroa Gonzalez Chirlaque eta bi taldeetako zuzendaritza utziko du. Ordura arte, pixkanaka, agurtzen joango da: Gabonetakoan, Aratusteetakoan... Mendekoste jaie-tan behin betikoz agur esan arte.

Bandako zuzendari berria

Haren ordezkia aukeratzeko prozesuan aritu dira azkeneko asteotan eta etorkizuneko bandako zuzendaria izango dena

aukeratu dute dagoeneko, baina edizio hau amaitu orduko izendapena oraindik ofizial egin barik zuen bai Udalak eta baita Bergarako Musika Bandak ere.

Orain, zuzendari berria Gonzalez Chirlaquearekin batera ariko da sei hilabete hauetan, kargua hartu bitartean. Bandako zuzendariorde izango da. "Nahi izan dugu, lehenbizi, aukera eman bandako kideei. Batzuek aurkeztu dute beren burua eta horien artean egin dugu aukeraketa", dio Gonzalez Chirlaquek. Zuzendari berriak urtarriko lehen entseguan, hilaren 8an, aurkeztuko du bere taldekideen artean bandarako daukan proiektua.

Bandako zuzendaria aukeratu, orain, orkestrakoa aukeratu dute. Orkestrako kideen artean erabakiko dute prozesua nola egin. Litekeena da, banda-

"Bandak eta Orkestrak orain arte bezala jarraitzea nahiko nuke"

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE BERGARAKO BANDA-KO ETA ORKESTRAKO ZUZENDARIA

Ekainean hartuko du erretiroa Gonzalez Chirlaquek. Honenbestez, zapatukoa bere azken Gabonetako kontzertua izango da.

Gonzalez sagaren azkena bada?

Bai. Birraitona Salamancatik etorri zen. Piano afinatzailea zen eta Ibarako Agirre Pianoak enpresak kontratatuta etorri zen Euskal Herrira. Ondoren, nire aitona Ibaratik Errege Seminaria ikastera etorri zen eta Bandaren ardura hartu zuen. Haren ostean, nire aitak hartu zuen eta hark utzi zuenean neuk. Dena den, Patrizia alabak jarraitzen du, bai Bandan eta baita Orkestran ere, eta ikasketak ere musikara bideratu ditu. Pedagogia eta Irakasle ikasketak egin ditu

eta orain Musika irakaskuntzan ari da espezializatzen.

Zure erretiro hartzeak ekarri ditu aldaketa batzuk bandan. Aurrerantzean ez da Udalaren menpe zuzeneko izango.

Halaxe da. Udalbatzak aho batez onartu zuen Udal Musika Banda izateari utzi eta Musika Banda



ENEKO AZKARATE

izatea. Aurrerantzean, elkarre baten menpeko izango da, nahiz eta ziurtatuta izango duen, hitzarmen bidez, finantzazioa. Bandak ere konpromiso batzuk hartuko ditu, Orkestra sinfonikoaren edo beste abesbatzak bezala. Azkenean, ezberdina izan arren, orain arte bezala izaten jarraitzeko.

Zer eman dizute zuri Bandak eta Orkestrak?

Dena. Musikalki asko eman dit, baina, batez ere, belaunaldi ezberdineko jendea ezagutzeko aukera eman dit lan honek, eta hori izugarria da. Gazte-gazte zirela ezagutu nituen asko eta asko eta horietako bat izango da ekainetik aurrera zuzendaria.

Eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek zer eman dio?

Gustatuko litzaidake jendeak gogoratzea Bandarekin eta Orkestrarekin pasa dituen une atseginak. Eta egin ditugun beritasunak aintzat hartzea, urteko kontzertu bereziak...

LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK
%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE

FABRIKAZIO MEKANIKOA		ORDUAK	DATAK
MF0091_2	UF0833: TXORBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2019/02/11-2019/02/26
MF0090_2	UF0878: TXORBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETETAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. MEKANIZAZIO KONBENTZIONALA	80	2019/04/01-2019/05/28
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROD. IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS	40	2019/03/25-2019/04/18
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA. M-COSMOS	30	2019/05/06-2019/05/21
FMEM00110H	CAM NX (2 1/2 ETA 3 FRESATZEKO MAKINEN ARDATZAK)	40	2019/03/25-2019/04/16
FMEM00320H	3D INPRIMAKETA BIDEZKO EKIDUPENERAKO DISEINUA	15	2019/04/08-2019/04/15
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
FMEM0090PO	ROBOTIKA DINAMIAK	50	2019/01/28-2019/02/25
FMEM00550H	PNEUMATIKA	40	2019/01/14-2019/02/05
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0321:	KALKJULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. EXCEL	50	2019/03/11-2019/04/10
UF0314	KONTABILITATE-KUDEAKETA	90	2019/01/14-2019/03/07
BESTE BATZUK			
FMEED0230H	XAFLEN ESTANPAZIOARAKO TROHELEN DISEINUA	60	2019/03/11-2019/04/16
FO0002	AUKERA BERDINTASUNERAKO SENTSIBILIZAZIOA	20	2019/02/06-2019/02/12
LEHENTASUNA: LANGABEEK IZANGO DUTE - PRAKTIKAK EGIN DITZAKEZU ENPRESA BATEAN			
ELEM0311	AUTOMATIZAZIO-SISTEMA INDUSTRIALEN MUNTAKETA ETA ZAINKETA	390	2019/01/07-2019/06/04

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: Miguel Altuna Institutua - Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49 // Eposta: ikastaroak@imaltuna.com // www.imaltuna.eus



Bergarako Musika Bandaren emanaldietako bat, Udal Pilotalekuan, Bandaren ohiko agertokian; zapatuan, herriko talde sinfoniko koralekin batera ariko da Gabonetako kontzertuan. IMANOL SORIANO

ko zuzendaria bera izatea orkestrako zuzendari ere, gaur egun bezala, pertsona bakarria arduratuz bandaz eta orkestraz.

1987ko Gabonetako kontzertua
Bandako eta Orkestrako zuzendariak gogoan du lehen Gabonetako kontzertua. 1987an izan zen. "Nire lehen kontzertu sinfoniko handia izan zen, Banda, Orkestra eta kokuak batera, nahiz eta Orkestrarekin egin nuen emanaldia Gabonetako kontzer-

tuan, Orkestra 1985an sortu zen eta". Aitak 1987an hartu zuen erretiroa eta lehen kontzertua Bandarekin urte hartako Errege Egunean eman zuen Irala aretoan. "Orduan, Bergarako

GONZALEZ CHIRLAQUE ZUZENDARIAREN AZKEN GABONETAKO KONTZERTUA IZANGO DA ZAPATUKOA

Udal Musika Bandak Gabonetan hiru emanaldi eskaintzen zituen: Eguberri egunean, Urteberri egunean eta Errege egunean. Aitari okurritu zitzaion Eguberrietakoa eta Urteberrietakoa kendu eta Gabonetako bakarria egitea. Urteetara, Errege egunakoa ere kendu egin zen", dio.

'The Mission' berezia

Bergarako Musika Banda, Aritzeta Abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako

Orfeoia, aipatutako ordenan, ariko dira agertokian. Eta, amaieran, guztiak batera, *Adeste fideles* eta *Hator-hator* ohikoekin batera, Ennio Morriconeren *The Mission* joko dute –amaiera-

SASOI BATEAN, GABONETAN, HIRU KONTZERTU EGITEN ZITUEN BANDAK, GABONETAKOAZ GAIN

amaierarako azken "sorpresatxo" bat gordeta dute. "Orkestraren-dako pieza ezinbestekoa da" dio Gonzalez Chirlaquek. Zuzendariak 1991n egin zuen moldaketa urte hartako Gabonetako kontzerturako eta obra horrek ospea eman dio Orkestrari, kanpoan toki askotan jotzeko aukera eman dielarik. Aritzetak, *Viva la vida* (Coldplay) eta Orfeoia *Theme from new york, new york*, Frank Sinatrak ospetsu egin zuena, eskainiko dituzte, besteak beste.



*Gabon
zoriontsuak!*

Mirari

Jantzi Denda

Ibargarai hiribidea 14
Tel.: 943 76 23 93
BERGARA





Jesus Jauregi eta haren emazte Anttoni Casenco; Jauregi ekainaren 26an hil zen eta Casenco, bi hilabete inguru geroago. T.M.

Jesus Jauregi omenduko dute Napar Ferian bihar

San Antonioko azokak 20 urte beteko ditu, eta haren sortzaile Jesus Jauregi omenduko dute (11:30), aurreku eta Alai taldearen emanaldi berezi eta guzti; Napar Bideak kooperatibako produktuez gain, zortzi elkarteren arteko lehiaketak ez du hutsik egingo

Jokin Bereziartua BERGARA

San Antonioko Gure Ametsa elkartearen ekimenaz sortutako Napar Feriak 20 urte beteko ditu bihar, eta, urteroko ekitaldiez gain, aurten egongo da berezia izango den bat: joan den ekainaren 26an hil zen Jesus Jauregi omenaldia. Donostian jaioa, Bergarako igerilekuak zabaltu eta igeriketa monitore postua lortu zuenean etorri zen Jauregi San Antonio auzora bizi izatera, eta, Gure Ametsa elkarte-ko kultura batzordeko kide Patxi Uribesalgok gogoratu duenez, saltsa askotan egon zen sartuta; 1973an Gure Ametsa sortu zutenen artean egon zen, esaterako: "Kirol, kultura eta

gastronomia arloetan erreferente bat zen. San Antonio auzoko danborradaren bultzatzaileetako bat izan zen, Tostoiaren eta Erreilenen Kofradiaren sorrerako *alma mater*-a, Napar Feriaren sortzailea...". Omenaldia 11:00etan hasiko da: aurreku egingo dute Jauregiaren omenez, eta haren semeari Santi Arrietak egindako zeramika bat emango diote. Alai Taldeak ere hartuko du parte, Gure Ametsa elkartearen ereserkia abestuz. Omenaldia amaitutakoan, 11:30ean, zabalduko dute Napar Feria. Urtero legez, Napar Bideak kooperatibakoek ekarritako askotariko produktuak erosteko aukera egongo da San Antonion.

Patata, itsas zapoarekin aurten

Patata oinarri hartuta egin ohi duten elkarleen arteko sukaldaritzako lehiaketa da azoka horretako beste klasiko bat, eta aurten ere ez du hutsik egingo. "Aurten patata itsas zapoarekin prestatu beharko dute izena eman duten zortzi elkarleen". Gero, lehiaketako platerekin bazkaria egingo dute parte hartzaileek, antolatzaileek eta feriako saltzaileek. Gabonetako postalen 14. lehiaketaren sari banaketa, Alai taldea abesbatzaren emanaldia, poneyak eta zezentxoak, erosleen artean egingo den zozketa... Bihar goiz eta eguerdi partean San Antonio auzora doan herritarrak ez du aspertzeko astirik izango.

Kartzela zaharrak ateak irekiko ditu etzi, ezagutzen ez dutenentzat

Eraikinaren historia eta bertako taldeak ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte, 12:00etan eta 16:00etan

J.B. BERGARA

Kartzela zaharrera hurbildu ohi ez direnentzat ateak irekiko dituzte etzi, eta bi ordu zehaztu dituzte, 12:00ak eta 16:00ak; ez dago izenik eman beharrik. "Eraikinaren historia ezagutzeko aukera emango digu eta bertako ziega eta espazio ezberdinetatik eramango gaitu. Bestetik, eragile ezberdinekin jarduteko aukera egongo da eta urtean zehar egiten duten lana gertutik ezagutu ahalko dugu", diote.



Larga vida a RIP-en aurkezpena. J.B.

Hainbat ekintza Gabonetarako

Gainera, egitarau ezin oparoagoa antolatu dute urtea bukatu aurretik: gaur, BET festa (00:00); bihar, hardcore jaialdia Neke Politikoa, Blood Brothers eta Detroit taldeen eskutik (22:30); etzi *Lope*-ren aurkezpena (18:00); abenduaren 24an, mojito gaua eta DJ Elvis Caino; abenduaren

27an, Kaleidoskope Trio jazz taldearen kontzertua; hilaren 28an, herriko bertsolari txapelketako finala (22:30); hilaren 29an, *Magic the gathering* txapelketa (10:00); hilaren 30ean, xake txapelketa (16:00); hilaren 31n, Gabon zaharreko kotilioia (01:00).

Kezka, Ipintzako instalazioen erabilera desgokia dela eta

Udala eta BKE "oso arduratuta" daude Ipintzako instalazioetan, bereziki harmailetan, hainbat erabiltzailek duten jarrerarekin: "Bi dozena eserleku apurtu dituzte eta astero harmailetan zinkinkeria ugari pilatzen da; pipa-azalek kalte handiak eragiten dituzte futbol zelaian. Jarrerak aldatu ezean, bestelako neurriak hartu beharko ditugu", diote.

Martxanterek saski erotiko bat zozkatuko dute abenduaren 31n

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Martxanterek saski erotiko bat zozkatuko dute abenduaren 31n kartzela zaharrean antolatu duten kotilioian. "Mimo handiz eta tentuz osatu dugu saskia, eta gure finantziazio iturrietako bat ere bada; beraz, animatu zaitezte!", diote. Sarituak 15 eguneko epea izango du saski erotikoa eskuratzeko.

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskaileraak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak

I21
K
KALITATA
Enpresa Registrada Nº00025



Aurrekontua onartzeko ezohiko osoko bilkuran EH Bilduko bost zinegotziak eta udal idazkaria, martitzenean. ANER FERNANDEZ

Inbertsioetarako tarte txikia duen aurrekontua

Udalak 1.587.521 euroko aurrekontua onartu du 2019rako. Alkateak azaldu du jasotako kalte-ordainek baldintzatutako aurrekontua dela honako hau ere. Martitzenean ezohiko osoko bilkuran onartu zuten, eta ez zen oposizioko ordezkariarik bertaratu

L.Z. ELGETA

EH Bilduko bost ordezkarien aldeko botoekin onartu du udalbatzak 2019ko aurrekontua. Hamabost minutuko ezohiko osoko bilkura izan zen; izan ere, ez zen oposizioko ordezkariarik bertaratu. Iraitz Lazkano alkateak aurrekontu proposamenaren ezaugarri nagusiak nabarmendu

ostean egin zuten bozketa koalizioako bost kideek.

Oposizioko bozeramaile Mikel Larreak GOIENari azaldu dionez, laneko konpromisoek eta bestelako egoera pertsonalek eragin dute Gu Geu Elgetako ordezkariarik ez egotea bilkuran. Hiru dira eta esan du hirurek zituztela bestelako konpromisoak.

Azaldu du, dena den, taldearen postura abstentzioaren aldekoa zela aurreko urteetako aurrekontuak onartzerakoan emandako arrazoi berdinegatik.

2019rako egitasmo nagusiak

"Azken hiruzpalau urteotan antzeko ezaugarriak ditu 2019ko aurrekontuak. Oso-oso baldin-

tzatuta egongo da aurreko agintaldietatik jaso ditugun kalte-ordainekin. 250.000 euro erabili beharko ditugu horiek ordaintzeko. Inbertsioak egitera baino bi aldiz gehiago destinatzen dugu kalte-ordainak ordaintzera", azaldu du Lazkanok. "Egindako hainbat aldaketaren ondorioz —argiteria publikoan, esaterako—, gastu arrunta dezente murriztea lortu dugu eta iazkoa baino 27 bat mila euro handiagoa da 2019ko aurrekontua. Zerbitzuak mantentzea eta hobetzea ere lortu dugu".

Hurrengo urteko inbertsioez galdetuta, alkateak nabarmendu ditu Artekalako urak bideratzeko eta bertan autobus geltokia egiteko lanak, herriko koadro elektrikoak berritzeko lanak. "Argiteriako lanak egin ditugunean konturatu gara koadro elektriko hainbat lerro ez daudela egoera onean. Arteka-lean, berriz, banatu egin behar dira euri urak eta ur zikinak, eta lan horiek elkarlanean egin beharko ditugu Gipuzkoako Urak Partzuergoarekin". Baserritarren batzordetik egin beharreko lanak, herriko haur parkeak hobetzeko diru-lerroa eta hilerrian kolunbario bat ipintzeko asmoa ere nabarmendu ditu. "Azken urteetan mantentze-lanei nahiko garrantzi ematen ari gara. Sentitzen dugu ez dugula askatasunik dirua zertan erabili erabakitzeke; izan ere, diru oso gutxi dago eta gauza asko ikusten

ditugu derrigorrean egin beharrekoak".

Martitzenean osoko bilkuran, bestalde, euskararen erabilera plana onartu zuen Udalak; izan ere, lau urtean behin berritu behar da. Horrekin batera, alkateak kontu eman zuen Udalak 1,95 eguneko epean ordaindu dituela fakturak 2018ko hirugarren hiruhilekoan. Espaloiarekin lotuta, Hiru Kultur taldearekin berritzekoa den hitzarmena hurrengo osoko bilkuran izango du udalbatzak mahai gainean.

Inbertsioak

Diru-lerroak	Euro
Artekalako lanak:	30.250
Baserritarren batz.:	15.000
Koadro elektrikoak:	13.581
Haur parkeetarako:	10.000
Irisgarritasun lanak:	7.500
Kolunbarioa:	6.985
Domingo Iturbe:	6.000
Gaztetxeo teilatua:	5.443
Gizarte zerbitzuak:	5.342
Eskolako inbertsioa:	3.000
Espaloia egokitzeke:	3.000
Ospitalea botatzeko:	3.000
Bolatokiko pertsiana:	2.500
Kiroldegiko aldagelak:	1.500
Pilotalekuko argiak:	1.000
Haurreskolako lanak:	1.000
Kaleko altzariak:	1.000
Kiroldegiko tresnak:	1.000
Ekipo informatikoak:	400
Ekipo informatikoak:	200

Olentzerok domeka iluntzean jasoko ditu elgetarren gutunak

Herri Eskolako neska-mutikoek gaur goizean egitekoa duten azoka txikiarekin hasiko dira Gabonetako ekintzak

L.Z. ELGETA

Askotariko produktuak eskainiko dituzte eskolako umeei plazan, gaur, 09:30etik 11:00etara. Haien eskutik etorriko da Gabon giroa. Arratsaldean, udal ordezkariak eta erretiratuek urteroko bisita egingo dute Bergarako Mizpirualde egoitzara. Ludotekan, berriz, Gabonetako tailer irekia dago iragarrita, 17:00etatik 19:00etara, 7 eta 12 urte artekoendako. Herriko musika ikasleek ere gaur egingo dute Gabonetako emanaldi berezia, Espaloian, 19:00etan.



Olentzero, iaz, Elgetan. L.Z.

Olentzero eta Gabon kantak

Domekan, hilak 23, jaitsiko da Olentzero Intxortatik eta 18:30 aldera iritsiko da. Aurretik, neska-mutikoendako apaingarriak egiteko eskulan tailerra dago antolatuta.

Astelehenerako, hilak 24, Gabon kantak abesteko gonbidapena egin du Maala guraso elkarteak. Taldea 11:00etan abiatuko da Herri Eskolatik, eta eguerdian txorizoa eta salda banatuko dituzte plazan. Kantatzeko mendi taldeak Eguberri egunerako egin du proposamena: Intxortara igotzeko plana egin dute, plazatik 11:00etan abiatuta. 11:30 bueltan txorizoa banatuko dute tontorrean. Liburutegiak, azkenik, *Liburu bat opari* lehiaketa antolatu du. Hitzordu gehiago gehigarriko agendan daude jasota.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Mikel Elgoro-Iñaki Ugarteburu	18-13
Ainhua Zeziaga-Eneritz Larrea / Maitena Mañarikua-Olatz Olaortua	18-15
Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre	09-18
Mikel Beretxinaga-Ibon Unzetabarrenetxea / Alain Valle-Eneko Ormaetxea	18-10
Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Josu Mañarikua-Beniat Arabaolaza	15-18

SAILKAPENAK

40 URTETIK GORAKOAK

1	Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre
2	Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea
3	Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar
4	Mikel Elgoro-Iñaki Ugarteburu
5	Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas
6	Ruben Sanchez-Mikel Arkarazo

40 URTETIK BEHERAKOAK

1	Andoni Elorza-Oskar Sarasua
2	Mikel Beretxinaga-Ibon Unzetab.

3	Alain Valle-Eneko Ormaetxea
4	Josu Mañarikua-Beniat Arabaolaza
5	Diego Cantabrana-Txomin de Vega
6	Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendi.

FINALERDIAK

GAUR, BARIKUA, 19:00ETAN

.	Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elgoro
.	Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar
.	Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Josu Mañarikua-Beniat Arabaolaza
.	Mikel Beretxinaga-I. Unzetabarrenetxea / Alain Valle-Eneko Ormaetxea

Emakumeen txapelketa

Bi bikotek eman dute izena eta finala jokatuko dute, hilaren 31n.

Neska-mutikoen pilota txapelketa

Partidak hilaren 27an eta 28an jokatuko dituzte. Finalak urtarilaren 6an izango dira, 11:00etan.

Maidar Arregi ANTZUOLA

Datozen hauteskundeetarako EH Bilduren alkategaia da Beñardo Kortabarria. Orain taldea osatzen ari direla kontatu du Goiena telebistako *Harira* saioan. "Helburua da hasi genuen proiektuari jarraipena ematea eta borobiltzea. Hala, zinegotziren batek ere agintaldia errepikatuko du", azaldu du.

Agintaldiaren azken txanpan sartzeaz zaudete.

Bai, aurrekontuak egiten eta adosten ari gara orain. Urtarri-lean onartuko genituzke. Oposizioari ekarpena egin dezaten, aste honetan pasako diogu.

Zeu izango zara berriro alkategai.

Ez da erraza halako kargu baterako baietza ematea, baina, guk parte hartze prozesu bat egin genuen eta baiezkoa eman nuen, indartsu sentitzen naizelako; baita jakintsuagoa ere udal kudeaketan. Gainera, hasitako lan bati bukaera emateko konpromisoa sentitzen dut.

Nahiko buruhauste eragin dizute uholdeek. Zein da egoera orain?

Aseguruen kontsoltzioak Torresoroaz eta liburutegiaz arduraturako dira, besteak beste. Eta bestelako batzuk geure gain hartu ditugu, oraingoz: harriak kentzea, hoditeriaren garbiketa lanak... hortik kanpo geratu dira aseguratu gabeko lokalak eta negozioak. Kaltetutako landa-bideak konpontzen ere badihardugu, laster amaituko ditugu.

Egoera normala noiz izango duzue?

Torresoroa maiatzerako eginda egongo da eta martxan egongo da. Ez dugu, ordea, inauguraturako, hauteskundeak direlako. Ekaina eta uztaila bitartean liburutegia bere jatorrizko tokira eramango da. Ordurako, gimnasio zerbitzua esleituta edukiko dugu eta gimnasioa irailean martxan edukitzea gurako genuke. Aurrekontuetan partida bat jarri dugu gimnasioko tresneria erosteko, eta, enprekin akordiorik egongo ez balitz, gutxieneko zerbitzu bat eskaintzea antzularrei.

Egoera honek zuen azpiegiturak birplanteatzeko aukerarik eman dizue?

Neurri batean, bai. Esan moduan, aseguruen kontsoltzioak kalteen %93 bere gain hartuko du. Gure gain %7 dago. Horregatik, gure asmoa da Torresoroan edozein ordutan eta nahi duenarendako zabalik egongo den ikasgela bat sortzea. Bere giltza izango luke.

"Torresoroa areto berritua maiatzean zabalduko da"

BEÑARDO KORTABARRIA ANTZUOLAKO ALKATEA

Lehen agintaldia alkatetzan bukatzeaz du Beñardo Kortabarria, baina 'Harira' saioan aitortu du berriro lanean jarraitzeko prest dagoela, indartsu eta gogotsu



Beñardo Kortabarria Goiena Telebistako platoon. IAGOBA DOMINGO

Torresoroak 10 urte ere badauzka, eta kanpoaldea txukunduiko diogu. Gimnasioan liburutegia jartzeko berogailu sistema aldatu dugu eta margotu ere egin dugu.

Aseguratu gabeko kalte horien erantzule Bidegi izatea gura duzue. Erreklamazioa egingo diozue.

Aho batez onartu genuen EAJk eta guk. Baina aho txikiarekin onartu zuten. Guk osoko bilkurara aurkeztu genuen Bidegiri zuzendutako idatzia. Euren obratik etorritako harriak eurenak zirela eta aseguratu gabeko kalteen erantzule egiteko eskatuz eginiko idatzia. Bidegik ahoz esan zigun ez dela kargu egingo. EAJk beste testu bat ekarri zuen. Herriak eta Diputazioak egindako lana goraipatzen zuena eta eskatzen zuena ere kalteen zerrenda bat aurkezteko Bidegiri. Guk *peloteo* hori zertara zetorren galdetu genien, eta, gure harridurarako, Aintzane Oiarbidek idatzitako testua zela esan ziguten. Orduan, baina, zeinen alde zaudete? Herriaren alde ala zuen alderdiaren alde? Eta hortxe geratu zen. Guk eurek eskatzen zuten kalteen zerrenda gehitzearen alde egin genuen, eta onartu egin zen erreklamazioa egitea.

Eztalan egindako lanekin konforme?

"DESKARGAKO LANEK BURUHAUSTE UGARI ERAGIN DIZKIGUTE, BIHOTZA UKITZERAINOKOAK"

Egoera hobetu egin da, eta lur-mugimenduak egonkortsu. Baina kezka daukagu, ura inoiz ez da-eta hortik etorri. Hilerrir ingurua, skate pista... hainbat lan egiteko daude inguruan, eta zer gertatuko da? Zerrenda bat prestatuta daukagu. Espero dugu konpontzen joango direla, beharrezkoa da. Idatziz jarrita eduki gura dut. Obra honetatik ez dugu onurarik atera eta Diputazioak sentsibiltate pixka bat izan beharko luke. Nahiko pazientzia izan dugu antzularrok.

Eztalan aldagelak egingo dituzte.

Bai. Hiru hankako proiektua da. Batetik, Bidegik diru kopuru bat erreklamatu dio aseguruari; izan ere, aldagelak obraren ondorioz apurtu dira; diru kopuruan ados ez direla jartzen jakin dut goizean. Bestetik, Diputazioko Kirol Saila dago eta prest azaldu da parte hartzeko. Eta hirugarrenik, berriz, gu. Bi urtean gauzatuko den proiektua da eta bi urtetako diruak erabiltzea da asmoa. Horixe dago hitzarmenean jasoa.

Deskarga martxoan zabalduko dute.

Nik uste dut tronkala irekiko dutela, baina hainbat lan egiteke geratuko dira. Inauguraturako dute eta erabilgarri egongo da. Baina bestelako lan horiek egiteko egongo dira. Horregatik, idatzita jasota edukita izan nahi ditut, ahaztu ez daitezen. Martxoaren 28an, goizean, irekiko dutela jakin dut.

Deskargako lanek nola eragin dizute?

Hautsa, zarata, auto-ilarak, leherketak, lur-mugimenduak... bihotza ukitzerainokoak. Hainbat iturri ere galdu dira.

Parte-hartze prozesuan, herritarren premiak aztertu dituzue.

Aurrekontuan isla izango du. Herritarrek aipatzen dute, adibidez, hondakinetan sakontzea eta Hobekiren parte izaten jarraitzea. Bestetik, Errekalde eta Beheko auzoa interes bereziko auzo izendatzeko proposamena irteten zen, eta horri ere helduko diogu. Kulturaren gaineko hausnarketa ere abiatuko dugu: eskaintza kulturala, zein joera kultural dugun...

"AURREKONTU PROPOSAMENA OPOSIZIOARI PASAKO DIOGU, EKARPENAK EGIN DITZAN"



Olentzero eta Mari Domingi, Antzuolako plazan. A.U.

Astelehenean, magiaz beteko da herriko plaza

Abenduaren 24an, 18:30ean, jaitsiko dira menditik Olentzero eta Mari Domingi: txistularien, dantzarien eta bertsolarien laguntza izango dute plazako ekitaldi magikoan. Argiak itzaliko dituzte, eta herriko plazak agertoki itxura hartuko du

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Ekintzaz beteriko egunak izango dira Gabonetakoak. Bai kultura arloan eta baita kirol arloan ere egutegian gorritz markatu beharreko egunak datoz.

Batez ere, etxeko txikienei begira antolatutako ekintzak dira. Domekan, esaterako, txotxongilo saioa izango dute. Rosa Martinez getxoztarrak bere azken lana aurkeztuko du: *Nahia eta Neo*. 3 urtetik gorakoendako ikuskizuna da, eta Nahia neskatok Neo estralurtarrarekin duen bizipena kontatzen du.

Abenduaren 24an, astelehena, magiak beteko du Antzuolako plaza. 11:00etan, Errekaldetik irtenda, eskolako umeez eta gurasoez kalejira egingo dute. 18:30ean, aldiz, Olentzeroren eta Mari Domingiren txanda izango da. San Josetik irtengo dira, eta, betiko moduan, lastargien laguntza izango dute menditik jaisteko. Plazan elkartuko dira denak, eta herriko plazak agertoki itxura hartuko du. "Magia

berezia izaten duen ekitaldia da. Argiak itzali egingo dira eta plazak agertoki itxura hartuko du, antzezlan bat izango balitz moduan", azaldu du Jone Larrañagak, Kultura teknikariak. Dantzarien, txistularien, bertsolarien... laguntza izango dute Olentzerok eta Mari Domingik. Aurtengo berrikuntza izango da haur parkea bi egunetan jarriko dutela. "Abenduaren 27an eta urtarrilaren 2an izango dira", dio Larrañagak.

'Patxiku Txerren'

Urtarrilaren 4an, 17:30ean, Olaran etxean *Patxiku Txerren* literatura lehiaketako sari bana-keta ekitaldia egingo dute, Apika taldearen laguntzarekin.

'PATXIKU TXERREN' LITERATURA LEHIAKETAKO SARIAK URTARRILAREN 4AN BANATUKO DITUZTE

Patxiku Txerren Antero Apaolazak idatzitako liburua da. Apaolaza Urretxun jaioa zen (1845-1980), baina Antzuolan bizi izan zen bere bizitzako azken 17 urteetan.

Patxiku Txerren 1980ean argitaratu zuen, eta Antonio Truebak idatzitako *El Judas de la casa* obraren euskarazko egokitzapena da; Antzuolako Basalde auzoan kokatu zuen Anterok istorioa.

Kirol hitzorduak

Urtea Arrola mendira igoaz hasiko dute antzuolar askok; hala, salda eta txorizoa izango dute han. Abenduaren 26an, San Esteban krosa egingo dute: 188 lagunek eman dute dagoeneko izena lasterketan.

Debagoieneko Gabon Kopako hainbat pilota partidu Antzuolan jokatu dituzte –Arrasate da antolatzailea–: abenduaren 26tik abenduaren 30era bitartean alebin B mailako pilotarien partiduak izango dira Antzuolan.

"Azkenaldian, etxetik kanpo partidu onak egiten gabiltza"

IOSU ZUBIKARAI ENTRENATZAILEA

Denboraldi erdia eginda, balorazioa egin du Zubikarai

A.E. ANTZUOLA

Domekan, 17:00etan, Beasainen aurka jokatu du Antzuolak ligako 15. jardunaldia. Taldearen egoeraz eta egiten ari diren lanaz berba egin du Zubikarai.

Zestoaren aurka 5-0 irabazi ostean jokatu duzue Beasainen. Horrelako emaitzek indarra ematen dute?

Bai; gainera, zortzi bat jardunaldi gindoz partidurik irabazi barik. Idiazabalen irabazi genuen orain dela bi aste, eta etxean irabaztea ere tokatzen zitzaigun. Gustura gaude emaitzarekin.

Beasaingo partiduekin denboraldi erdia eginda izango duzue.

Bai, Beasaingoa izango da lehenengo itzuliko azkeneko partidua. Ondo hasi ginen, hiru partidutan 7 puntu batu genituen; ondoren, berriz, bolada txarra harrapatu genuen. Ea azkeneko partidu honetan etxetik kanpo punturen bat lortzeko aukera dugun.

Nola jokatu beharko duzue Beasaini aurre egiteko?

Azkenaldian, etxetik kanpo ondo gabiltza. Atzean bost jokalarirekin irteten gara, eta eroso gaude sistema horrekin.

12. postuan zaudete, 17 punturekin. Nola ikusten duzu taldea?



Iosu Zubikarai. I.Z.

Antzuola batendako, denboraldia salbatzea da garrantzitsuena. Badakigu zertarako gauza garen eta zer daukagun. Urtea jende gutxiarekin hasi genuen; eta, gainera, lehenengo jardunaldian Ander Arana urte guztirako lesionatu zitzaigun. Guretako, ez da denboraldi erraza izaten ari; helburua mantentzea izango da.

Urtarrilaren 13an itzuliko zarete. Atsedean hartuko duzue?

Egun batzuk jai hartuko ditugu eta urtarrileko lehenengo astean hasiko gara entrenatzen.



AMT

Aitzuriko tontorra zapaldu barik

Arrola Mendi Taldeko lagunak Aitzurira irteera egin zuten zapatuan. Giroa ez zuten lagun izan: elurra, haizea, behe lainoa... Hori horrela, Aitzuriko tontorra beste baterako utzi behar izan zuten antzuolarrek. Eguraldi hobea egiten duenean joatea erabaki dute. 1975eko abenduaren 14an antzuolarrek Aitzurin jarritako buzoiak han jarraituko du, zain.

Urte zaharra agurtu eta berria gustuz hartu

Olentzerok eta Mari Domingik baieztatu dute Foruen plazan egongo direla abenduaren 24an, 12:30ean. Baina kontzertuak, antzezlanak, erakusketa, irteera, kuadrillen arteko kirol txapelketak eta gehiago ere antolatu dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Abenduaren 10ean piztu zituzten kalean jarritako Gabonetako argiak eta aste hartan izan ziren urte amaierarako antolatu diren lehen emanaldiak. Orduko musika kontzertuen ondoren, baina, gehiago ere izango dira aurtengo Gabonetan Oñatin. Gabon kantak abestuko dituzte abesbatzek herriko kaleetan, Olentzerok eta Mari Domingik ere esan dute 12:30erako plazan egongo direla, ur jolasak, kuadrillen arteko kirol txapelketak, kontzertuak, erakusketa, antzez-lana, puzgarriak... dira adibide batzuk.

Txandaren saskiak eta sariak

Txanda elkarteak zuzeneko sariak eta zozketa bidez emango dituen 200 euroko sei sari ditu, Gabonetan erosketak herriko komertzioetan egiten dituzten bezeroei emateko. "Gabon hauetan ere betiko arretea eskainiko digu bezeroei, eta gudan jarri duten

konfiantzagatik eskerrak eman gura dizkiegu sari hauekin. Erosketak egiterakoan momentuan hazkatu behar diren txartelak ematen ditugu, eta herriko produktuz beteta dauden saskiak tokatu ahal zaizkie. Horrez gain, izena eta telefono zenbakia papertxo batean jarri eta 200 euroko sei sarietako bat eskuratzeke zozketan sartuko dira", dio Txandako kide den eta Singular saria jaso berri duen Chic dendako Irma Juaristik.

Erakusleho lehiaketa

Herriko 27 dendak, gainera, Udalak antolatzen duen Gabonetako erakusleho lehiaketan hartu dute parte, eta bihar, zapatua, eguerdian egingo dute sari emate ekitaldia, 13:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Epaimahaikideek hiru sari emango dituzte; laugarren saria jasoko du herritarren boto gehien eskuratu dituenak. 1.700 euro emango dira saritan, guztira.

Udalaren diru-kutxaren egoeraz "arduratuta" dagoela dio EAJk

Kiroldegiko obrei aurre egiteko aurrez dirurik ez gorde izana "gobernuaren kudeaketa falta" dela berretsi du

O.E. OÑATI

Udaleko alderdi jeltzalearen iritziz, "egungo EH Bilduren Gobernuaren plangintza ekonomikorik ezak Oñatiko Udalaren kontuen etorkizuna zailduko du urte askotan". Adierazi du 2019rako Udal Gobernuak "sartutako zorpetze maila" ikusita "oso arduratuta" dagoela "udalaren diru-kutxaren egoera ekonomikoagatik", eta hori gobernuaren "kudeaketa faltagatik" dela gaineratu du.

EAJko udal taldeak dio datorren urtean Udalak eskatu behar duen

sei milioiko kredituari kiroldegiko eta Olaitturriko obrak amaitzeko, "2020-2021 urteetan kontratatu beharko diren bost miloi inguruko kredituak gehitu" behar zaizkiola, "2019rako aurreikusitako partidek kostuen %43 besterik ez dute-eta estaltzen". Gaineratu du: "Erabat desegokia iruditzen zaigu, bere agintaldia amaitzeaz dagoen gobernu batek, Oñatiko Udalaren diru-kontuak hainbat urtetarako arriskuan jartzea eta hipotekatzea", eta hori herritarrek jakin behar dutela uste dute.



Herriko komertzio askok dituzte Gabonetako apaingarriak GOIENA



Araotzeko saloian egin zuten liburuaren aurkezpena, zapatu eguerdian. O.E.

Bazen behin saltzaile ibiltari bat, araoztarra...

Gerneta etxean jaiotako Anastasio Zubia astoa hartuta ibili zen urte askoan etxez etxe era askotako produktuak saltzen, Gipuzkoan eta Araban. Haren historia eta pasadizoak jaso ditu Artixa kultura elkarteak dagoeneko salgai dagoen liburuan

Oihana Elortza OÑATI

Gaztetatik ei zuen saltzaile sena Anastasio Zubia araoztarrak. Astoarekin etxez etxe, auzoz auzo, ibiltzen zen garia, izarak eta abere-buruak saltzen. "Berzkoa zuen. Legazpiko Patrxio Etxeberrria lantegian aritu zen denbora batez lanean, eta hango lankideekin ere burutzen zituen salerosketak. Nagusiei ez zitzairen horrenbeste gustatu zeregin hori eta aukeratzeko eskatu zioten, edo tratante edo fabrikako langile. Lehen aukeraren alde egin zuen galdetu eta segundora. Txikitatik zetorkion merkataria sena", azpimarratu zuen Migel Anjel Kortabarria *Sarramendi*-k haren gaineko liburuaren aurkezpenean, Araotzeko saloian.

Emaztearen laguntzarekin

Araotzeko Gerneta baserriko erdiko etxean jaio zen Anastasio Zubia, 1916an, eta duela 35 urte hil zen, 1983ko abenduaren 15an. Eta bere heriotzaren urteurren egunean aurkeztu zuen Artixa

kultura elkarteak haren historia eta pasadizoak jasotzen dituen liburua. "Hari buruzko kontakizun asko batu ditugu eta denak ezin izan ditugu jaso, baina bai asko. Eta ez Oñatin bakarrik, baita inguruko herrietan eta Arabako zenbaitetan ere. Izan ere, haraino joaten zen bere astoa hartuta eta hango biztanleek ere gogoan dute Anastasio Zubia", dio Kortabarriak. Horren lekuko dira Artixa elkartekoek jaso dituzten datuak: 1960an, esaterako, Gipuzkoako eta Arabako 1.159 etxetara heldu zen, 6.190 bezerorengana. "Izarak, mahoizko telak, mahai-tresneria... saltzen zituen. Baita garia edo txerrikumeak ere. Bere emazte Euxebi Guridik alkandorak eta

EUXEBI GURIDIK, EMAZTEAK, NEURRIKO IZARAK ETA ALKANDORAK EGITEN ZITUEN, MAKINAREKIN

neurriko izarak egiten zizkion, gero saltzeko. Oso ondo erreparatzen zion zeinek zer zuen faltan edo zer soberan. Aipatu behar da inork ez digula kexarik edo hitz txarrik esan berari buruz hitz egitean", esan zuen *Sarramendi*-k, egileetako batek.

Jose Antonio Azpiaz zuen bezala, "miseriari aurre egiteko oso ausartak izan ziren araoztarrak, eta Anastasio Zubia da horren adibide bat. Zubia noiz etorriko zain egoten zen jendea. Umoretsua, nekaezina eta langilea zen".

Saloia bete egin zen

Araotzeko saloian egin zuten liburuaren aurkezpena eta jende asko batu zen ekitaldian, auzotarrak asko, eta baita Zubia alaba Iruñe eta etxeak ere. Gandiagak eskainitako poema bat errezitatu zuten, eta baita auzoko kantu zaharrak abestu ere. Liburua salgai dago herriko ohiko tokietan.



Martitzenean inauguratu zuten Urgaingo soto eraberritua. T.M.

Elkarlanean egin, eta batera zabaldu dute Urgaingo sotoa

Eraberritutako espazioak 1.200 metro koadro ditu eta hainbat gela eta erabilera izango ditu aurrerantzean

O.E. OÑATI

Ekainean hasi ziren eraberritze lanak bukatuta, beste itxura bat du Urgain eskolako sotoak. 1.200 metro koadro inguruko lekua egokitu dute bertan, hainbat gela eta erabilera izango dituen. "Psikomotrizitate gela berria, gimnasioa eta euria egiten duen egunetan umeak barruan jolas-teko espazioa", zehaztu du Ines Zubiak, eskolako zuzendariak. Mahai jolasendako gela bat, tresnak gordetzeko beste lau eta bi komun ere egokitu dituzte.

Martitzenean zabaldu zuten eraberritutako espazioa. Urgain

eskolako egungo eta lehengo langileak egon ziren, baita Oñatiko Udaleko ordezkariak eta Gemma Gonzalez de Txabarri, Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailako Gipuzkoako ordezkaria. "Lehenagoarekin duen aldea handia da. Oso ondo dago, ez dago hezetan usainik. Oso gustura gaude", esan du Zubiak.

Erakundeetako ordezkariak zerbitzu publikoak zaindu eta indartu beharra nabarmendu dute, eta, kasu honetan, izan den elkarlana azpimarratu.

Gastuen %40 Udalak ordaindu du eta %60, Jaurlaritzak.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Perspektiba

Bukatzeran doan urteari perspektiba pixka batekin begiratzeko edo, Euskal Herri osoan abenduaren 31n ehunka dezente izango gara mendi tontor gainera igotzen. Gure bailaran eskura ditugu Aloña, Orkatzategi, Udalatx, Kurtzebarri eta beste hainbat tontor eder!

Eta goitik begira jarrita, mundu mailan, hoberantz edo okerrerantz goazela uste duzu? Nazioarteko politika, gerra eta konponezina, ezberdinei gorrotoz begiratzea... Teorian, bake nahi dugu eta guztiontzat giza eskubide berak, baina aurren ere gizakiok egoera lotsagarriak sortu ditugu. Zer ondorio atera dezakegu? Maila pertsonalean ere, eguneroko estutasunari distantzia jarri eta tontor gainera ikuspuntuak zer berri dakarren begiratzea erabat beharrezkoa izaten da batzuetan: zer daramat bizkarrean eta zer da baliozkoa? Sakonean zeren egarri naiz eta egunerokoan nondik nora nabil? Zer da, niretzat, bizitzan asmatzea?

Aurtengoari agur esateko, igo gaitzen gainera! Hartu dezagun arnasa eta bota garrasia, begiratu dezagun zabal eta ireki bihotza!



Mikel Biain –alkatea–, Jerardo Elortza, Iñigo Biain *Bull* –liburuaren idazlea– eta Nerea Zubia –Kultura zinegotzia. E.A.

Bilduma izango denaren lehen atala, eskuragarri

'Jerardo Elortzarekin berbetan' liburua aurkeztu dute, Iñigo Biain Berraondok idatzi du: "Elkarriketa moduan dago idatzita eta lehen pertsonan kontatzen ditu bere bizitza luze eta oparoan bizi izan dituenak". Gaurtik aurrera dago salgai, 10 eurotan

Eneko Azurmendi OÑATI

Lehen liburu honek Elortzaren biografiaren "laburpen txiki bat" jasotzen du, elkarriketa formatuan. "Horretarako, Oinarri elkarte gastronomikoan esertzen ginen mahai batean, eta ia hogeitorduko grabaketa egin dugu. Hori da liburuan jaso dudana", adierazi du Biainek.

Idazleak dio aberasgarria izan dela Elortzarekin lan egitea. "Arazo bat dauka Jerardok: gehiegi daki. Lepo gainean daukan disko gogorak ez dakit ze gaitasun daukan, momentu batzuetan ez sinistekoa ere izan da", azpimarratu du.

Bestalde, eskerrak eman nahi izan ditu: "Prozesu honetan lagundu digutenei, erosiko duzuenoi eta erosi gabe irakurriko duzuenoi ere bai".

Elortza, pozik

Hainbat gai jorratzen ditu Elortzaren biografia txiki horrek. "Ume garaitik hasi, gazte denborak, Saturrarán eta Donostia-

ko seminarioan egon nintzeneakoak, ikasle garaikoak, Alemanian egon nintzenekoa eta gero lan munduan izan ditudan zereginak, bai Bergarako ikastolan, UNEDeko Euskara Departamentuan, Eusko Jaurlaritzan egin ditudan zenbait lan, ETEOkoak eta erretiroa hartu nuen artekoak. Bueno, erretiroa hartu ostean egin ditudan lantxo batzuk ere agertzen dira", dio.

2018. urteak eman duenarekin pozik azaldu da Elortza, baina atsedean apur bat behar duela ere aitortu du. "Aurtengoa lartxo izan da. Ekainekoa ezusteko galanta izan zen, ekintzaz jositako astebete luze bat izan zelako. Denbora asko hartu digu honek guztiak eta beste hainbat

"BERE DISKO GOGORRAK DAUKAN GAITASUNA EZ SINISTEKOA IZAN DA UNE BATZUETAN"

lan ere eduki ditut. Badaukat gogoia datorren urtea iritsi eta patxada apur bat hartzeko. Dena den, pozik nago eta eskerrak eman nahi dizkiet bai omenaldia egin zidatenei eta baita liburu honetan lagundu didaten guztiei", nabarmendu gura izan du.

Gaur, egubakoitza, jarriko dute salgai liburua, hamar eurotan, Txokolateixian eta herriko liburu-dendetan.

Bilduma

Asteon aurkeztu dutena bilduma bat izango denaren lehen atala besterik ez da. "Dozena bat liburu inguru ateratzea da asmoa, guztiak ere herriko gaiekin lotuta", dio Biainek.

Bigarren liburuari dagokionez, 60ko eta 70eko hamarkadan etorritako immigranteen ingurukoa izango da, haien testigantzetan oinarritutakoa. Dagoeneko lanean dihardute, eta martxo ingururako argitaratzea aurreikusten dutela adierazi du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.

Kuadrillen arteko areto futbol eta saskibaloitxapelketak


Abenduaren 24a izango da areto futbolearen izena emateko azkeneko eguna; saskibaloian, aldiz, 25a

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Euskal preso politiko eta iheslarien lagunek antolatuta, Gabonetako areto futbol txapelketa egingo dute abenduaren 27an eta 28an. Gizonezkoen eta emakumezkoen ligak bereiziko dituzte. Gutxienez, bost jokalariz osatutako taldeak izan beharko dira, eta izena eman behar da abenduaren 24a baino lehen Oñati, Ona edo Arrano tabernetan. 30 euro ordaindu behar dira taldeko. Eguenean, arratsalde eta gau partean jokatuko dituzte partiduak; egubakoitzean, goizean

eta arratsaldean. 19:00etan elkartasun argazkia egingo dute eta finala 20:00etan izango da.

Urteroko ohiturari jarraituz, saskibaloitxapelketa ere egingo dute. Aloña Mendik antolatuta, abenduaren 28an eta 29an izango da kuadrilla artekoa. Izena abenduaren 25eko 22:00ak baino lehen eman behar da alonamendi.saskibaloitxapelketa@gmail.com helbidean, 20 euro ordainduta. Egubakoitzean 09:00etatik 15:00etara eta 20:00etatik 22:30era izango dira lehiak. Bi liga bereizteko asmoa dute.



A.E.

Beratu jaialdia, argazkitan

Maiatzean ospatu zen Beratu jaialdiko argazkiak jarri dituzte ikusgai Eltzia Topagunean. Ilunpetan argazki taldeak egindako argazkiak dira; eta urtarilaren 20ra arte egongo dira ikusgai. Musikaren hainbat ertz modu ezberdinean bizi izteko aukera eskaini zuen jaialdiak; asmoa da 2019an Beratu jaialdiaren bigarren edizioa egitea.

Gaur banatuko dituzte Oñatiko kirol sariak, 19:00etan, udaletxean

Azken urteetan egin izan duten moduan, urtean zehar herrian nabarmendu diren kirolariak sarituko dituzte gaur udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Kirolari onena eta talde onena saritzeaz gain, herriarrek aukeratutako kirolaria ere sarituko dute. Hautagaiak izan dira: Erik Martin, Elene Guridi eta Ainhoa Redin.

Lidergoan amaitu gura du urtea Aloña Mendik

Gipuzkoako lehenengo mailako gizonezkoen saskibaloitxapelketa lidergoari eutsi nahi dio. Bihar, zapatua, Hernanin jokatu dute partida, 16:45ean. 11 jardunaldi jokatu ostean, 21 puntu dituzte oñatiarrek. Asteburuko jardunaldiaren ostean, atsedean hartuko dute ligan; hurrengo jardunaldia urtarilaren 13an izango dute, etxean.

EZ ITXOIN URTARRILERA ARTE

Jarri

PUNTU- PUNTUAN

GORBEIAN

**ETA ORAIN BAZKIDE
EGINEZ GERO:**

CROSSFIT GORBEIAN
**MATRIKULA
DOAN**

ETA

PADEL&SPA GORBEIAN

70€ AURREZTUKO DITUZU

URTEKO ABONAMENDUAN (2019)

JOLASTEN ERAKUTSIKO DIZUGU

2 ASTETAN

SOILIK 39€-REN TRUKE

Eskaintza hauek indarrean izango dira 2019ko urtarrilaren 31ra arte

centrocomercialgorbeia.com



CrossFit
GORBEIA



GORBEIA
Parque Comercial Gorbeia

Gabonetako torneoa, termometro modura

FUTBOLA Abenduaren 28an, Debagoienak, Realak eta Eibarrek hiruko torneoa jokatu dute Mojategin. "Nesken futbola sustatzea baino gehiago egiteko ordua iritsi da; zergatik ez batu bailarako talde nagusi guztiak?", diote antolatzaileek

Xabier Urzelai ARRASATE

Emakumezkoen Gabonetako Futbol Torneoa antolatuko du aurten ere Arizmendik, 14. urtez: "Eta bada aurrerapauso bat emateko ordua, zertarako gaitasuna daukagun ikustekoa. Duela 14 urte, nesken futbola sustatzeko helburuarekin hasi ginen torneo hau antolatzen. Zorionez, egoterra aldatu egin da, eta bailara mailan talde lehiakorren sortzeko kapaz garen ikusi beharko genuke. Orain arte Leintzekook batzea lortu dugu, eta Debagoien osoa, zergatik ez?", adierazi du Urtzi Amianok.

Proiektu bateratu batera?

Hain zuzen, hilaren 28ko torneoa termometro moduan erabili gura dute: "Hasteko, Arizmendiren izenean eskerrak eman gura dizkiegu laguntzeko prest egon diren guztiei, jokalariei, entrenatzaileei, bailarako klubei... torneoa antolatzeko lanean ibiliko diren guztiei. Hautatzaile lanetan, Manu Diaz bergararra eta Tito Etxeandia aretxabale-tarra arduratu dira jokalarien zerrenda osatzeaz. Bestela ere lan gutxi dute euren klubetan, eta, hala ere, baiezkua eman digute. Eta Andoni Ezkurra ere nabarmendu gurako nuke, lan kontuengatik ezingo delako txapelketan egon, baina harekin ere zorretan gaude".

Hala, ondoko taulan duzue Debagoieneko selekzioa osatuko duten jokalarien zerrenda: "Ahaztu barik Eibarren eta Realean ere bailarako hainbat neska daudela futboleko jokatzen. Hau da, kalitatea egon badago, eta uste dugu bailara moduan polita izango litzatekeela halako proiektu bateratu bat sortzea".

Entrenamendu saioa, 26an

Hain zuzen, Gabonetako hiru-nako torneoa prestatzeko entrenamendu saioa egingo dute 26an, 18:30ean hasita.



Debagoieneko selekzioak defentsa lanean, Eibarko jokalarien aurrean. GOIENA

Debagoieneko selekzioko zerrenda:

Atezainak

- **Olatz Alberdi** Bergara Futbol Taldea.
- **Amaia Ugalde** Aloña Mendi Futbol Taldea.

Atzelariak

- **Ane Arregi** Leintz Arizmendi Futbol Taldea.
- **Jone Alberdi** Aloña Mendi Futbol Taldea.
- **Miriam Agirre** Aloña Mendi Futbol Taldea.
- **Lide Zubillaga** Leintz Arizmendi Futbol Taldea.
- **Maialen Esnaola** Bergara Futbol Taldea.
- **Ane Larrañaga** Bergara Futbol Taldea.

Erdilariak

- **Marta Ugarte** Leintz Arizmendi Futbol Taldea.
- **Jone Ugarte** Aloña Mendi Futbol Taldea.
- **Mariñe Diaz** Bergara Futbol Taldea.
- **Maider Jorge** Bergara Futbol Taldea.
- **Olatz Legarda** Leintz Arizmendi Futbol Taldea.
- **Ainhua Iturriotz** Leintz Arizmendi Futbol Taldea.

Aurrelariak

- **Nagore Elorza** Aloña Mendi Futbol Taldea.
- **Lore Etxeandia** Leintz Arizmendi Futbol Taldea.
- **Lide Albeniz** Bergara Futbol Taldea.
- **Jone Jauregi** Bergara Futbol Taldea.

Oharra: Jokalari hauek Debagoieneko selekzioa osatuko dute, baina euren kontrario izango diren Eibarko eta Realeko taldeetan ere badira jokalariek debagoiendarrak. Hilaren 28an eurretako batzuk txapelketan egongo dira.

San Silvestre probekin agurtuko dute urtea debagoiendar askok

ATLETISMOA Aurtengo nobedade nagusia da Arrasaten ere antolatu dutela lasterketa: Musakolan, hain zuzen

X.U. ARRASATE

Aurreko urteetan, debagoiendar mordoak agurtu dute urtea korrika eginaz, eta kopuruak gora egingo du aurten, Bergarako, Eskoriatzako, Oñatiko eta Aretxabaletako lasterketei Arrasatekoa batuko zaie eta. Hain zuzen ere, Musakolan antolatu dute.

Antzuolan, San Esteban krosa

San Silvestre proben aurretik, abenduaren 26an (17:30), San Esteban krosa egingo dute. Aurten, gainera, korrika moztortuta egiteko animatu gura dituzte herritarrek Udaleko Kirol Sailak.

Hilaren 31n, berriz, goizean (12:00) Musakolan eta Bergaran –mendi lasterketa formatuan– egingo dituzte lasterketak –Eskoriatzan gaztetxoendako probak egingo dituzte goizean–. Arratsaldean, berriz, izango dira



Aretxabaletan, iaz, moztortuta. GOIENA

Oñatiko 2018 Ixa 2019 San Silvestre lasterketa (16:00etan gaztetxoak, 16:30 nagusiak), Eskoriatzako Silbestradie, Manuel Muñoz Milia (17:25ean brindisa) eta Aretxabaletako San Silvestre proba (16:45 gaztetxoak, 17:00 nagusiak).

SASKIBALOIA Gazte mailako Lauko Finala, asteburuan, Iturripen

Ointxe!-k antolatuta, bihar, hilak 22, eta etzi, hilak 23, Arrasaten jokatu dute gazte mailako Lauko Finala. Iturripen jokatu dituzte partidu guztiak. 10:00etan, MUkoek Goierri saskibaloia izango dute kontrario, eta jarraian (12:00), Easok eta Iraurrik jokatu dute. Finala, berriz, domekan izango da, hilak 23, 12:00etan.

SASKIBALOIA Kirol egokitua urtarilaren 3an Eskoriatzan

Urtarilaren 3rako, Eskoriatza Kirol Elkartek saskibaloiko egokituko erakustaldia antolatu du. 19:00etan hasita, Manuel Muñoz kiroldegian Fundacion Vital Zuzenak taldeko hainbat jokalariek izango dira saskibaloian jokatzen, eta tartean egongo da Martin Perez eskoriatzarra. Aurten, Europakoan brontzea irabazi du Perezek.

SASKIBALOIA Gabonetan hainbat campus egingo dituzte

Eskoriatza Kirol Elkartek eta Ointxe! klubak saskibaloiko campusak antolatu dituzte Gabonetarako. Eskoriatzan urtarilaren 2tik 5era egingo dute –2006-2010 urte bitarteko gazteendako–. Ointxe!-ren campusa, berriz, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian izango da, abenduaren 27tik 30era. Biak harrobiari zuzendutakoak izango dira.

SASKIBALOIA Hiruko torneoak Arrasaten eta Bergaran

Ointxe!-k eta Bergara BKEk Gabonetako hiruko saskibaloiko txapelketak antolatu dituzte Gabonetan. Arrasateko torneoa Iturripen jokatu dute. Bergaran, berriz, abenduaren 27an egingo dute hirukoa, goiz eta arratsalde. Abenduaren 29an eta 30ean, aldiz, infantil mailako torneoa egingo dute Labegaraian, 09:00etan hasita.



Ford Mugarrikoak eraso jokaldian, oñatiarrek defentsa gaintzeko saiakeran, Iturripen. GOIENA

Santamasesen usainean, derbia Iturripen gaur

ESKUBALOIA Taldean aldaketa handiak izan eta gero, poliki-poliki martxa hartzen dabilen Ford Mugarri Arrasatek ligako kontrario gogorrenetako baten bisita izango du gaur, egubakoitza, Iturripen: Fagor Industrial talde oñatiarra

Xabier Urzelai ARRASATE
Belaunaldi batetik besterako "trantsizio urte" honi etekina ateratzen hasita dago Ford Mugarri Arrasate, liga hasiera txar baten ondoren arrasatearrek azken bost partidua jarraian irabazi dituzte eta.

Bestetik, Fagor Industrial azken urteotako joera positiboa baieztatzen dabil ligako lehen itzulua amaitzera doan honetan –gaurko partiduekin amaituko dute lehen itzulua–. Eta bien arteko talkaren testigu izango dira gaur, egubakoitza (20:30), Iturripeneko harmailetan batuko diren zaleak.

Protagonistekin berbetan

Hala, derbiaren gaineko klabeak emateko, Arrasateko Oskar Macias eta Oñatiko Jon Irizar el-karrizketatu ditu Mireia Bikuña kazetariak Arrasate Irratian: "Ez dakit urteko partidurik politena den, emaitza ona edo txarra batzeak eragingo du horretan, baina, zalantzarik barik,

bai da urteko partidu berezi horietako bat, liga hasieran egutegia jasotzen dugunean data buruan gordetzen duzunetako bat", dio gaur bisitari moduan jardungo duen Irizarrek.

Oñatiko taldea egoera ezin hobean iritsiko da gaurko derbira: "Liga hasieran sinatuko genukeen gauden moduan egoeta, Zarauzko taldearekin batera lehenengo postuan, puntu kopuru berarekin (20). Eta, egia esan, azken asteetan baino ez dugu lortu maila nazionalen fitxa dugun jokalar guztiak batzea, hainbat arrazoi tarteko territorialeko jokalariekin osatu behar izan dugu taldea, eta bistan da emaitza onak batu ditugula".

ZALEEI GAURKO DERBIRA JOATEKO GONBITA EGIN DIETE BI TALDEETAKO ORDEZKARIEK

Larregiko konfiantza barik

Hala, talde arrasatearrak zortzi puntu gutxiago batu baditu ere, Irizar ez da fidatzen: "Kosta egin zaie liga hasieran izandako aldaketa handien aurrean ostera ere mailari neurria hartzea, baina badatoz behetik gora, eta Urdulizi eta Hondarribiari irabazi izanak erakusten du Ford Mugarri Arrasate bueltan dela".

Arrasatekoak, gogotsu

Gaurko derbiari begira arrasatearrek beste urte batzuetan baino presio gutxiago izango dute: "Iazko denboraldian igoera faserako sailkatu eta gero, aurtengo helburua talde moduan egiten joatea da, emaitzei horrenbeste begiratu barik. Hori hasieratik barneratu dugu, baina, poliki-poliki, geroago eta hobeto ezagutzen dugu elkar, hasi gara berriro ere kantxan gozatzen eta zelan jokatu gura dugun garbia izaten. Ez dut esango onenean gaudenik, baina taldea txukun dago derbiari begira".

FUTBOLA 'Txelis'-en torneo, hilaren 29an Mojategin

Mondrak antolatuta, Gipuzkoa-ko klub askotako taldeak batu-ko dira hilaren 29an Mojategin. Txapelketa Infantil txiki mailetako taldeei zuzenduta dago, eta, bailarakoekin batera Idiazabal, Urki, Soraluze, Beasain, Real, Urola, Añorga eta Lagun Onak klubak gonbidatu dituzte. 09:30ean hasiko dute torneo eta finala 13:30ean izango da.

FUTBOLA UDAk gertu du Etxeandiarren omenezko torneo

Aurten ere futbol eskoletako neska-mutiko mordo batuko dira, Ibarako berdegunean, Bixente Etxeandiarren omenezko Gabonetako torneo jokatzeko. Urtarrilaren 6rako, 7rako eta 8rako antolatu du UDAk torneo. Iaz, esaterako, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Eibarko eta Soraluzeko 270 neska-mutiko batu ziren.

PILOTA Ander Murua eta Markel Gartzia, aurrez aurre DVkoan

Bihar, zapatua, jokatu dituzte, Zarauzko Aritzatalde pilotalekuan, DV-Bankoa txapelketako finalak. Eta Debagoieneko bi pilotari izango dira finalean aurrez aurre, Ander Murua arrasatearra eta Markel Gartzia oñatiarra. Muruak Altsasuko Elizegi izango du bikotekide eta Gartzia Eiguren izango du ondoan.

PILOTA Gabon Saria Bergaran eta Kopako finalak Aramaion

Bergarako Gabon Sariko finalak jokatu dituzte hilaren 30ean Udal Pilotalekuan (17:00) –bederatz, guztira–. 16:00etan hasita, *barrutan* jokatu dute pilotariak. Debagoieneko Gabonetako Pilota Kopa, berriz, Arrasateko klubak antolatuko du. Hilaren 29an eta 30ean izango dira partidua; finalak, berriz, Aramaion jokatu dituzte, 31n.

FUTBOLA Bergarak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute

Ohorezko Erregional Mailan 16. jardunaldia jokatu dute aste-buruan. Bergarak puntu kopuru berbera duen (18) Beti Gazte hartuko du Agorrosinen (zapatua, 15:45) eta Aretxabaletak orain arte lider egon den eta bigarren postura jaitsi den Anaitasunaren bisita izango du Ibaran (domeka, 16:45). Mondrak Deban jokatu du bihar (16:30).

FUTBOLA Urtarrilaren 5ean, Bergarako Gabonetako torneo

Gazte Mailako Gabonetako 29. Futbol Torneo egingo dute urtarrilaren 5ean, Agorrosinen. Hiruko txapelketan, Realak, Bergarak eta Debagoieneko selekzioak hartuko dute esku. 10:30ean hasiko dute torneo, Bergaren eta Debagoieneko selekzioaren arteko partidua-kin. Sari banaketa ekitaldia, berriz, 12:30ean izango da.

TXIRRINDULARITZA Elkar dendetan salgai Yon Suinagaren liburua

Euskaltel Euskadi taldearen eta bertako zuzendari Miguel Madariagaren gaineko *Ametsak errealitate bihurtuz* liburua aurkeztu buru-belarri dihardu idazle bergararrak: "Pozik gaude jendea liburuari egiten dabilen harrerarekin". Elkar dendetan dago salgai (25 euro), edo *Librosderuta.com* webgunean.

ESKUBALOIA Arrasaten, Gabonetako torneo hilaren 31n

Arrasate Eskubalo Taldekoek antolatuta, abenduaren 31n egingo dute, Iturripen, Gabonetako eskubalo torneo. Kategoriatxikietako jokalariei zuzendutakoa izango da, LH-4, LH-5 eta LH-6ko ikasleei. Hala, txapelketan gizonetako eta emakumetako taldeak izatearekin batera, talde mistoak ere antolatuko dituzte.

Kiroldegia musika areto izango da, aspaldiko partez

Urtarrilaren 5ean, 19:00etan, Shot! estudioaren aldeko elkartasun kontzertua egingo dute Musakolan. Taularen gainean izango dira: Itziarren Semeak, La Furia, Sociedad Alkoholika, Glaukoma eta Pikete Lerroa; sarrerak salgai daude, 15 eurotan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Irailean egin zuten maiatzean erre zen Arrasateko estudioaren aldeko kontzertua Amaia antzokian, eta orduan iragarri zuten bigarren emanaldi bat egiteko asmoa zutela: urtarrilaren 5ean 19:00etan izango da, Musakolako kiroldegian.

Sarrerak 18 eurotan salduko dituzte, eta, aurrez erosiz gero, 15 eurotan, Irati, Osorik, Taupa eta Dat tabernetan eta *Musikaze.net/bidean* atarian.

Bogan dauden taldeak

Nahasketa bitxia izan zen lehenengo *IShot!U* kontzertua, bereziki, espresuki egun horretarako sortutako formazioak eta erreperitorioak izan zirelako. Oraingoan, doinuei eta hitzei begiratuta, musika gogorragoa izango da oinarrian; gaur egun bogan dauden taldeekin osatu du Shot!-en Lagunarteak ia kartel osoa, baina izango da formazio berri bat ere: Fermin Muguruzak eta Arrasateko Des-kontrol taldea elkarrekin, Pikete Lerroa sinadurarekin. "Ferminnek deitu zigun kantu batzuk batera jotzeko proposatzen, eta pozik hartu genuen. Shot!, gainera, oso gertukoa dugu, han grabatu dugu beti. Hasiera batean, kontzertu bakarra izango da, baina



Des-kontrol taldeko *Pepin*, Muguruzarekin kantuan, 2015ean, Monterronen. I. S.

ikusiko dugu...", dio Des-kontrol taldeko Oier Beitia *Magu*-k.

"Garai baten moduan"

Musakolako kiroldegia toki estimatua izan da musikazaleentzako. Hamaika kontzertu egin dira, askotariko aldarrikapenen alde eta bestelakoak ere bai. 2004an egin zuten azkena –Joe Satriani eta Steve Vai–; hortaz, ilusioa piztu du 80ko eta 90eko hamarkadan kontzertu haietara joaten zen jendearen artean, eta jakin-mina garai hura bizi ez zuten gazteen artean.

bai. Gitarra-laguntzaile moduan egon nintzen eurekin. Bigarren aldian, Aramaioko Xementerio eta Su Ta Gar taldeekin, eta azkena, Pitxones-ekin igo nintzen, gonbidatu moduan. *Jul* ezagutu nuen orduan". Egun hartako kartelean, Hertzainak eta Aretxabaletako Malaña taldeak ere bazeuden. *Magu*-k ere behin kiroldegian jotzeko aukera izan zuela ekarri du gogora: "Txapel-punk taldearekin jo nuen, *Pedrotxo* preso politikoaren aldeko ekitaldian".

Atzerritik ere, talde ezagunak

Udalaz eta herriko elkarteek gainera, Javi Mondragon *Partos* zenak kontzertu asko antolatzen zituen kiroldegian, eta haren eta gertukoen eskutik izan ziren: Gwendal, Fischer Z, Lords of The New Church, Helloween, Gamma Ray, Suaves... "1992an, Obus-ek jo zuen, eta punk pila agertu zen kontzertua *erreben-tatzera*, eta, bota zioten txistua-rekin nazkatuta, abeslariak alde egin zuen bukatu aurretik".

Erreferente ziren euskal talde asko ere izan zirela gaineratu du Zubiagak: "Itoiz taldeak estreinatu zuen kiroldegia, 1979an, eta Errobi taldea ere handik gutxira etorri zen. Politikak indar handia zuen, eta nork antolatzen zuen arabera arrakasta izaten zuten kontzertuek. "Adibide garbia Itoiz-ekin ikusi zen. Hiru aldiz etorri ziren: lehenengoan eta bigarrenean, bete egin zen, baina hirugarrenean, *Ambulance* diskoarekin, 50 pertsona bakarrik batu ginen; EGik antolatu zuen hura. Kontzertuez gainera, Amaia antzokia obratan zegoen garaian, playback jaialdia ere egin zen, eta arrakasta zuen Urtezahar kotilioia ere bai, hainbat urtetan".

Gari eta Maldanbera taldea izango dira Elgetan

Abenduaren 29an, 22:30ean, kontzertua eskainiko dute Espaloian; sarrerak salgai daude

A. A. ELGETA

Orain dela lau urte abiatu zuten bidea elkarrekin musikagintzan ibilbidea luzea duen Gari musikariak –Hertzainak– eta Maldanbera taldeak. *Estutu* izeneko lana argitaratu zuten 2016an, eta aurtengo azaroan kaleratu dute bigarrena, *Beste denbora batean* izeneko.

Lan berria aurkezteko kontzertuen birari ekingo diote laster; adibidez, urtarrilaren 4an, Donostiako Victoria Eugenia antzokian izango dira, baina, horren aurretik, Elgetako Espaloia Antzokiraino hurbilduko da boskotea. Taularen gainean lagun izango ditu Garik Borja Barrueta bateria-jolea, Gorka Benitez saxoarekin eta flautarekin, Jon Agirrezabalaga baxujolea eta Oier Aldekoa pianoan.

15 eurotan salduko dituzte sarrerak, baina, aurrez erosiz gero, 12 eurotan. Eskuragarri daude Bergarako Eruan tabernan; Arrasaten, Iratin; Eibarko Kultu tabernan; eta Elgetan, Rincon de Lola tabernan. Horrez gain, *Musikaze.com* atarian ere bai.

Egun berean, baina 18:00etan, Bergarako Musika Eskolan sortutako talde berri batek bertsio ezagunekin osatutako kontzertua egingo du; sarrera doan da.

SANTAMAS JAIK

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 22AN, ZAPATUAN, 22:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104.ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Bikote nagusi batendako etxebizitza behar dugu errentan. Elbarriendako egokitueta egotea komeni zaigu. Telefonoa: 632 77 35 38

Etxe bila. Oñatin etxebizitza errentan hartu nahi dugun bi ahizpa gara. 642 11 18 73 (Yubelca)

105. ETXEAK OSATU

Etxekide bila Bergaran. Gaztea, euskalduna eta jatorra den pertsona baten bila gabiltza. Etxebizitza badaukagu, kidea faltan. 638 37 47 59

2. GARAJEAK

204.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartuko nuke errentan. Telefonoa: 617 91 53 09

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ESKORIATZA

Mirentxu
taberna errentan
ematen da.
609 42 63 23
650 62 29 90

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona bat behar dugu astean bi egunetan, goizeko 7:00etatik 9:00ak artean, bi ume esnatu eta eskolara eramateko. Autoa

ezinbestekoa da. Telefonoa: 626 69 29 79

402. ESKAERAK

Arrasate eta Aretxabaleta. Esperientzia duen neska arduratsua nagusiak zaintzako gertu. Orduka edo egunean zehar. Soziosanitario ikasketak eta legezko agiriak dauzkat. Baita gidabaimena ere. 680 87 38 66

Arrasate eta Aretxabaleta. Gaez edo egunean zehar orduka, nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago. Legezko agiriak, soziosanitario ikasketak eta erreferentzia onak dauzkat. 632 89 09 42

Arrasate. Esperientzia duen mutil arduratsua nagusiak orduka zaintzako gertu. 653 20 18 08

Arrasate. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzako gertu. 15:00etatik 18:00ak artean edo gaueetan. 655 45 30 64

Bergara. Emakumea pertsona nagusiak zaintzako prest. Orduka, gaez edo ordezkapenak egiteko. 666 07 42 98

Debagoiena. 33 urteko neska arduratsua asteburuetan nagusiak eta umeak zaintzako gertu. Esperientzia dut. Telefonoa: 667 35 72 77

Debagoiena. 33 urteko neska arduratsua garbiketari eta nagusiak zaintzen lan egiteko gertu. 631 19 58 88

Debagoiena. 33 urteko neska, jendaurrean lan egiteko gertu. Pertsona irekia naiz. Gaueetan lan egiteko ere gertu nago baina etxean bertan bizi

barik. Gidabaimena daukat. 651 72 46 69

Debagoiena. Asteburuetan, arratsaldetan edo gaueetan pertsona nagusiak zainduko nituzke. 631 98 15 50

Debagoiena. Bertako neska arduratsua gertu umeak zaintzeko, nagusiekin egon edota kalera laguntzeko eta orduka garbiketak egiteko. Telefonoa: 695 73 87 95

Debagoiena. Emakume bat eta gizon bat gaueetan edo asteburutan pertsonak nagusiak zaintzeko gertu. 659 90 85 13

Debagoiena. Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. 688 74 38 43

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska nagusi eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. Esperientzia daukat. Telefonoa: 646 34 74 35

Debagoiena. Erizaintza laguntzailea gaixok zaintzeko prest. 688 72 58 12

Debagoiena. Gabon sasoiari nagusiak zaintzen edota etxeko langile moduan ordezkapenak egiteko gertu nago. Bestela, asteburuetan zein jai egunetan ere lan egingo nuke. Baita ospitalean zaintza lanak egiten ere. 602 00 16 60

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna, etxe eta abarrak garbitzeko, banaketa lanetan aritzeko, baserrietan eta abar. Telefonoa: 632 77 35 38

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko, orduka kalera laguntzeko edota ospitalean zein

etxean gaueetan eurekin egoteko. 634 09 55 46

Debagoiena. Lan bila nabil. Etxeak garbituko nituzke baita jatetxeak ere, umeak edo nagusiak zaindu eta abar. Tailerretan ere egin izan dut lan. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edota etxe, atari, garaje eta abarren garbiketarako egiteko. 632 81 80 99

Debagoiena. Mutila gertu zaintza eta garbiketa lanak egiteko. Baita orduka ere. Soziosanitario titulua daukat eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. Autoa daukat. Telefonoa: 631 66 40 01

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko Bergarako mutil gaztea gertu. Esperientziaduna eta arduratsua. Telefonoa: 608 29 26 54

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Telefonoa: 612 28 64 34

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Garbitasun lanak ere egingo nituzke. Erabateko presutasuna. 664 16 95 32

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 688 72 37 61

Debagoiena. Neska arduratsua gertu etxe, bulego, elkarte eta abarrak garbitzeko. 604 17 39 74

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka ere bai. 632 44 71 84

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Telefonoa: 611 39 07 20

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Orduka garbiketarako ere bai. Telefonoa: 631 09 46 89

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi

izaten edo bestela. Asteburuetan ere bai. Ordutegi arazo barik. Telefonoa: 631 95 04 42

Debagoiena. Neska gertu garbiketari, umeak zaintzen edota etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzen aritzeko. 611 24 26 64

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan egingo nuke. Telefonoa: 631 46 56 98

Zaintzailea. Asteleheneetik ostiralera pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest daogen neska bat naiz. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Nire izena Maria Valdivia da. Bergaran bizi naiz. 643 54 31 47

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Ingelesa Arrasaten. 14 urteko gazte bati ingeleseko eskola partikularrak emango dizkion norbait behar dut. 609 54 74 12

HILETA

Jesus Ugarte Aiastui



2018ko abenduaren 20an hil zen, 71 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, abenduak 21, izango da 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Eskerrik asko babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotzez besarkada handi bat familiaren izenean.

Oñatin, 2018ko abenduaren 21ean.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ARRASATEKO SANTAMASEN LABURPENA

‘Jaiak’ Zapata, 22:00



GOIENA

GORKA URBIZURI ELKARRIZKETA

‘Elkarrizkettap’ Egubakoitza, 21:30

ASTE BUKAERAN

BERGARAKO OSOKO BILKURA

‘Osoko bilkura’

Zapata, 22:30/Domeka, 11:00

ZAPATUA, 22

UMEENDAKO EMANALDIAK

‘Txantxariak’

09:30/17:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

DOMEGA, 23



GOIENA

ASTEKO ALBISTEEN ERREPASOA

‘Asteko errepasoa’

18:30

EGUNERO

OPORRETAN ERE, ALBISTEAK EGUNERO

‘Gaurkoak’

14:30/16:30/18:00/20:00/22:00

Loramendi Euskara Elkarteak

Auzoko eta Barriketan proiektuetarako

hezitzailea behar du

Eskaintzen da:

- "Auzoko" eta "Barriketan" proiektuetan hezitzaile lanak egitea

- Urtarrilean hasteko

- Lanaldiaren %40ko jarduna (astean 14 ordu)

Eskatzen da:

- Euskalduna izatea

- Bigarren mailako lanbide heziketa, gradua edo diplomatura-lizentziatura titulua izatea

- Harremanetarako gaitasuna izatea

Baloratuko da:

- Aretxabaleterra izatea eta bertako euskalkia menperatzea

- Hizkuntzarekin edo kulturartekotasunarekin loturiko ikasketak

- Hezikuntzarekin loturiko ikasketak

Interesatuok bidali curriculum vitae-a urtarilaren 6a baino lehen euskara@loramendielkarte.eus helbidera

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

URTEURRENA  Jose Antonio Garcia Ruiz de Gauna 'Berango'  2017ko abenduaren 31n hil zen, 85 urte zituela. Urteurreneko meza abenduaren 29an izango da, zapatua, 19:00etan, Arrasateko San Andres auzoko Jasokundeko Amaren elizan. — <i>Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestea.</i> Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2018ko abenduaren 21ean.	URTEURRENA  Gregorio Galdos Urteaga  2017ko abenduaren 25ean hil zen, 90 urte zituela. Urteurreneko meza abenduaren 25ean izango da, martitzena, 11:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian. — <i>Betirako gure bihotzean.</i> Etxekoak. Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2018ko abenduaren 21ean.	URTEURRENA  Jose Mari Eskibel Larrañaga  2017ko abenduaren 27an hil zen, 79 urte zituela. Urteurreneko meza abenduaren 25ean izango da, martitzena, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian. — <i>Beti izango zaitugu bihotzean.</i> Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2018ko abenduaren 21ean.
OROIGARRIA Pedro Etxagibel Urizar  2018ko abenduaren 16an hil zen, 86 urte zituela. Debagoiena Txirindularitza Kluba  Errepideko lagunak. Arrasaten, 2018ko abenduaren 21ean.	OROIGARRIA Reyes Buendia Diaz  2018ko abenduaren 15ean hil zen, 62 urte zituela. Bat egiten dugu senideen saminarekin.  Meca-Autoberri. Arrasaten, 2018ko abenduaren 21ean.	OROIGARRIA Maritere Laspiur Azkarate  2018ko abenduaren 15ean hil zen, 93 urte zituela. Bat egiten dugu senideen saminarekin.  Goiena Komunikazio Taldea. Bergaran, 2018ko abenduaren 21ean.
ESKER ONA Miguel Herrarte Garai  2018ko abenduaren 19an hil zen, 74 urte zituela. Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Aramaion, 2018ko abenduaren 21ean.	ESKER ONA  Jose Beitia Oruna  Mari Cruz Iruretaren alarguna 2018ko abenduaren 14an hil zen, 94 urte zituela. Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. — <i>Zure birbilobek ez zaitugu ahaztuko.</i> Koldo, Maria, Mikel, Maite, Marina, Aitor, Sara eta Eneko. Helbidea: Olariaga Behekoa baserria. San Juan auzoa. Bergaran, 2018ko abenduaren 21ean.	ESKER ONA  Maritere Laspiur Azkarate  Angel Azkarate Elkororen alarguna 2018ko abenduaren 15ean hil zen, 93 urte zituela. Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Bergaran, 2018ko abenduaren 21ean.
ESKER ONA Antonio Urkia Ugarte  2018ko abenduaren 19an hil zen, 79 urte zituela. Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. — <i>Etxekoak, maitasunez.</i> Aretxabaletan, 2018ko abenduaren 21ean.	ESKER ONA Arantxa Ormazabal Mintegi  Bixente Urkiaren alarguna 2018ko abenduaren 14an hil zen, 80 urte zituela. Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Aretxabaletan, 2018ko abenduaren 21ean.	OROILORE Maitasunez bizi, maitasunez agurtu  <i>Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.</i> <i>Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.</i> Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1. Lehengo eta oraingo soinu-joleak
Pelikuletako soinu bandak oinarri hartuta –*Titanic* eta *Mamma Mia*, besteak beste–, Oñatiko Santa Ana lepo bete zen lehengo eta oraingo soinu-joleen emanaldia entzuteko.

2. Herri kirolak probatzen
Biharko egun handia girotzeko, Santamas Komisiñuak herri kirolak gertutik ezagutzeko aukera eman zien neska-mutikoei. Trontzan, harriak jasotzen eta txingekin ibili ziren.

3. Eskulanak ludotekan
Aste osoan ibili dira Tortolis ludotekako neska-mutikoak apaingarriak egiten. Ilusioz daude, eta Olentzerorentzako eta Mari Domingirentzako eskutitzak prest dituzte.

4. Padel txapelketako onenak
Luquin-Etxaniz bikoteak irabazi zuen santamasetako padel txapelketa, Magallanes-Larreari irabazita. Guztira, 22 bikotek parte hartu dute.

5. 90 urtekoei omenaldia
Basotxo elkarteko sei kide omendu zituzten Santa Lutzia egunez. Alkateak egin zien ongietorria, eta opariak eta elkarteko zapia jaso zituzten oroigarri modura.

6. Ospakizunetan
Irudiko kuadrillak ez du hutsik egin aurten ere. Gabonen aurretik, elkartean bazkaltzeko elkartu ziren, eta urteari errepasoa egiteko aprobeztatu zuten.

7. Eskola kiroleko txapelketan
Aloñako karateka gaztetxoek bikain ibili ziren Aretxabaletako proban. Domina ugari lortu zituzten, eta pozarren itzuli ziren tatamiaren gainean.

8. Elkartasun kontzertua
Goikobalu abesbatzak Mozambikeko proiektuak laguntzeko dirua batzeko emanaldia egin zuen, Harreman GKEren proposamena onartuta.



ZORION AGURRAK



ONATI
Ilargi Markuleta Kortajarena
Urtarrilaren 2an, 5 urte. Zorionak, maitia, familiako guztien partetik.



ONATI
Maddi Dorado Hernandez
Urtarrilaren 1ean, 3 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu erraldi bat, familiako guztien partetik. Jarraitu gure bizitzak alaitzen.



BERGARA
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 31n, 58 urte. Zorionak, amama! Mereziduzun moduan ospatuko dugu eguna. Muxu eta besarkada erraldi bat, etxeko eta, bereziki, Kenarren eta Alaineren partetik.



ARRASATE
Nora Justinne Sanchez Sanchez
Abenduaren 31n, 15 urte. Jai zoriontsuak, zure hamabost urte eder horientatik. Ondo segi, txapelduna! Muxu asko, asko, asko!



ARRASATE
Elene Zubizarreta Gorosabel
Abenduaren 30ean, 2 urte. Zorionak, Elene! Muxu potolo bat familia osuaren partetik. Izugarri maitxe zaitxugu!



BERGARA
Iratxe Osa Zabala
Abenduaren 29an, 6 urte. Zorionak, Iratxe! Gure etxeko txorotxo politxena zalako. Maitxe zaitxugu! Aita, ama eta Oier.



BERGARA
Julene Garcia Mujika
Abenduaren 27an, 5 urte. Zorionak, Julene! Oso ondo pasatu zure egunian. Etxekoak.



ARRASATE
Jon Zabalao
Abenduaren 26an, urtebete. Zorionak, maitia!



BERGARA
Aitor Beistegi Frias
Abenduaren 23an, 6 urte. Zure sei urteak poz-pozik disfrutatu lagun artean eta familia giroan. Mila muxu, etxeko eta, bereziki, anaiaren eta lehengusuen partetik.



ANTZUOLA
Maddi Iturbe Gabiria
Abenduaren 21ean, 8 urte. Zorionak, printzesa, Noaren eta etxeko guztien partetik. Egun ona pasatu. Muxu potolo bat!



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Abenduaren 20an, 8 urte. Zorionak, Gari eta Oihan! Ondo ospatu zuen urtebetetze eguna familia eta lagun artean! Patxo handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Izaroren partetik!



ONATI
Maddi Marcos Robledo
Abenduaren 20an, urtebete. Zorionak, maitia. Beti bezain alai jarraitu. Muxu potolo bat, amaren, aitaren eta etxeko guztien partetik.



ONATI
Izar Diaz Agirregabiria
Abenduaren 20ean, 6 urte. Zorionak, Izar! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Patxo handi bat, familiara danaren partetik!



ONATI
Beñat Arana Urtzelai
Abenduaren 19an, 9 urte. Zorionak, Beñat! Ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat, familiako eta, bereziki, Unaxen partetik.



BERGARA
Nahia Lagoma Casas
Abenduaren 18an, urtebete. Zorionak gurasoen, amama-aititen eta izeba-osaben partetik!




BRINKOLA
Enara Cabello Davila
Abenduaren 17an, 3 urte. Zorionak Arrasateko aita-amamen eta izeba-osaben partetik!



BERGARA
Helene eta Lide Otazo Egorza
Abenduaren 16an, 3 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunian!



BERGARA
Unai Diaz Davila
Abenduaren 15ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko eta, bereziki, lehengusuen partetik. Muak!



ONATI
Garazi Martins Lera
Abenduaren 15ean, 8 urte. Zorionak, politt hori, zure laugarren urtebetetzian! Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Naia Telleriarte Sancho
Abenduaren 14an, 8 urte. Zorionak, printzesa. Familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta urtarrilaren 11n Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko
17:00ak arte
jasotako zorion
agurak bakarrik
iragarriko
ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko
ditugu.

EGUBAKOITZA 21

ELGETA San Tomas azoka txikia

Herri Eskolako neska-mutikoen eskutik.

Mendizaleen plazan, 09:30etan.

ELGETA Bisita**Mizpirualdera**

Udal ordezkarien eta Xalbadorpeko kideen urteroko bisita.

Mizpirualde egoitzan, 16:00etan.

ELGETA Ate irekiak**ludotekan**

Gabonetako tailerra, 7-12 urte artekoendako.

Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Txu-txu tren

Familiendako ekintza.

Kaleetan, 17:00etan.

ANTZUOLA Txistor-jana

Erretiratuendako.

Landatxopen, 18:00etan.

OÑATI 'Kandelen gaua'

Sancti Spiritus unibertsitateko ateak irekiko dira eta kandela-argiek gaueko iluntasuna argituko dute.

Unibertsitatean, 18:00etan.

BERGARA Gabonetako**saioa**

Musika eskolako ikasleekin.

Pilotalekuan, 18:30etan.

ELGETA Musika ikasleen**kontzertua**

Lorea Larrañagaren ikasleen emanaldia.

Espaloian, 19:00etan.

OÑATI Oñatiko kirol sariak

Urteko kirolari eta talde onenak sarituko dituzte.

Udaletxean, 19:00etan.

ELGETA Pilota txapelketa

Lau finalerdi jokatu dituzte.

Pilotalekuan, 19:00etan.

ARRASATE Santamasetako bertso jaialdia

Uxue Alberdi, Igor Elortza, Nerea Ibartzabal, Aimar Karrika, Ainhoa Agirreazaldegi eta Odei Barroso oholtza gainean.

Amaia antzokian, 20:00etan.

ARRASATE 'Le tambours de feu' suzko kale antzerkiaGABONETAKO
AGENDA

GOIENA

ARAMAIO Bizente Goikoetxea abesbatza

Hutsik egin barik, urteroko emanaldia egingo du Aramaioko abesbatzak etxekoen eta lagunen aurrean; erreperitorio zabala aukeratu dute. Hainbat kanta interpretatuko dituzte, eta dira Gabonetako kantak eta bertsioak faltako. Herriar guztiendako emanaldi irekia izango da.

Etzi, domekan, meza nagusiaren ostean, parrokan.

Santamasetako ekintza.

Herriko Plazatik, 21:00etan.

OÑATI Tooth, Doble Capa eta Lee-kore taldeak

Post-rock, rock, blues eta power doinuak entzuteko aukera.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 22

ELGETA Irteera Bilboko**parkera**

Gazteleku zerbitzuaren eskutik.

Mendizaleen plazan, 09:15ean.

ARRASATE Santamasak

Ganadua eta hegaztiak; frutak eta barazkiak; eta artisautza.

Kixki txerriaren aurkezpena.

Arrasaten, 10:00etan.

BERGARA Nafar feria

11:00etan, Jesus Jauregiri

omenaldia; 11:30etan, azokaren irekiera; 12:00etan, poneyak eta zezentxoak; 12:30etan, postal lehiaketaren sari banaketa; eta, 13:00etan, Alai taldearen saioa.

San Antonio auzoan.

BERGARA Eskubaloia eguna

Kirola ezagutzeko jardunaldia egingo dute.

Labegaraletan, 10:00etan.

BERGARA Txu-txu tren

Familiendako ekintza.

Kaleetan, 11:30etan.

BERGARA Txistulari Banda

Kalejira egingo du.

San Antonio auzoan, 11:30etan.

OÑATI Erakusleihen lehiaketa

Sari banaketa ekitaldia.

Udaletxean, 13:30etan.

ARRASATE Txerri dantza**herrikoia**

Santamasak.

Herriko plazan, 13:45ean.

BERGARA Argiak bizikletaz**piztu**

Gabonetako argiak pizteko ekintza.

Fraiskozuri plazan, 18:00etan.

ARRASATE Larrain dantza

Santamasak.

Herriko Plazan, 19:30etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua

Oñati abesbatzaren emanaldia, Miren Gurutze Plazaolaren zuzendaritzapean.

Agustindarren elizan, 20:00etan.

ARRASATE Ilargi Beltza taldearen erromeria

Santamasak.

Herriko Plazan, 20:00etan eta 23:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua

Musika banda, Aritzeta, Orkestra Sinfonikoa, Orfeoia eta Orfeoi Gaztea. Sarrerak, zortzi euro.

Pilotalekuan, 20:30ean.

BERGARA Biolontxelo**emanaldia**

Quico Pugesen kontzertua, Angiozarren. Debalde eta irekia, herritar guztiendako.

San Migel elizako kapera, 22:30ean.

BERGARA Neke Politikoa, Blood Brothers eta Detroit taldeak

Jar itzazu tapoiak, mesedez irratsaioak antolatuta. Debalde.

Gaztetxean, 22:30ean.

DOMEKA 23

BERGARA Kartzela zaharra**ezagutzeko bisita gidatua**

Gaztetxera joaten ez direnendako, 12:00etan eta 16:00etan.

Gaztetxean.

ARRASATE Herrixa Dantzan zuzenean

Jainaga eta Narbaiza trikitilarien doinuekin, eta Patxi Monterok gidatuta.

Seber Altuben, 12:30ean.

ELGETA Eskulanak eta plaza apaintzea

Neska-mutikoendako. Debalde.

Mendizaleen plazan, 17:00etan.

OÑATI Migratzaile baten hitzaldia

Oñatin bizi den pertsona batekin egingo dute solasaldia.

Gaztelekuan, 17:30ean.

BERGARA 'Lope' filma

Oñatiko LPM taldeak egindako lana, Lope Agirre oinarri hartuta.

Gaztetxean, 18:00etan.

ARAMAIO 'Haziara' ikuskizuna

Estimulazio artistiko goiztiarreko jaialdia.

Aramaion, 18:00etan.

BERGARA 'Horra Horra' kontzertua

Haur abesbatzen Gabonetako kontzertua. Sarrerak, hiru euro.

Pilotalekuan, 18:00etan.

ANTZUOLA Txotxongilo emanaldia

Rosa Martinezek *Nahia eta Neo* delako emanaldia egingo du. Sarrerak, hiru euro. *Olaran etxean, 18:30ean.*

ELGETA Olentzero, gutunak jasotzera

Intxortatik jaitsiko da, neska-mutikoen gutunak jasotzera. *Mendizaleen plazan, 18:30ean.*

ESKORIATZA

'Desbloqueadas' antzezlan

Zortzi emakumeren bidaia pertsonala kontatzen du istorioak. Sarrerak, lau euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARRASATE 'Erlauntza' antzezlan

Txikitako lagun kuadrilla bat ezkon aurreko agurra ospatzeko elkartuko da, eta urteak alferrik ez direla pasa konturako dira. Sarrerak, hamabi euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ARETXABALETA Organo eta kantu kontzertua

Jose Luis Franzesena organoan, eta Mariatxen Urkia eta Mari Karmen Etxeandia sopranoak eta Jokin Bengoa eta Ciriaco Sandoval tenorrak kantuan. *Parrokian, 20:00etan.*

ESKORIATZA

'Desbloqueadas' antzezlan

Zortzi emakumeren bidaia pertsonala kontatzen du istorioak. Sarrerak, lau euro. *Zaldibar antzokian, 21:00etan.*

ASTELEHENA 24

BERGARA Olentzeroren etorrera

Angiozar bailarako auzo, baserri eta etxe guztietara. *Angiozarren, 08:45ean.*

ARETXABALETA Gabon kantuan

Herriko neska-mutikoen, gurasoen eta Basotxoko kantu taldekoen kalejira *Herriko kaleak, 10:30ean.*

ANTZUOLA 'Badatoz Olentzero eta Mari Domingi!'

11:00etan, kalejira, Errekaldetik hasita; eta 18:30ean, Olentzeroren eta Mari

Domingiren jaitsiera San Josetik. *Antzuolan.*

ELGETA Gabon kanta eta hamarretakoa

Maala Guraso Elkartearen eskutik. *Herri Eskolan hasita, 11:00etan.*

OÑATI Gabon kanta abesteko kalejira

Txantxiku Ikastolaren eskutik. *Txantxiku Ikastolan hasita, 11:30ean.*

BERGARA Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera

San Martzialdik etorriko dira. *Oxirondo azokan, 11:30ean.*

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Sorgina

Gutunak jasoko dituzte Munarren, Uriben, San Andresen, Musakolan, Aprendicesen eta Santa Teresan. *Arrasaten, 11:20ean.*

ESKORIATZA Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita

12:00etan, haurren eskutitzak jaso eta Gabon kanta abestuko dituzte; 13:00etan, kalejira; 17:30ean, Gabon kanta zaharren egoitzan; 18:00etan, Apotzagatik datozen Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria. *Eskoriatzan.*

ARETXABALETA Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera

12:00etan, Olentzerok eta Mari Domingik gutunak jasoko dituzte; eta 18:30ean, kalejira egingo dute kiroldegitik Herriko Plazaraino. *Aretxabaletan.*

BERGARA Olentzerorekin kalejira

Elektrotxarangarekin, eta Sarek gonbidatuta. *Munibe plazan, 12:30ean.*

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Sorgina

Gutunak jasoko dituzte. *Seber Altuben, 13:15ean.*

OÑATI Olentzerori eta Mari Domingiri harrera

Musika eskolakoen, Haitzondo kuadrillakoen eta Algaraz elkarteko eskutik. *Foruen plazan, 12:30ean.*

ARAMAIO Olentzeroren etorrera

Guraso elkarteak, trikiti elkarteak, Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Papargorrik lagunduta. *Kiroldegian, 18:00etan.*

BERGARA Gutunak jasotzeko tartea

Olentzerok eta Mari Domingik gutunak jasoko dituzte, eta gozokiak banatu. *Seminarixoan, 18:30ean.*

OÑATI Gabon kanta

Musika bandaren emanaldia. *Foruen plazan, 19:00etan.*

ARRASATE Goikobalu abesbatza

Gabonetako kontzertua egingo du. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

BERGARA Olentzeroren etorrera

Menditik helduko da Osintxura. *Osintxun, 19:00etan.*

OÑATI Gabon kantein kalejira

Oñati abesbatzaren eskutik. *Kaleetan, 19:30ean.*

BERGARA Mojito gaua

Elvis Caino Djaren eskutik. *Gaztetxean, 00:00etan.*

MARTITZENA 25

OÑATI Auzolana gaztetxean

Gaztetxea txukundu eta hainbat lan egingo dituzte. *Antixenan, 10:00etan.*

ELGETA Intxortara irteera

Herriar guztiendako irekia. Tontorrean, txistor-pintxoak banatuko dituzte. *Mendizaleen plazan, 11:00etan.*

ESKORIATZA Anita Parker

Izen bereko diskoa aurkeztuko du Arrasateko taldeak. *Inkernu tabernan, 22:00etan.*

EGUAZTENA 26

BERGARA Hockey txapelketa

3x3 eta 4x4 modalitateetako irristaketa txapelketa. *Labegaraietan, 09:00etan.*

OÑATI Auzolana gaztetxean

Gaztetxea txukundu eta hainbat lan egingo dituzte. *Antixenan, 10:00etan.*



PATATA TROPIKALA

ESKORIATZA Antzerkia: 'Denboraren taupadak'

Fabrika zaharra dagoen tokira neska bat iritsi da bere maletarekin. Odei du izena. Baina bertan zerbait arraroa gertatzen ari da; Guztiak haserre bizi dira. Ez dute denborarik ezertarako. *Bihar, zapatua, Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

ANTZUOLA Debagoieneko Gabon Kopa

Antzuolako eta inguruetako herrietako pilotariekin, benjamin, alebin eta infantil mailetakoko pilota txapelketa. *Pilotalekuan, 10:00etan.*

ARETXABALETA Bixente Etxeandia futbol txapelketa

Futbol eskolen arteko txapelketa jokatu dute neska-mutikoen. *Ibarran, 10:00etan.*

ARRASATE Hiruko saskibalo txapelketak

LH-ko 3., 4., 5., eta 6. mailetakoko neska-mutikoendako, Ointxe!-ren eskutik. *Iturripen, 10:00etan.*

OÑATI Gabonetako ekintza bereziak

3-10 urte artekoendako, ludotekako begiraleen eskutik. *Foruen plazan, 10:30ean.*

OÑATI Gabonetako ur jolasak

Txirristak, puzgarriak eta bestelakoak egongo dira kiroldegiko igerilekuan: 10:30-12:30 eta 16:30-18:30. *Zubikoan.*

ARAMAIO Umeentzako tailerra

Askotariko ekintzak egingo dituzte. *Kultura etxean, 12:00etan.*

BERGARA Kosmetika ikastaroa

Janire Lamarianoren eskutik. Kosmetikoen ezaugarriak zeintzuk diren erakutsiko ditu. *Oxirondon, 15:00etan.*

ESKORIATZA Gabonetako parkea igerilekuan

16:00-18:00, 8 urte arteko umeak; eta 18:00-20:00, 9-12 urte artekoak. *Kiroldegian.*

ANTZUOLA San Esteban krosa

17:30ean, 5-8 urte artekoak; 17:45ean, benjaminak, alebinak eta infantilak; eta 18:00etan, kadeteak eta helduak.
Herriko plazan, 17:30ean.

ARAMAIO 'Haziara' ikuskizuna

Estimulazio artistiko goiztiarreko jaialdia.
Aramaion, 18:00etan.
OÑATI 'Lus bustian idatziak' erakusketa
Iñaki Jauregiartzok eskuz egindako buztinezko lanak. Izena eta izana duten pertsonaia esanguratsuak ikusgai, urtarilaren 11ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI 'Planeta arteko bidaia. Zer sartu maletan?' hitzaldia
EHUKo Planeta-zientzien taldeko kide eta Fisikan doktore Itziar Garatek egingo du berba, Iltargi taldeak gonbidatuta.
Kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Lope' filma
Oñatiko LPM taldeak egindako lana, Lope Agirre oinarri hartuta.
Inkernun, 19:00etan.

ARETXABALETA Gospel kontzertua

Ainhua Egigurenek, Lidia Insaustik eta Lide Hernandok osatzen dute Ispiritu taldea. Eurekin egongo dira oholtza gainean Iñaki Santos, Maria Soriazu eta Andoni Etxebeste.
Arkupen, 20:00etan.

EGUENA 27

OÑATI Areto-futbol txapelketa
Presoen eskubideen aldekoa. Gizonezkoena eta emakumezkoena.
Zubikoan, 10:00etan.

ARRASATE Emakumeen futbol txapelketa
09:00etan, infantilak; 12:00etan, kadeteak; eta 15:00etan, alebinak.
Mojategi futbol zelaian.

ELGETA Umeen pilota txapelketa
Adinaren arabera.
Pilotalekuan, 10:00etan.

BERGARA Hiruko saskibalo txapelketa
Begarako Kirol Elkartearen eskutik.
Pilotalekuan, 10:00etan.

OÑATI Auzolana gaztetxean
Gaztetxea txukundu eta hainbat lan egingo dituzte.
Antixenean, 10:00etan.

ARETXABALETA Saskibaloiko teknifikazio campusa
2005-2008 urteen artean jaiotakoendako.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

OÑATI Gabonetako ekintza bereziak
3-10 urte artekoendako, ludotekako begiraleen eskutik.
Foruen plazan, 10:30ean.

OÑATI Gabonetako ur jolasak
Txirristak eta puzgarriak, besteak beste: 10:30-12:30 eta 16:30-18:30.
Zubikoako igerilekuan.

ANTZUOLA Gabonetako haur parkea
Puzgarriak eta koltxonetak, besteak beste: 11:00-13:30 eta 16:30-19:00.
Jolaslekuan.

BERGARA Familientzako paleontologia tailerra
Fosilen bidez naturaren historia ezagutzen hasteko.
Laboratoriumen, 11:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako parkea
Puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoak... 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian.

BERGARA Kosmetika ikastaroa
Janire Lamarianoren eskutik. Kosmetikoen ezaugarriak zeintzuk diren erakutsiko ditu.
Oxirondon, 15:00etan.

ELGETA Mahai joko txapelketa
Briska eta tute txapelketak erretiratuendako.
Ozkarbi elkartean, 16:00etan.



VAIVEN

ARETXABALETA 'Zoaz pake santuan' antzezlan
Txalo Produkzioak taldearen azken lana, Mikel Laskurain eta Ane Gabarain aktoreekin. Daraman bikote bizimodu aspergarria bukatzeko, senarra akabatzea erabaki du protagonistak, eta pozoia erabiliko du horretarako. Hortik aurrera, egoera hankaz gora ipini dezaketen mila istorio. Sarrerak, lau euro.
Abenduaren 27an, Arkupen, 19:30ean.

ELGETA Tailerra: maskara eta esku-jokoak
Neska-mutikoendako ikastaroak. Debalde.
Gimnasioan, 17:00etan.

BERGARA 'Kibubu' haur antzerkia
Errespetuari eta askatasunari buruzko ikuskizuna. Sarrerak, lau euro.
Seminarixuan, 17:00etan.

OÑATI 'The rider', zineklubean
Chloe Zhaoren pelikula. Sarrerak, bost euro.
Kultura etxean, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 28

OÑATI Kuadrillen arteko saskibalo txapelketa
Aloña Mendiren eskutik.
Zubikoan, 10:00etan.

OÑATI Areto-futbol txapelketa
Presoen eskubideen aldekoa. Gizonezkoena eta emakumezkoena.
Zubikoa, 10:00etan.

ARRASATE Emakumeen futbol txapelketa
Real, Eibar eta Debagoieneko selekzioak, aurrez aurre.
Mojategin, 10:00etan.

ELGETA Umeen pilota txapelketa
Adinaren arabera.
Pilotalekuan, 10:00etan.

BERGARA Gabonetako eskubalo txapelketa
Infantil mailakoa.
Labegaraietan, 10:00etan.

OÑATI Gabonetako ekintza bereziak
3-10 urte artekoendako tailerrak, jolasak eta ekintzak.
Foruen plazan, 10:30ean.

BERGARA Gabonetako jolas parkea
6 urtetik beherakoendako: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrerak, lau euro.
Pilotalekuan, 11:00etan.

ARETXABALETA Puzgarriak igerilekuan
Puzgarriak: 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.
Ibarra kiroldegian.

ESKORIATZA Gabonetako parkea
Puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoak... 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian.

ARAMAIO Ipuin kontalaria
Umeendako.
Kultura etxean, 17:00etan.

BERGARA 'Katillukadak', haur antzerkia
Mikel Ibartzabalen eta Aitor Ormaetxearen eskutik. Sarrerak, lau euro.
Seminarixuan, 17:00etan.

ARAMAIO 'Aramaixoarrak' argazki proiektzioa
Alex Mendikuteren eskutik. Argibideak emango ditu.
Sastiñan, 18:30ean

ARETXABALETA Bertso jaialdia
Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jone Uria eta Unai Agirre bertsotan. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI Txuletons taldea
Inozente eguneko kontzertua egingo du Oñatiko taldeak.
Gaztetxean, 22:30ean.



MARIA URZELAI



GOIENA

BERGARA 'Lau' haur antzerkia

Umeendako emanaldia egingo du Maria Urzelai aktoreak. Berak zuzendutako lanean, kantuan eta dantza egingo du antzokian dauden neska-mutikoekin. Emanaldi bikoitza egingo du, eta sarrerak leihatilan bertan erosi ahal izango dira emanaldiak hasi aurretik.

Abenduaren 26an, Seminarixoa, 17:00etan eta 18:30ean.

OÑATI 'Kontu kontari' ikuskizuna

Oroimeneko abestiak berreskuratzen dituen ikuskizuna, txotxongiloen laguntzarekin. Reggae, rap eta blues ukituekin birmoldatu dituzte kantuak. Sarrerak, 3,50 euro 3,50 euro.

Abenduaren 27an, Santa Anan, 17:00etan.

ZAPATUA 29**ARRASATE 'Txelis'-en omenezko txapelketa**

Gaztetxoendako tornea. Finalak, 13:30ean.

Mojategin, 09:00etan.

OÑATI Kuadrillen arteko saskibalo txapelketa

Aloña Mendiren eskutik.

Zubikoan, 10:00etan.

BERGARA Eskubalo txapelketa

Infantil mailakoa.

Labegaraian, 10:00etan.

BERGARA Gabonetako saskibalo txapelketa

Infantil mailakoa.

Labegaraian, 10:00etan.

BERGARA Gabonetako jolas parkea

6 urtetik beherakoendako: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrerak, lau euro.

Pilotalekuan, 11:00etan.

ARETXABALETA Xunba maratona

Jasotako dirua Aratz elkarteko kideendako izango da. Sarrerak, bost euro.

Ibarran, 11:00etan.

ARETXABALETA Karmele Igartua sorkuntza bekaren sari banaketa

Ekitaldi irekia.

Arkupen, 12:00etan.

ANTZUOLA Herriko mus txapelketa

Lehenengo kanporaketa jokatu dute.

Ongi Etorri jatetxean, 16:30etan.

OÑATI 'Ploey' filma gaztetxoendako, euskaraz

Sarrerak, lau euro.

Zinema aretoan, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Jurassic world' filma

Borondatzeko sarrerarekin.

Zaldibarren, 17:00etan.

ARAMAIO Bertso saioa

Andere Arriolabengoa, Sustrai Colina, Amets Arzallus eta Nerea Ibartzabal ibiliko dira Aramaion bertsotan.

Kultura etxean, 19:30ean.

OÑATI 'Robin Hood' filma

Otto Bathurst-en pelikula.

Sarrerak, bost euro.

Zinema aretoan, 22:30ean.

OÑATI Sumision City Blues

Gasteizko taldearen kontzertua.

Oraingoan, Gabonetarako

argitaratu duten EP laburra

aurkeztera datoz.

Gaztetxean, 22:30ean.

DOMEKA 30**OÑATI Arrikruzeko lehoiari lotutako irteera**

Aurrez eman behar da izena:

943-08 20 00 edo arrikruz@onati.eus.

6 urtetik gorakoendako.

Arrikruzten, 10:00etan.

BERGARA Gabonetako saskibalo txapelketa

Infantil mailakoa.

Labegaraian, 10:00etan.

BERGARA Bergarako Orfeo Gaztea

Gabonetako emanaldia.

Seminarixoa, 12:00etan.

OÑATI 'Ploey' filma gaztetxoendako, euskaraz

Sarrerak, lau euro.

Zinema aretoan, 17:00etan.

BERGARA Gabonetako pilota txapelketa

Finalak jokatu dute.

Pilotalekuan, 17:00etan.

ARAMAIO 'Haziara' zinema emanaldia

Estimulazio artistiko goiztiarreko landa-jaialdia.

Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA The Upper Room taldea

Zazpi musikari euskaldunek osatzen dute taldea; beraiek egindako kantak eta gospel musikako klasiko handien egokitzapenak eskainiko dituzte. Sarrerak, lau euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Aretxabaleta Abesbatzaren kontzertua

Gabonetako emanaldia egingo dute.

Parrokian, 19:30ean.

BERGARA Elkartasun ekitaldia

Sarek deituta.

Seminarixoa, 19:30ean.

OÑATI Buffalo taldea

Zarauztik datorren hirukoteak musika instrumentala egiten du, eta disko berria aurkeztuko du.

Emanaldia debalde izango da.

Gaztetxean, 22:30ean.

ASTELEHENA 31**ARRASATE Eskubalo txapelketa**

LHko 4, 5, eta 6. mailetako neska-mutikoendako.

Iturripen, 10:00etan.

ESKORIATZA XI. Silbestradie eta VIII. Manuel Muñoz milia

11:00etan, haurren lasterketarako izen-ematea; 12:00etan, haurren lasterketak; eta 17:00etan, helduen lasterketarako.

Fernando Eskoriatza plazan.

BERGARA San Silvestre txiki lasterketa

Umeendako.

Irala kalean, 11:30ean.

ELGETA Pilota txapelketa

Finalak eta sari banaketa.

Pilotalekuan, 12:00etan.

BERGARA San Silvestre trail lasterketa

Helduendako.

San Martin, 12:00etan.

ARRASATE San Silvestre lasterketa

Lehen aldiz egingo dute.
Ziar-Ola elkartean, 12:00etan.
ARRASATE Arrasate Musikaleko Banda
 Gabon zahar eguneko kontzertua egingo dute.
Amaia antzokian, 13:00etan.

OÑATI San Silvestre lasterketa
 16:00etan, gaztetxoan lasterketa eta 16:30ean, nagusiena. Azken horiek zazpi kilometroko ibilbidea egin beharko dute.
Foruen plazan, 16:00etan.

ARETXABALETA San Silvestre lasterketa
 16:45ean, txikien lasterketa; eta 17:00etan, 18 urtetik gorakoena.
Durana kalean, 16:45ean.

ARRASATE Musika bandaren emanaldia
 Kalejira egingo du.
Kaleetan, 18:30ean.

OÑATI Musika bandaren emanaldia
 Kalejira egingo du.
Kaleetan, 18:30ean.

ARETXABALETA Bizarzuriren etorrera
 Herriko neska-mutikoen gutunak jasoko ditu.
Kiroldegian, 18:30ean.

OÑATI DJ herrikoien jaialdia
 Gabon zaharreko emanaldia.
Gaztetxean, 00:00etan.

MARTITZENA 1

ANTZUOLA Urte berriari ongietorria, mendian
 Arrolara joango dira. Tontorrean, salda eta txistor-pintxoak egongo dira.
Herriko plazan, 09:00etan.

EGUAZTENA 2

ARRASATE Txikilandia
 Askotariko ekintzak, tailerrak eta jolasak, adin guztietarako umeendako: 10:33-13:00 eta 16:00-20:00.
Uarkapen.
BERGARA Gabonetako jolas parkea
 7 urtetik gorakoendako: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrerak, lau euro.
Pilotalekuan, 11:00etan.



GARI

ELGETA Gari & Maldanbera, Espaloian

Gari abeslariak *Beste denbora batean* izeneko diskoa aurkeztuko du. Sarrera salgai hemen: Bergarako Eruan taberna, Arrasateko Irati taberna, Eibarko Kultu taberna eta Elgetako El Rincon de Lola. Aurrez erosita, hamabi euro, eta leihatilan, hamabost euro.
Abenduaren 30ean, Espaloian, 22:30ean.

ELGETA Gabonetako parkea

Sarrerak, bi euro.
Pilotalekuan, 16:00etan.

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra

5-12 urte artekoendako. Ez da ludotekako bazkide izan behar parte hartzeko.
Ludotekan, 16:00etan.

BERGARA 'Motxila etorkizunez bete' erakusketa

Sarek antolatuta, hilaren 4ra arte.
Irizarren, 18:30ean.

EGUENA 3

ARRASATE Txikilandia
 Askotariko ekintzak, tailerrak eta jolasak, adin guztietarako umeendako: 10:33-13:00 eta 16:00-20:00.
Uarkapen.

OÑATI Gabonetako parkea

Ohe elastikoa, puzgarriak, tailerrak... 11:00-14:00 eta 16:30-20:00. Sarrerak: egun

erdia hiru euro eta egun osoa bost euro.

Zubikoan, 11:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako parkea

Eskulan tailerrak, puzgarriak, jokoak eta askoz gehiago: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian, 11:00etan.

BERGARA Gabonetako jolas parkea

7 urtetik gorakoendako: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrerak, lau euro.
Pilotalekuan, 11:00etan.

ESKORIATZA 'Pilota berpiztuz'

Irekia
Kultura etxean, 15:00etan.

ELGETA Gabonetako parkea

Puzgarriak, gazteluak, ohe elastikoak... Sarrerak, bi euro.
Pilotalekuan, 16:00etan.

ESKORIATZA Eskulan eta mahai-jolasak

5-7 urte artekoendako.
Ludotekan, 16:00etan.

ESKORIATZA Gurrpil aulkiko saskibaloi erakustaldia

Vita Fundazioa eta Zuzenak taldeak, nor baino nor gehiago.
Manuel Muñoz kiroldegian, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 4

ARRASATE Txikilandia

10:33-13:00 eta 16:00-20:00.

Uarkapen.

OÑATI Gabonetako parkea

11:00-14:00 eta 16:30-20:00. Sarrerak: egun erdia hiru euro eta egun osoa bost euro.
Zubikoan, 11:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako parkea

Eskulan tailerrak, puzgarriak, jokoak eta askoz gehiago: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian, 11:00etan.

BERGARA Gabonetako parkea

7 urtetik gorakoendako: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrerak, lau euro.
Pilotalekuan, 11:00etan.

ANTZUOLA 'Patxiko Txerren' ipuin kontaketa

Apika taldearen eskutik, umeendako saioa.
Olaranen, 17:30ean.

BERGARA 'Motxila etorkizunez bete' erakusketa

Sarek antolatuta, hilaren 4ra arte.
Irizarren, 18:30ean.

OÑATI 'Angelus' kontzertua

Hots Abesbatza eta Ganbara Orkestra. Sarrerak, Txokolateixan.
Arantzazun, 19:00etan.

OÑATI Montauk eta Joseba Irazoki Ta Lagunak taldeak

Montauk soinu britainiarrak oinarri hartuta grabatutako *Geruzak* delako diskoa aurkeztuko du. Irazokik ere lan berria aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 5

OÑATI Arrikruzeko lehoiari lotutako irteera

Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00 edo arrikruz@onati.eus. 6 urtetik gorakoendako.
Arrikruzten, 10:00etan.

BERGARA Gazte mailako futbol txapelketa

Sari banaketa ekitaldia 12:30ean.
Ipintzan, 10:00etan.

OÑATI 'Oñati ezagutzen' jolasa

XV- XVI. mendeetako eraikinen berezitasunak ezagutzeko jolasa, Turismo Bulegoaren eskutik
Turismo Bulegoan, 11:00etan.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

100 urteko gazteak

102 urteko emakume australiar batek paraxutean egin du salto. Munduko paraxutista helduena bihurtu da. Irene O'Shea. Bere alaba gaixotasun arraro batekin hil zen, eta ikerketarako dirua biltzeko egin du salto. Ez zen lehen aldia: 100 urterekin egin zuen lehen aldiz. Hurrengoan, beroki sendoagoa jantziko ei du: "Hotz egiten zuen! Bizi banaiz, 105 urterekin berriz".

Julia Hawkins estatubatuarra ere 102 ditu. Munduko korrikalari helduena ei da. Iaz, marka berria lortu zuen, Louisianako adinekoen lasterketan: 100 metro, 40 segundo baino gutxiagoan. Eta entrenatzen jarraitzen du, etxeko lorategian. 100 urterekin hasi zen antxintxiketan. "Barregarria da: sekula ez dugu geure burua zahar ikusten!", zioen duela gutxi.

100 urteko emakume bat elkarrizketatu dut berriki. Felisa Etxabe azkoitiarra. Bizia, umoretsua. Kontalari aparta. Egunero basotxo bat ardo edaten du, "Mendaroko medikuaren aginduz". Esan zion 80tik aurrera ez duela kalterik egiten. Flora ahizpa bikiak eta biek 101 urte beteko dituzte laster. Errege egunean jaio ziren, "bata amaren zapatan eta bestea aitaren botan!".

Gazte sentitzen diren zaharrak. 100 urtera iristea ez, baina zahar sentitzen diren gazteak ez izatea gure esku dago.

BUKATZEKO

Zoila Askasibarren pistaren atzetik, Elgetan

Angeles Ezama ikertzaileak eman du 1877an Elgetan jaiotako emakume honen berri. Gutxi da, oraingoz, Zoila Askasibari buruz aurkitu dena. 40 bat langileko inprenta baten jabe izan zen Madrilén, eta zaintzapean zegoen errepublikazalea izateagatik

Larraitx Zeberio ELGETA

Une honetan, gehiago dira galderak erantzunak baino. Dagoen informazio apurra, ordea, argi erakusten du ikertzeko moduko figura dela Zoila Askasibar. Ezama artxibategitik artxibategira dabil datu gehiago bildu nahian, eta Elorrioko oinordekoek senitarteko gehiagoren bilaketan dihardute pista berriak zabaltu guran. "Zoilaren ahizpa Maria Josefaren birbilobak gara. Beti izan dugu izeba presente, baina gutxi dakigu bere bizitzari buruz eta ez dakigu nola izan zen bere amaiera. Susmo batzuk badaude bere desagerpenari buruz, baina frogaturik ezer ere ez. Horregatik nahi dugu zuhurtziaz jokatu", azaltzen dute.

Inor gutxi izan zen Elgetan Zoila Askasibarren berri, eta iker-tzen jarraitzeko denbora eskatzen dute senitartekoek. "Angiozarkoak ziren, baina ez dakigu zein baserriakoa. Gurasoak hildakoan joan zen Zoila Madrilera bere ahizpekin, eta nabarmentzen dena da emakumea izanda noraino heldu zen".

Agiritegietan aurkitutako datuen arabera, 1877an jaio zen Zoila Askasibar, Elgetan. Familiak dio neskame joan zela Ma-



Inprimatzaile eta editore elgetarra, Madrilén. 'ALREDEDOR DEL MUNDO' ALDIZKARIA (1923/12/15)

drilera 20 bat urte zituenean, eta, Madrilgo eroldaren arabera, neskame zegoen Manuel Alhama Montes kazetariaren eta inprimatzailearen etxean, 1905ean. Hurrengo datua 1915eko eroldakoa da. Soldatapeko lan-

gile moduan agertzen da, eta Mariano Graciarekin ezkondu-ta. Alhamaren inprentako lan-gile izango zen? Hipotesiak hipotesi, 1923an Zoila Askasibar izeneko inprimategiko jabe moduan agertzen da *Alrededor*

del mundo aldizkariko artikulubatean. Enpresa 40 bat langile izatera heldu zen, Madrilgo Martin de los Heros kaleko 65. atarian zegoen kokatuta, eta elgetarra gaineko solairuan bizi zen.

Askotariko argitalpenak inprimatzen zituzten: aldizkari espezializatuak, satirikoak, politikoak... baina, bereziki, artearekin lotutakoak. 1924koak dira Zoila Askasibar zigilupean kaleratutako lehen argitalpenak. 1925etik aurrera, gainera, argitaratzaile ere izan zen elgetarra.

Argitzeko asko oraindik ere

1931ko urtarrilean, gas eztanda bat izan zen inprimategian. Orduko prentsaren arabera, elgetarrarekin harreman komertziala zuen Antonio Cabanillas izeneko gizonezko batek eragin zuen, eta bertan hil zen. Inprimategia kale bereko beste eraikin batera aldatu zuten, eta bada gertaera hari atentatu itxura hartzen dionik ere.

Negozioak martxan jarraitu zuen, baina ez da Zoila Askasibar zigilupeko argitalpenik ageri 1936tik aurrera. Elgetarra ikusi zuen azken senitartekoa duela gutxi hil zen, Elorrión. 1940ko hamarkada hasiera izango zen, 12 bat urteko mutikoa zen. Datu horien arabera, Askasibarrek 65 bat urte izango zituen.

Salamanca memoria historikoaren dokumentazio zentroan agertu den fitxa batek jasotzen du errepublikaren aldekoa zela Askasibar, eta agintari frankistek gertutik zaintzen zutela.

Emakume ezezagun bezain interesgarri horren pistaren atzetik jarraitzen dute, Elgetan. Ikerketak fruitu interesgarriak emango ditu, ziur.

Gabon hauetan oparitu

%30eko DESKONTUA

eguzkitako betaurrekoetan

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziatua, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com